


Beasain

mende-hasieran
a principios de siglo
1900-1931



Jon Kortazar

Deustuko Unibertsitatean
Historian lizentziaduna,
2007. urtetik historia
eta arkeologiarekin
zerikusia duten ikerketa-lanak
burutzen dihardu Aranzadi
Zientzia Elkarteko kide
bezala. Honez gain,
UNED-eko Ikerketa Historikorako
Metodo eta Teknika Aurreratuak
masterra ere eskuratu du.

Licenciado en Historia
por la Universidad de
Deusto, desarrolla trabajos
de investigación histórica y
arqueológica como miembro
de la Sociedad de Ciencias
Aranzadi desde el año 2007.
Paralelamente ha completado
su formación mediante
la realización de un máster
universitario en Métodos
y Técnicas Avanzadas de
Investigación Histórica (U.N.E.D.).

Babeslea
Patrocinador



Beasaingo Udala

BEASAIN: OROIMEN HISTORIKOA

BEASAIN mende-hasieran 1900-1931

A principios de siglo: 1900-1931

Jon Kortazar Billelabeitia

Beasain 2018



PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO

Mikel Edeso, Juanxo Agirre-Mauleon

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / INVESTIGADORAS COLABORADORAS

Rebeca Martínez (Aranzadiko historialaria / Historiadora de Aranzadi - Archivo Militar de El Ferrol),
Cristina Martín, Marijose Hernández (Antropología Físikoko Saila / Departamento de Antropología Física - Aranzadi),
Anais Rodriguez (Artxiboa / Archivo - Aranzadi).

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS

Ikerketa lan honetan parte hartu duten herritar guztiei, bereziki Beasaingo oroimen historikoaren taldeari.

AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA

Autor desconocido. Publicada en: Beasaingo argazki zarren bilduma = Recopilación de fotografías antiguas de Beasain 1873-1960 / José Zufiaurre Goya.

EUSKARAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN EUSKERA

Andoni Sarriegi

GAZTELANIAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN CASTELLANO

Karlos Almorza

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www.aranzadi.eus

Egilea/Autor

Jon Kortazar Billelabeitia

Itzulpena/Traducción

Saretik Hizkuntza Zerbitzuak, UZEI, Logika Itzulpenak.

Maketazioa/Maquetación

TamTam S.L.

Imprimatzen du/Imprime

Leitzaran Grafikak S.L.


ISBN 978-84-947343-3-5 (O.C.)

ISBN 978-84-947343-4-2 (1. libk - Vol. I)

L.G. / D.L. SS 1120-2018

Aurkibidea

AURKEZPENA.....	07
1. BEASAIN MENDE-HASIERAN 1900-1931	11
1.1. Beasainen eta Gipuzkoaren industrializatza.....	14
1.2. Beasaingo demografia eta hirigintza	24
1.3. Bestelako zerbitzuak eta elkartea.....	28
1.4. Langile-mobilizazioa.....	38
1.5. Mende-hasierako politika Beasainen.....	43
1.6. Euskararen egoera	60
2. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.....	105



Aurkezpena

Boxeo-borrokaldia Loinatz jaietan Beasaingo Loinazko San Martinen plazan. (Argazkia: Joxe Manuel Azurmendik utzia).



82 urte joanak dira 1936. urteko altxamendu militarra gertatu zenetik eta ondorioz, sustraitik aldatu zen Beasaingo erakunde eta gizarte mailako bizitza. Beasaini udal-gobernuaren normaltasun demokratikoan eta ekonomiaren modernizazioak berekin zekartzan dinamiketan aurrera egitea zegokion orduan. Gizartea Europatik iristen ari ziren kultur korronteetara eta kanpoko merkatuetara irekitzen hasia zen, egarri.

Zoritzarrez, ordea, matxinatuak modu tragiko eta bortitzean sartu ziren herrian. Oinarrizko eskubideak modu sistematikoan urratu zituzten: erailketak, erbestea, errepresalia ekonomikoak, askatasun zibil eta demokratikoak ... eten gabe gertatu ziren. Eta hori guztia diktadura frankistak iraun zuen 40 urtez luzatu zen.

Ordutik, agian, urte gehiegi igaro da. Gertaera haien protagonista eta biktima izan zirenak ez daude gaur egun gure artean, baina Udalak gertakizun haiiek ikertzeko eta eskubideak urratu zizkieten pertsona haien sufrikarioa aitortzeko betebeharra du.

Helburu hori betearazteko, Aranzadi Zientzia Elkartearren laguntza jaso dugu eta hemen aurkezten dugun lana Euskal Herriko Unibertsitatean irakurritako doktorego-tesi batean dago jasoa. Beasaingo alkate naizen aldetik, biziki espero dut honako hau pertsona hauekiko zorra aitortzeko eta gure herriaren memoria historikoa berreskuratzeko bidean beste urrats bat izatea.



AITOR ALDASORO ITURBE
BEASAINGO ALKATEA

Jai herrikoiak Loinazko San Martinen plazan, 1920ko hamarkadaren hasiera aldera.
Eskuinaldean, Udaletxearen eta eskola publikoaren eraikin zaharrak, 1924. urtean berriak egin aurrekoak. (Argazkia: FL/MG, 76. or.)

BEASAIN mende-hasieran: 1900-1931

1



BEASAIN mende-hasieran: 1900-1931

Beasain, Gipuzkoako beste herriekin alderatuz, badakigu jakin nahiko berezia izan zela. Izan ere, Beasainek izan zuen bilakaera dinamikoak, gerora II. Errepublikan gertatuko ziren gertakarietan eragin handia izan zuen. Jakina da zerbait ikertzeko, nondik gatozen ikertu behar izaten dela. Beasainek, XX. mende-bukaeran, norabide zehatz bat hartua zuen, herri industrial bihurtzeko norabidea. Herri industrialak orduan Gipuzkoan gutxi ziren. Beraz, Beasain Gipuzkoa barnean kasu berezi bezala paratua dugu. Izan ere, ezin dugu ahaztu, Beasaingo gizartean izandako demografia zein gizarte-aldaketa gogorrak gertatu zirela, Gipuzkoako beste herrietan gertatu ez zirenak hain zuen ere.

Gaur egun edonork antzematen du halako demografia-gorabeherak eta herriaren gizarte-bizitasuna, batez ere "fabrika haundie" jarri izanari lotuta daudela. Izan ere, bagoien fabrika (CAF izena 1917tik aurrera hasi zen orokortzen), populazio-erakarle izateaz gain (baita krisi garaietan populazioaren igorle ere), gune berriztatzailea izan zen Beasainen, ohitura berrien hedatzaile, elkarketa-modu berrien suspertziale, identifikazio berrien taxutzaile eta berrikuntza politikoaren faktore nagusi, hots, modernizazio politiko, sozial eta ekonomikoaren erakarle nagusi (paragrafo honetan "fabrika" aipatu dut "empresa" baino gehiago, izan ere, aldaketa horietako asko, enpresaren ekimenak izan ordez, fabrikaren errealtitatearenak eta bertako beste aktoreenak, langileenak, izan ziren, bai kontzienteak edota baita fabrikak eta han lan egiten zutenek, edota harremanak egiteko modu berriek, ekarritako berrikuntzak; edo azkenik, beharrizan berrien aurkako erantzun bezala sortutakoak. Hau da, fabrikak ekarritako aldaketak eta eraginak ez ziren beti "goitik" etorritako aldaketak izan, "behetik" eragindako aldaketak ere ekarri zituen).

XX. mende-hasieran, 1915ean, Beasainek bere independentziaren 300. urtea bete zuen, izan ere, 1615ean lortu baitzuen bere herri-karta Errege Ogasunari 3.162,30 dukat ordaindu ostean¹. Garai hartan Spainiako Filipe III.aren Ogasuna oso egoera txarrean zegoen, eta diru-sarrera berriak biltzeko modu bat izan zen halako herri-kartak "erosteko" aukera ematea. Herri batek bere "karta" ordaintzeko diru-kopurua, herri horrek zituen "auzokideen" araberakoa izan zen. Beasainek orduan 126 "auzokide" zituen. (Kontuan izan behar dugu, garai hartan "auzokidetzat" ez zirela hartzen biztanle guztiek, baizik eta boto-eskubidea zutenak: jabetzadun familiaburuak). Beasain Ordiziarengandik banandu zen, XIV. mendetik zuen egoera aldaturaz. Joxe Manuel Azurmendiren lanean azaltzen den moduan, 1399ko apirilaren 8an sinatu zen Beasain eta Goierri Ekialdeko beste zortzi herri Ordizian (zeinak 1256an hiribildu titulua lortu zuen) sartzeko Ituna². Beraz, ikusten den bezala, garai hartan Beasain ez zen Goierriko erdigune, baina gero XX. mendean lortu zuen ezaugari hori.

¹ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 16. or.

² AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 16. or.; Ordiziako Udalaren webgunearen arabera, herri horiek eskatu zuten bat egitea, inguruko bidelapurren aurkako babes gisa. Iturria: <http://ordizia.eus/ordizia/historia>.



1915. urte inguruko argazkia. Usategi baserriko bi familietako bat: gurasoak Mikela Untzueta eta Felipe Ibarbia. Seme-alabak: erdian atzean Joxe Manuel, aurrean eta ezkerretik eskuinera Joxe, Natalia, Jexux eta Eusebio. (Argazkia: Mari Karmen Ibarbiak utzia).

XIX-XX. mendeen artean, Beasain, baserritar herria izatetik, partzialki behintzat, kaletar bihurtu zen herri izatera pasatu zen; batez ere ekonomia-ekoizpenari begiratzen badiogu (XX. mende-hasieran, artean biztanleriaren gehiengoa ez zen industriako langile). Horrez gain, Beasainen industrializazioak, herri honek Goierri barnean izandako demografia-garrantzia handitu egin zuen (aipatu beharra dago 1900. urtean Beasain ez zela Goierriko herrikirik populatuena).

Esan bezala, mende-hasierako Beasain, ("fabrika haundie" 1862an hasia izan arren), artean nekazari-herria zen. Jenderik gehienetan landa-gunean bizi zen, Beasaingo herriguneak kale bakarra zuen (XIX. mende erdialdean, 282 etxebizitzetatik 182 baserriak ziren³); eta oro har, "kalea" esaten zitzzion, gaur egungo Kale Nagusia denari: datu bezala Beasaingo erroldetan kaleak ez ziren 1910. urterako arte agertzen hasi, ordura arteko erroldak etxeka egiten baitziren⁴.

XX. mende-hasieran, Beasainen bertan, "fabrika haundiaz" at ez zen industria askorik, beraz, XX. mendean sartu zen industria bete-betean Beasainen, aurreko hamarkadetan jada, herria industrializatzeko oinarriak jarririk baitziren. Une hartan fabrika hori, enpresa-aldaketa baten ostean eratu zen (1898an *Maquinista Guipuzcoana* enpresarena izatetik *Sociedad Española de Construcción de Materiales* enpresarena izatera pasa baitzen). Kontuan izan behar da baita ere, garai hartan, SECMEk "fabrika haundiarentzako" lursail berriak erosi zituela inguruan lantegiaren instalazioak handitzeko, eta hori ondoko lursailen kaltean izan zela (nahiko lur onak baitziren nekazaritzarako). Beraz, XX. mendean, Beasainek jada zirt edo zart egiteko bidegurutzean aukera bat egin zuen; industrianantz bideratzea eta nekazaritza atzean uztea. Eta XX. mende-hasieran jada, dirudienez oso ezaguna ez bada ere, Beasaingo lehen greba egin zuten, fabrikako doitzaleek (ajustatzaileek)⁵.

Beraz, Beasainek XX. mende-hasiera hartan ezagutu zuen bere aldaketa-prozesurik handiena, nekazari-herri izatetik industria-hiri izatera pasatu zenekoa.

³ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Beasaingo etnografía" in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*. 1987, 301-302. or.

⁴ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia. (Beasaingo paperak 4. zk.)*. Beasaingo kultura-batzordea. Beasaingo Udala. Beasain, 1995, 7-8. or.

⁵ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madrid, 1993, 13-17. or.

or.

1.1 Beasainen eta Gipuzkoaren industrializatzea

Gipuzkoaren industrializatze modernoa, bereziki XIX. mende erdialdean hasi zena, batez ere, ekonomia tradizionalaren gainbeherarekin batera eterri zen. Mende horretan, burdinola tradizionalen gainbehera handia izan zen. Gipuzkoako burdinolen kopurua, beherakora izaten ari zen: 1775an Gipuzkoan 75 burdinola zeuden, 1846an 58, 1860an 31 eta 1880an 4⁶. Eta noski, burdinolek, erabat desagertu aurretik, ekarpen historiko bat egin zuten, industria-forma handietarako aldaketa prestatzea, hots, "industria-pentsamoldea" egikaritza. Goierri, hain zuzen ere meatzen tokia izan zen, eta horren leku dira adibidez, Beasaingo Arriaran, Igartza eta Igartzaolea; Ataun San Gregorioko Agauntzaolea; Zaldibiako Aiestaran; Lazkaoko Amilibia eta Iribi; Segurako Armaola, Arrabiola, Arteunola eta Goienola; Idiazabalgo Arimasagasti, Oribar, Loidi eta Urtsua; eta Olaberriko Ihurre⁷.

Euskal burdingintza tradizionalaren gainbeherak ikertzeko bi faktore aipatu izan ohi dira: alde batetik barne-merkatuaren galera eta bestetik kanpoko lehia, teknika hobeago batzuekin lan egiten zuen industriaren lehia.

Lehen faktorea aipatzerakoan, XIX. mendean Amerikako hainbat Estatuk lortutako independentzia aipatu behar dugu, zeinak espiniar merkatuari kalte egin zion⁸. Horrek burdinoletako sektoreari kalte handia egin zion, nahiz eta sektorrik "landuenak"; sarraigintza adibidez, eusteko gai izan.

Bigarren faktorea, hau da, lehia, beste Estatu batzuetan, jada industrializatze modernoa sartua zen Estatuetan garatzen ari ziren teknika modernoagoak zitzuzten lantegien lehia izan zen. Industria modernoak burdinolen sistemarekiko berrikuntza aunitz ekarri bazituen ere, berrikuntzarik nagusiena (aldi berean gizarte-ondorioak izan zituena), jabeek gainbalioa lortzea eta bertako langileen soldatu ia-ia erabat kontzentratzea izan zen, hau da, industria hori, bertako langile zein nagusien diru-sarrerak lortzeko jarduera bakar bihurtu zen. Hori ez zen burdinolen kasuan gertatzen. Kontuan hartu behar da, garai hartan, burdinoletan ez zutela urte osoan lan egiten, urtarro zehatz batzuetan baizik, hots, gabikoak mugitzeko adina ur zegoen denboraldian. Horrenbestez, XIX. mendean Euskal Herrian eman ziren industrializatze-pausoetan, industrian dedikazio osoz lan egiteko pausoak eman ziren: lehenengo papergintzako enpresa sortu zen Tolosaldean, Arrasateko sarraigintza-burdinolek ere industria modernorantz jauzi egin zuten, eta Bilbon laster jarri zen Euskal Herriko lehen labe garaia Boluetako Santa Ana fabrikan, 1848an (nahiz eta proiektuak lehenagotik zeuden).

Beraz, oro har, ondoriozta dezakegu gipuzkoar industrializatze modernoa ez zela izan burdinolen krisiaren eragile, baizik eta burdinolen krisiak eragina, nahiz eta krisi hori larritu eta burdinolen desagerpena bera azkartzea ekarri zuen. Ikusi izan dugun bezala, burdinolen kopurua beherantz zetorren Gipuzkoan, 1842an papergintzako fabrika jarri aurretik, baina halako fabriken agerpenak jarduera tradizionalaren heriotza berretsi egin zuen. Elena Legorbururen CAFi buruzko ikerketan Luis Castells aipatuz, 1867an Gipuzkoako ekonomia-estatistikak egiten zitzutenek oso argi zuten burdinolak desagerteko bidean zeudela, "Beasaingo fabrikarekin lehiatzea ezinezkoa izango zutelako": 1870ean 42.000 kintal burdina ekoitzi zituen Beasaingo fabrikak eta urte berean 14 burdinolek 7.120 kintal⁹. Beraz, Beasaingo fabrikak, joera sortu ez bazuen ere, aurreko joera bat azkartu egin zuen; eta hori baino gehiago, burdinolen desagerpena ekarri zuen, Gipuzkoa behin betiko industrializatze modernoaren bidean jarriz.

Horrez gain, izan ziren industrializatzea ekarri zuten beste faktore batzuk ere. XVIII. mendean, Gipuzkoan, demografia-hazkundea izan zela kontuan izanik, Gipuzkoako landa-guneetan nolabaiteko "eskulangileen stocka" sortu zen, pixkanaka bigarren sektorerantz (lehenik burdinoletarra baina gero Gipuzkoako lehen fabriketara) joango zena. Horrez gain, XVIII. eta XIX. mendeetan, Gipuzkoako landa-guneetan beste prozesu bat ere izan zen, hain zuzen ere aberastasunaren kontzentrazioarena, batez ere aberastasun higiezinari zegokiona¹⁰. Baserritarrek, askotan zorrek itota, euren ondarea lur-jabe boteretsuenen eskuetan utzi behar izaten zuten. Normalean, lehenbizi euren basoak laga edo saldu egin behar izaten zitzuten, gero lurra bera, eta azkenik etxea, beste lur-jabe boteretsuago baten maizter bihurtuz. Maizterren egoera oso larria izan ohi zen, errenta handiekin jota ibiltzen baitziren; Fernandez de Pinedoren arabera, Goierriko errentak hiruzpalau anega gari eta ehun bat errealtirutu izan ohi ziren¹¹. Goierriko eskualdea sartuta dagoen Tolosako epaitegi-barrutian, mende-aldaketaren garaian, nekazarien %27,94 soilik ziren jabeak eta %72,06 maizterrak ziren¹².

⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 16. or.

⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 14-15. or.

⁸ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, 332-333. or.

⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 21. or.

¹⁰ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, 231-232. or.

¹¹ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, 276. or.

¹² CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Madril, 1987, 122-123. or.

Halaxe, apurka-apurka, baserri-munduan ere, soldatapekotza etorri zen, eta hala, baserritar askorengan, diru-sarreren murriketaz gain, lurrarekiko sentimenduen lotura-gabezia iritsi zen. Egoera hartan, jende askorengan, "kalera" joateko baldintzak ezarri ziren. (Eta horrekin batera, beste ondorio bat lur-jabe handien ahalduntze geroz eta handiagoa izan zen. XX. mendeko hauteskunde-prozesuetan halako jauntxoek eragin handia izaten zuten eta baserritar maizter askorekiko zuten botere-harremana hauteskunde prozesuak baldintzatzeko erabiltzen saiatzen ziren).

Fernandez de Pinedo ikerlariaren arabera, kapitalen kontzentraziorako beste faktore bat, lurren desamortizazioa izan zen. XIX. mendean, hainbat gudek eragindako gastu eta zorren eraginez, eta Spainian ezarri berria zen sistema liberalaren bultzadaz, hainbat Udalek euren lurak saltzeari eta desamortizatzeari ekin zioten¹³.

Horrek guztiak noski, klase berri baten sorrera ekarri zuen, kontuan izanik lur gehienak, edo baserritar aberatsen edota lurrekin edo areago lur horiek erosteko kapitalarekin lan egiten zuen jendearen esku geratu zirela (Euskal Herrian edota Gipuzkoan, ez dirudi lurren erosle nagusia Eliza izan zenik). Jabe-merkatarien klase berri horrek, beste pentsamolde bat izan zuen, hain zuzen ere, inbertsioetan jarduteko pentsamoldearen jabe baitziren. Halaxe, industrializatzea gauzatzeko beste faktore bat sortu zen, inbertsiogileena. Ez da kasualitatea, Beasaingo "fabrika haundiaren" jabeak, kapitala pilatzen zuten bi merkatari izatea, eta gainera beheraka zetozten ola tradizionalen jabeak (Goitia eta Usabiaga) eta lur-jabe bat (Arana) izatea.

Gipuzkoaren barruan Beasain industrializatzeko gune bezala hautatzeko arrazoietako bat, herri honen kokapena izan zen. Izan ere, bidegurutze batean kokaturik, Nafarroatik eta Arabatik (eta Gaztelatik) itsasora eta Estatuen arteko muga ezarrita zegoen Irunera joateko bidegurutze batean zegoen Beasain. Gainera, XVIII. mendean, 1757. urtean zehazki Gipuzkoan 10 azoka zeuden, eta horietako bat, Beasainen, Loinatzen¹⁴. Beraz, Beasain, igarotze handia zuen pasabidea zen. Horrek, trenbide-sarean geltoki bat kokatzeko aukera bikaina eskaini zion. Donostiarako trenbidea 1858an hasi ziren egiten, eta azkenean, 1863ko irailaren 1ean bukatu zen Beasain-Donostia trenbidea, eta 1864ko abuztuaren 2an Beasain-Altsasu trenbidea hasi zen zerbitzua eskaintzen¹⁵. Trena jartzeak ere burdinbideetako langile asko erakarri zituen Beasaina eta inguruetara. Hala ere, trenaren historiako ibilbidea momentu batez etena izan zen 1873an Santa Kruz apaiz karlistaren gerrillarien taldeak tren-geltokia erre zuenean. Bigarren Guda Karlistaren testuinguruan gertatu zen hori. Erreketa horrek kaltea eragin zuen, izan ere, "fabrika haundiak" 1875ean lehen aldiz jarduera eten egin behar izan baitzuen, eta 1873an zituen 230 langileetatik 58 soilik gelditu ziren¹⁶.

Euskal Herriko industrializatzearren inguruko euskal historiografiaren arabera, nahiko adostasun badago gipuzkoar eta bizkaitar prozesuak bereiztean. Joan Pablo Fusi historiagilearen arabera, adibidez, lehen ereduaren ezaugarria ez zen bigarrena bezain bortitza izan, aurreko bizitza-modu eta ohiturekiko eraldaketa pausatuagoa izan zen. Fusiren arabera industrializatzeko gipuzkoar ereduaren ezaugarriak, aipatutako pixkanakako abiaduraz gain, honako hauek dira: enpresak oro har txikiak izatea, geografikoki anitza izatea (1911n 285 "gune industrial" zeuden 45 herritan) hiri jakin batuetan bildu ordez, enpresa txiki eta banatuak izatea (1911n Gipuzkoako industria-lantegien batez besteko langile-kopurua 19 langilekoa zen), hirietan etorkin berrientzako egindako auzoen urbanizazioa aurreko urbanizazioekin bat etortzea harekiko hausturarik sortu gabe, eta azkenik, langileek, hasieran Gipuzkoa bertatik zetoztenak, askotan aldi berean aurreko lana, hots, baserriko lana ere egiten jarraitza¹⁷. Gipuzkoar industrializatz-eeduaren beste ezaugarri bat, nahiko anitza izatearena da, ez soilik industria astunean eta siderometalurgian zentratutakoa, Bizkaian gertatu bezala; Gipuzkoan, zeramikagintzak edota papergintzak ere zeregin handia izan zuten. Bestalde, Gipuzkoan, industriagintza Bilboko eskualdean baino modu lasaiagoan sartu zenez, ez zuen ezabatu erabat aurreko bizitza. Beasaina etorri, Beasain berri bat sortu zuen industriak, baina Beasain zaharrak ere herriko parte izaten jarraitu zuen, lehen baino indar gutxiagoz izan arren¹⁸.

Lehen aipatutako trenen fabrika, une hartan *Sociedad Española de Construcción de Materiales* (SECM) deitutako enpresa bat lotua zegoen. Jada trenen fabrika zen, nahiz eta hasiera batean ez zen modu horretan sortu. Izan ere, 1862an sortu zen, "Fábrica de Hierros de San Martín de Urbieta" izenaz. 1862an, hasieran esan bezala, burdinoletako bi jabeak: Ihurreko olaren

¹³ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Las crisis decimonónicas en Beasain" in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia* (247. eta hurrengo or.). Beasain, 1987.

¹⁴ FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: *Crecimiento económico y transformaciones sociales del País Vasco. 1100-1850*. Siglo XXI. Madril, 1974, 234. or.

¹⁵ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 19. or.

¹⁶ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 59-60. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 23-24. or.

¹⁷ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 180-181. or.

¹⁸ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 180-181. or.

or.



San Martingo jostundegia. Makinan Dolores Ibarbia Urkia jostun-irakaslea eta inguruan neska ikasleak, 1920 inguruau. (Argazkia: Mari Carmen Ibarbiak utzia).

ustiatzaile zen Domingo Goitiak, Igartzako olaren ustiatzaile zen Martin Usabiagak eta Jose Frantzisko Arana kontratistak sortu zuten fabrika hori. Goitia kapitalaren %75aren jabe zen, baina Aranak bere Burugorriñe (Burugorrinea) baserriko lurrik utzi zituen, Oria errekan ertzean, lehen fabrika egin zedin¹⁹.

Lantegian lehenengo unetik, 1862 urtetik jada, labe garai bat izan zuten. Horrela, Gipuzkoako lehen labe garaia, Beasaingo fabrikakoa izan zen. Jakina denez, une hartan, teknikak trauskil samarrak izan zitezkeen, lantegiak bilakaera bat izan arte. Lehen urteetan, beste toki batzuetan ekoitzitako burdina pudelatu eta ijetti (laminatu) soilik egiten zuten San Martin fabrikan. 1865ean bigarren labe garaia jarri ostean hasi ziren burdina bertan ekoizten. Hasiera batean, Legorburuk dioenez, Zegamatik eta Zeraindik ekarritako egur-ikatza erabiltzen zuten lantegian, baina 1883tik aurrera Muskizetik ekarritakoa ere erabili zuten²⁰.

Santa Kruz apaizak geltokia erre (1873) eta fabrikaren ekoizpena eten ondoren, fabrikaren aldaketa erabatekoa izan zen. Lehenbizi, jada Bizkaian erabiltzen zen Bessemer motako bihurgailua ekarri zuten Beasaina, eta egur-ikatza, pixkanaka, koke ikatzaz ordeztu zuten. Enpresa berrabiarazterakoan egin zen beste aldaketa bat, Frantzisko Goitiak jokatu zuen paper handia izan zen, bera kokatu baitzen jabe nagusi gisa (eta aldi berean, Beasaingo politikagintzan izan zuen papera ere handitu egin zen, elite tradizionalen disgusturako). Izan ere, foruak galtzearen ondoren, Aldundiak, presio fiskal txikiaren politika praktikatu zuen eta, horrela, inbertsioak erakartzea ahalbideratu zuen. Frantzisko Goitia, Domingo Goitia fundatzailearen semea zen eta

¹⁹ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain" in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak), 85-97. or., Donostia, 1988; eta LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 20. or.

²⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 20. or.; eta LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goierri: La Fábrica de Hierros de Beasain" in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak). Donostia, 1988, 90-91. or.

Ingalaterrara joan zen hango teknika modernoak ikastera, gero Beasaina ekartzeko²¹. Adibidez, Beasaingo fabrika izan zen Estatuan latorria (*hojalata*) lantzen hasi zen lehen fabrika (1882)²². Beasaingo fabrikak izan zuen fama hainbeste handitu zen, ezen fabrika horretako teknikari-koadro batzuk Sestaora joan zirela han Iberia lantegia hasten laguntzeko²³.

Esan bezala, beste berrikuntza bat Goitia familiaren erabateko nagusitasuna izan zen. 1883an, Jose Frantzisko Arana negoziotik erretiratu ostean, goitiatarrek enpresaren kontrola lortu zuten. Frantzisko Goitiak fabrikari izena ere aldatu egin zion, "Goitia y Compañía" izena jarri (1884)²⁴.

Enpresak emandako jauziaren beste adierazgarri bat, energia lortzeko presak eraikitzearena izan zen. Hala, lehenengo presa, Oria ibaian bertan egin zuten eta 4,40 m-ko garaiera zuen. Presak egitearekin bat, turbinen areto bat ere egin zuten enpresaren barruan, energiaren eraldaketa lortzeko; turbinen aretoan, 1901ean, 120 ZPk (zaldi-potentziako) galdara bat (Galway estilokoa) eta 100 ZPk lurrin-makina bat ere jarri zituzten²⁵. Hurrengo presa, jada enpresaren fase berri batean, egin zuten, 1902an, enpresa SECM deitzen zen garaian. Presa hori Zaldibian eraiki zen, izen bereko enpresaren gainean, Aiestaran auzoan eta Osinberdeko urak hartzen zituen. Hala ere, presa horrek urtaroen arabera ur-emari desberdinak zituela ikusita, 1910ean handitu egin zuten, "Osinberdeko Zentral Txikia" izenekoa eratzu. Une hartan, bi presen artean 2.000 ZPk potentzia zuten; enpresak urte hartan turbo-alternadore berria erosi zuen²⁶.

Fabrikaren hurrengo aldaketa 1892an egin zen, Goitiak beste inbertsiogile batzuk erakartzea lortu ezina izan zuenean. Enpresari berriro ere izena aldatu zioten eta "Maquinista Guipuzcoana" izena jarri. Izen-aldekak argi erakusten du trenekin lotutako materiala egiteko borondatea, baina hala ere marka horrekin, batez ere trenbideak egin zituzten. Enpresa berriaren egoitza soziala Donostian izan zen, eta 1892ko apirilaren 16an sortu zen. Enpresa horrek 1.307.000 pezetako kapital soziala izan zuen²⁷, 1.000 pezetako 1.307 akzioan banatuta, eta Goitia familiak kontrolatu zuen akzioen gehiengoa: %40,1 Frantzisko Goitiak berak eta %9,5 bere arrebak. Beste inbertsiogile garrantzitsu batzuk ere sartu ziren, adibidez Lazkaoko jauna zen Valmedianoko markesa, Donostiako Matxinbarrena familia, edo hiri horretako Benito Jamar Domenech errepublikano ezaguna, baina batez ere, gerora paper garrantzitsua jokatuko zuen Luis Urkixo, Urkixoko markesa (honek ere akzioen %9,5 izan zituen)²⁸. Une hartan enpresak 200 bat langile zituen.

Enpresa berria, Spainiako Gobernuaren politika babeslea zela eta, hazi egin zen. Izen ere, enpresa hura, eta baita Spainiako kapitalismo osoa ere, Estatuaren ekimenarekiko nahiko mendekoa izan baitzen. Estatuak emandako kontratuak lortu zituzten lehen enpresa industrializatzaileek. Ikuksik dugun bezala, CAF ez zen fenomeno horrekiko salbuespen izan, batez ere XX. mendeko 1920.eko hamarkadan. *Maquinista Guipuzcoana* sortu zen urtean (1892an), kanpoko produktuentzako %100eko muga-zerga jarri zuen Spainiako Gobernuak. Luis Castellsek aipatua duenez, zera esan zuen Joaquin Arangoiti Trenbideetako Kredituaren Kontseiluaren ordezkari gisa enpresako kide zenak: "Maquinista Guipuzcoana muga-zerga babeslearen onuraren itzalean jaiotako enpresa da"²⁹.

1890eko hamarkada hori, 1880koa bezalaxe, enpresarentzat hamarkada ona izan zen. Garai hartan, Spainian trenbideen parkea handitz joan zen, eta enpresa horrek bezero berriak lortu zituen Spainiako trenbideetan, adibidez, Madril-Zaragoza-Alacant (MZA) lerroan edota hainbat meatzetako trenbideetan³⁰. Gipuzkoako hainbat herrian zubiak ere egin zituen MG

²¹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 23-24. or.

²² LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 22. or.

²³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 26. or.; eta AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 68. or.

²⁴ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: "Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goiherri: La Fábrica de Hierros de Beasain" in II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria (aktak). Donostia, 1988, 90. eta hurrengo or.

²⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 24-25. or.

²⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 38-40. or.

²⁷ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 26-27. or.

²⁸ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia, 91. or.

²⁹ CASTELLS, Luis: Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915. Madril, 1987, 36-37. or.; eta LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia, 91. or.

³⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 32-34. or.

or.

enpresak³¹. Garai hartan enpresaren prestigioa handituz joan zen eta horren lekuko izan ziren 1897an Donostian Arte Ederretako Erakusketa urrezko domina irabaztea eta hurrengo urtean, 1898an, Madrilen, Industria Nazionalaren Erakusketa, Ohorezko Diploma jasotzea³².

Hala ere, 1898an Espainiak Amerikako azken koloniak galdu zituenetan gero, beste testuinguru bat ezarri zen Espainiako Estatuko enpresengan, batez ere, ordura arte barne-merkatua izandakoaren parte garrantzitsu bat galdu zutelako (gogoratu lehen esan duguna, hau da, Espainiako Estatuan industrializazioa bultzatu zuten enpresek lotura handia zutela Estatuarekin eta Estatuak interbentzio handia izan zuela industrializatzeko prozesuan). Merkatu-galera hori Beasainen ere nabaritu zen, eta langileen galera bat ekartzeaz gain, MGk kapitalaren hedapen bat abian jarri behar izan zuen, 500 akzio milioi-erdi pezetan akziotan ateraz. Beraz, aurrekoa kontuan hartuta, guztira, 1.807.000 pezeta izan ziren 1.807 akziotan. Akzio horietatik gehienak (128) Urkixo markesak erosi zituen, berriz ere mugarririk ezarriaz “fabrika haundiaren” historian: bigarren mailako bazkide izatetik, lehen mailako akziodun izatera igaro zen Urkixo. Hala ere, MG enpresak, Beasaingo lantegiaren arrakasta ikusita, enpresaren bulegoak eta egoitza soziala berriz Beasaina ekartzea erabaki zuen³³.

Hain zuzen ere, une horretan egin zen lantegian lehen greba, bere antolaketaz eta arrazolez asko ez badakigu ere³⁴. Ikuisko dugun bezala, halako mugimenduak Beasainen nahiko ahulak izan ziren Lehen Mundu Gudako testuingurua iritsi arte. 1907an egin zen beste bat; Zurbano Meleroen arabera, Arrasateko greba batekin harremana izan zuela ere esan izan da³⁵. Beste egile batetik, Felix Luengok, urte horietan Beasaingo lantegiko buruak “hemen ez dago grebarik, langilea otzana eta asea da” esana zuela aipatzen du³⁶. Horren adierazle dugu antolamendu politikoen sortze (jarraikor) berantiarra.

Modu horretan sartu zen Beasaingo industria XX. mendean. Urte horretan, 1901ean, Beasaingo MG enpresarekin batera, bazen halaber Arana familiaren kimika-enpresa ere. Aurretik beste bat zuten muntatua Etxarri-Aranatzen. Baina 1901erako behintzat, Beasainen, Jose Frantzisko Aranaren jabetzako “Fábrica de Productos Químicos y Destilación de la Madera (Produktu Kimikoen eta Egur Destilazioaren Fabrika)” bazegoen. Egur-ikatza, alkaterna, galipota eta antzekoak lantzen zituen fabrika horrek. 1907an 23 langile zituen, baina 1909ko martxoan erre egin zen sute bat izanda³⁷.

Siderurgia-arloan ere aipatu beharra dago, XX. mende-hasiera horretan, CAF ez zela enpresa bakarra izan. Errepublika garaian Beasaingo alkate sozialista izango zen Viktor Bernedok bere enpresa siderurgikoa zuen, “Bernedo, Echeverría y Elorza” izenekoa. Jose Zufiaurren arabera, enpresa hori, 1913ean sortu zen, orduan etorri zen Bernedo Elgoibartik (hangoa zen) Beasaina bizitzera³⁸. Baina hiru bazkide izan arren, Bernedo izan zen enpresan protagonismo handiena izan zuena. Enpresa horrek “fabrika haundiaren” bazuen puntu komun bat, berritzalea izatea. Hura, Gipuzkoako lehen labe garaia jartzen eta latorria fabrikatzen Espainiako Estatuan lehen enpresa izan zen moduan, Bernedoren giltza finkoak zein horztun giltza mugikorrak egiten lehenengo enpresa izan zen Espainiako Estatuan³⁹.

Aranatarrek, beren aldetik, kimika sektorera jo zuten erabat. 1908an Kale Berrian (gaur egungo Iturriotz eta Arana kaleak) “Fábrica de Tintas Euskalduna” (“Euskalduna Tinta-Fabrika”) sortu zuen Joxe Martin Aranak, geroago Beasaingo alkate izango zenak. Joxe Martin, Frantziatik etorri zen Emilio Hunolt ingenieriarekin bazkide egin zen (senidetu ere egingo ziren gero, Emilio Hunolt, Aranaren alabarekin ezkondu baitzen). Arana 1921an hil zen fabrika seme-alabei pasatuta, baina 1931n itxi egin behar izan zuten fabrika hori, ekonomian izan zen krisialdi gogorraren testuinguruan. Antza denez, Arana bera inprenta bat zabaltzen saiatu zen, baina azkenean Zuntzunegi eta Aranburu bazkideak izan ziren hori lortu zutenak, 1920an, Kale Nagusiko

³¹ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: “Transición de la sociedad preindustrial a una sociedad industrializada en el Goiherri: La Fábrica de Hierros de Beasain” in *II Congreso Mundial Vasco-Congreso de Historia de Euskal Herria* (aktak). Donostia, 1988, 95. or.

³² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 26. or.; eta AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 28. or.

³³ LEGORBURU FAUS, Elena: “Fabrika haundie”. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 29-30. or.

³⁴ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993, 13-17. or.

³⁵ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 118. or.

³⁶ LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbao, 1990, 321. or.

³⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 40-41. or.

³⁸ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.

³⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 39. or.



Euskalduna tinta-fabrika, Bideluze kalearen bukaeran. (Argazkia: FL/MG, 39. or.)



Euskalduna fabrika, jada Hunolten izena hartuta, 1910eko hamarkadan. (Argazkia: FL/MG, 48. or.)

15. zenbakian⁴⁰. Aranatarrak, kimikaz gain, egurraren sektorean ere sartu ziren eta Joxe Martinen semeek, Serafin eta Pedro Aranak (ikusiko dugun bezala, 1931n Serafin Arana zinegotzi aukeratua izan zen, errepublikano gisa), "Fábrica de Mimbres, Junco y Médula" deitutako konpainia sortu zuten 1922an, Kale Nagusiko 12. eta 14. zenbakietan. Zurarekin lan egin zuten beste langile batzuk, Jose Gabriel Zurbano Meleroen arabera, altzarigintzako enpresa bat sortu zuten 1930ean: "Fábrica de Muebles Esquisabel y C^a". Sortzaileak hauek izan ziren: Pedro Eskisabel, Joan Eskisabel, Pedro Irastortza eta Jose Ignazio Oiarbide. Azkenik, arbelgintza-sektorea Beasainen ere (Arriaranen) presente zegoela aipatzen du Zurbanok, baina ez zela Itsasondokoabezan indartsua⁴¹.

Baina zalantzarik gabe, Beasain industrializatzeko modernoan sartu zuen enpresa "fabrika haundie" izan zen; eta ez soilik bere tamainagatik (aldaketa demografikoa ere ekarri baitzuen) edota herria Gipuzkoako edota Euskal Herriko kapitalisten inbertsio-

⁴⁰ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 42-43. or.

⁴¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43-44. or.

or.

sareekin bat egitera eraman zuelako; baizik eta herriaren itxuraren eta hein handi batean izaeraren aldaketa ekarri zuelako eta Beasain industriaren bidean bete-betean sartu zuelako, hain zuzen ere XX. mende-hasieran bertan. Hori azaltzeko, orduko *Maquinista Guipuzcoana* enpresa, *Sociedad Española de Construcción de Materiales* bihurtzeko egindako prozesuaz hitz egin behar dugu.

1901ean, Bilbon, *Sociedad Española de Construcción de Materiales* izeneko enpresa sortu zen. Enpresa horrek 12 milioi eta erdi pezetako kapital soziala zuen (25.000 akzio, bakoitza 500 pezetakoa)⁴² eta laster, 1902an⁴³, MG enpresa erosi zuen, Beasaingo fabrika bere eginez (Beasaingo fabrikari "Fábrica de Vagones de Beasain" izena jarri zion, izan ere, enpresa-talde hura ez zen soilik Beasaingo fabrikara mugatzen, eta lantegi eta akzio gehiago ere bazituen). Beasaingo fabrikaren (FVBren) zuzendari berria Jose Orueta izan zen, Bizkaian jaio eta Gipuzkoan bizi izan zena eta garai hartako liberal ezaguna. Hark ordezkatu zuen Goitia⁴⁴ (hala ere kontuan izan behar da, ikusiko dugun bezala, SECMek MG erosi eta berehala, lantegiaren berrikuntza osoa hasi zuela, eta FVB moduan ez zela 1905era arte lanean hasi). Enpresaren buru berria Luis Ussia Aldama, Ussiako markesa izan zen, eta lehendakariordea Eduardo Tutor Aznar. Bai Urkixo eta baita Goitia ere, bokal moduan jarri zituzten⁴⁵. Kontuan izan behar dugu, garai hartan Gipuzkoa osoan industrializazioa aurrera zohoala, eta adibidez, 1901ean bertan Papelera Española enpresa sortu zela Tolosan, eta 1906an Arrasaten *Unión Cerrajera* enpresa⁴⁶.

1901erako, enpresak Beasainen 70.000 metro karratutan zehar barriatuta tailer hauek zituen: fundizio edo galdaketa-tailer bat, altzairu-galdategi bat, galdarategia, ijiezko (laminatzeko) tailerra, forja-tailerra, doitze-tailerra (hemen tornuak zeuden, eta doitze-lana zein muntaketa-lana egiten ziren) eta marrazketa-bulegoa. Horiez gain, tailer ezberdinak komunikatzeko Decauville sistemako trenbidetxo bat ere bazuen fabrika barruan; eta horrez gain, turbinen sala (presaren energia aprobetatzeko), biltegia, bulegoak eta teknikariantzako etxebizitzak; denerako bi sarrera zituen eta trenbidetxoarentzako beste sarrera batek ematen zion pasabidea⁴⁷.

Langileen osaketa (lehen teknikari kanpotarrak Goitiak XIX. mendeko 1880.eko hamarkadan ekarri zituen Inglaterratik), batez ere gipuzkoarra zen XIX. mendean zehar (hala ere, ikusiko dugun bezala, Gipuzkoan bertan, inmigrazio-tasa oso handiak izan zituen Beasainek), baina XX. mendean, Arabatik, Nafarroatik zein Gaztelatik etorritako jende asko sartu zen fabrika horretan, bereziki Lehen Mundu Gudaren bukaeran gertatu zen zabalkuntzaren ondoren (Julio Lazurtekik, 1911n eginiko ikerketa baten arabera, hori baiezttatu zuen)⁴⁸. 1905eko datuak ditugu, Legorburu Faus idazleak utzitakoak: urte horretan langileen %58 euskal herritarra ziren, eta %39 espainiarra. Hala ere, teknikarien artean ez zen halakorik gertatzen eta maila horretako %23 soilik ziren euskaldunak, espainiarak eta beste herrialdeetakoak %38na ziren bitartean. Lehen Mundu Gudako goraldiaren ostean, beste etorkin-uhonde bat etorri zen Beasaina: Jose Manuel Ibarbia enpresa horretako langile izan zenak "Valladolidek batez ere, langile asko etorri zen" gogoratu zuen Jose Antonio Egidok egindako ikerketan⁴⁹. Baina gero, populazioari buruz hitz egiterakoan, ikusiko dugun bezala, nahiz eta Lehen Mundu Gudaren osteko inmigrazioa handia izan, 1936ko Guda aurreko garaian ere, Gipuzkoarekin alderatuz, Beasainek zuen inmigrazio-tasa, Gipuzkoako handienetakoa izan zen.

XX. mende-hasieran, enpresak bere instalazioak erabat aldatzeari ekin zion, instalazio guztiak berrituz. Lehen aipatu dugun bezala, presa berri bat egin zuen Zaldibian, baina horrez gain, lur berriak erosi zituen, Ordizian eta Lazkaon ere lurrik eskuratz. Eta aipatu izan dugun moduan, erabaki hau bidegurutzean hartutako erabakia izan zen: hemendik aurrera Beasainek, herria erabat industriara bideratua egoteko erabakia hartu zuen eta Elena Legorburuk zioen bezala, "lehen eta bigarren sektoreen artean aukeratu behar izan zuen Beasainek, eta bigarren sektorea aukeratu zuen"⁵⁰. Adolfo Llanos bitartekariaren bidez erosi zituen lur horiek, 1902 eta 1904 artean. Eta hedatze fisiko-geografikoarekin bat, berritze teknikoa ere etorri zen, eraikin guztiak

⁴² LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 34-35. or.

⁴³ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 36-37. or.

⁴⁴ CASTELLS, Luis: Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915. Madril, 1987, 298. eta 426. or.

⁴⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 34-35. or.


⁴⁶ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923). Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 220-221. or.

⁴⁷ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 32. or.

⁴⁸ Ikerketa honi eginiko erreferentzia iturri honetan ikusi dut: EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 17. or.

⁴⁹ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 18. or.

⁵⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 39-40. or.



SECIM berria 1904an, partzialki funtzionatzen hasi zenean. (Argazkia: FL/MG, 30. or.)

berritu egin baitziren. 1902ko otsailaren 12an ekoizpena eten egin zen eta ekainaren 23an hasi fabrika berria egiten. 1904rako, instalazio zahar guztiek eraitsita zeuden; teknikarien etxebizitzak, trenbidetxoak, Oriako presa eta presatik bideratutako uraren bidez lortu behar zen energia elektrikoaren sortze-aretoa izan ezik. 1905erako fabrika berria egin zen, "Fábrica de Vagones de Beasain" izenekoa (izen horren azpian, fabrika bezainbat, errealtitate juridiko bat ere bazegoen, enpresa-konglomeratuaren beste pieza bat zen, ez soilik lantegi fisikoa. Hori ikusiko dugu CAF enpresa bezala sortzeko egindako maniobretan).

Instalazio berriak 1905erako guztiz prest zeuden, eta jada 1905eko otsailaren 1ean lehen entrega betetzeko gai izan ziren. Instalazio berri horien artean, biltegi bat, sutegi bat, lehengo trenbidetxoa, instalazio elektrikoaren aretoa, bi presak, eta zapi tailer zeuden: galdategia (fundizioa), tailer mekanikoa, pintaketa-tailerra, aroztegia, eredu-tailerra (modelo-tailerra), gurpildegia eta orotariko tailerra⁵¹. Gero ikusiko dugun bezala, Beasainen langileentzako etxe berriak ere egin ziren. Hala ere, instalazio berriek ezin izan zuten ekidin 1905eko balantzea negatiboa izatea. Nolanahi ere, fabrika berria, azkenean bagoiak egiten hasi zen.

Fabrika berrian langilegoa murritzagoa zen: 469 langilek egiten zuten lan 1905ean. 1902ko zifrak 1908an gainditu ziren eta 869 langile izatera iritsi ziren (horietatik 22, 16 urtetik beherakoak, eta 22 horietatik 4, 14 urtetik beherakoak)⁵². Hala ere, instalazio eta teknika modernoagoekin (Martin-Siemens labeak), bagoiak geroz eta azkarrago egiten hasi ziren: 1908an 1.120 bagoi egin zituzten, eta 1914an 3.200 (guda aurretik). Langile-kopuruak ere gora egin zuen, 1913an mila baino gehiago ziren: 1.200⁵³. 1909an bi gurpil muntatudun ardatzak egiten hasi ziren, eta 1910an, bogieak edo orgak⁵⁴.

1906ko martxoaren 20ko Baseen Legearekin muga-zergak gogortu egin ziren, eta instalazio berrien bulkadarekin, hamarkada oso oparoa zabaldu zen enpresarentzat (Lehen Mundu Gudak ere horretan lagundu zuen). Hala ere, Legorburu Faus ikerlariaren arabera, fabrikaren gaitasuna, ekoizten zena baino askoz ere handiagoa zen: urtean 3.000 bagoi egiteko gaitasuna zuen; baina, Espainiako merkatuaren eskari-falta zela-eta, ezin izan zen halako kopuruetara iritsi (marka 1913an lortu zuen, 2.650 bagoi eta 152 bidaiai-bagoi salduta). Legorbururen arabera, 1917an (CAF elkartea gisa juridikoki sortu zen urtean), azpierabilpena %50koa izan zen⁵⁵.

⁵¹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 37-39. or.

⁵² LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones kultura-batzordea. Beasain, 1996, 41. or.

⁵³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 33. or.

⁵⁴ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 42-43. or.

⁵⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 46-48. eta 57. or.

or.

Lehen Mundu Gudak koiuntura onean jarri zuen Beasaingo fabrika, eta oro har Euskal Herriko ekonomia osoa. Izen ere, 1914rako Jose Oruetak krisia aurreikusi omen zuen eskari-falta zela-eta⁵⁶. Horrek Frantziako merkatuaren ateak zabaldz zizkion, eta baita kritika batzuek ere “Espainian ez saltzeagatik”⁵⁷. Hala ere, oso urte onak izan ziren FVBrentzat, eta 1915ean, adibidez, 3.000 bagoi eta 200 bidaiai-bagoi egin zituen 14 milioi pezeta fakturatuta. 1918an 1.320 langile eta 120 enplegatu bazituen CAFek⁵⁸, eta 1920an 1.800 pertsona⁵⁹. Kontuan izan behar dugu, Lehen Mundu Guda hasi aurretik ere (1911) Beasaingo fabrika izan zela Gipuzkoako handiena alde handiz, 1.200 langilerekin eta horren ondoan Arrasateko *Unión Cerrajerak*, soilik 700 langile zituela. Garai hartako Gipuzkoan, batez bestekoa 19 langilekoa zen fabrika bakoitzeko⁶⁰.

Lehen Mundu Gudan izandako gorakada horrek izan zuen bere ifrentzua ere: sinatutako kontratu asko ez zituztela bete. Izen ere, sinatutako kontratu askok, bete ezean (gogoratu Frantzia guda betean zegoela eta bere ekonomia guda-makineria horri baldintzatuta zegoela), kalte-ordin handiak aurreikusiak zituzten, eta hala gertatu zen, Frantziako gobernuaren eskusartzearen aukera benetakoa izatera iritsi zenean. Ikusiko dugun bezala, horrek beste bira bat eginarazi zion enpresaren politikari. Enpresak beste maniobra bat egin behar izan zuen: 1917ko martxoaren 4an *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles* (CAF) enpresa sortu zen, Luis Urkixo lehendakari zela (eta bere banketxearen, Banco Urquijoren, laguntzaz). Lehendakariodea Valentín Ruiz Senen zen, eta idazkaria, Santiago Innerarity⁶¹. Hasiera batean, hirurak akziodun nagusiak ziren arren (gutxi gorabehera akzio-kopuru berdinarekin), laster 4.000 akzio jarri zituzten salmentan, batez ere frantziar kapitalisten sarrera ahalbideratzeko. Urquijo Banketxeak akzio asko erosi zituen eta 1918rako akziodun nagusia zen 2.000 akzio baino gehiagorekin, baina zifra horretara hurbiltzen ziren bi enpresari frantses, Porier eta Dusaix ere, eta haien enpresaren gaineko nagusitasun frantsesa bermatu zuten. Baina 1922rako egoera aldatu egin zen: une hartan Firminy frantziar enpresa zen akziodun nagusia, Urkixoren taldearen gainetik, beraz enpresaren lehendakaritza zegokien (Urkixoren enpresak aurreko FVBren kontrola izan zuenean eduki zuen hainbesteko garrantzia)⁶².

Enpresa horrek berehala erosi zuen SECM 1918an, 9 milioi pezeta %6ko interesarekin mallegatzu⁶³, eta beraz, FVB alokairuan hartuz⁶⁴. Hala ere, 1921ean, FVB juridikoki SECMerengandik banandu egin zen. Maniobra hau oso garrantzitsua izan zen, ezen, FVB bere izaeraz (eta ez SECMeren bitarte) CAFen sartzeak, Luis Urkixori maniobra-tarte handiagoa eman baitzion. 1922ko muga-zerga berri batek aukera handiak eman zizkion Urkixori bere projektua, lantegia berriz bere eskuetan izatea, lortzeko; muga-zerga horren helburuetako bat enpresen “españartza” baitzen. 1925ean Urquijo Bankuak CAFen enpresa guztiak erosi zizkien frantziar inbertsiogileei, eta berriz ere zuzendaritza-batzan aldaketa izan zen berriro ere Luis Urkixo lehendakari postuan jarriz. Postu horretan egon zen 1956an hil zen arte⁶⁵.

Elena Legorbururen arabera, 1925ean, CAFek FVBren kontrol zuzena bereganatu ostean, fabrikak 241.988 metro karratutako azalera zuen: 99.264 Beasainen, 34.694 Ordizian eta 108.020 Lazkaon. Bulegoez, atezaindegiaz, teknikarientzako etxebizitzez, trenbidetxoaz, presez eta biltegiaz gain, sei tailer zituen: forjatzeko, makineriarena, muntaketarena, aroztegia, gurpildegia eta galdeategia (fundizioa). Horrez gain, energia elektrikoa sortu eta banatzeko elektrizitate-hornikuntza zentroa ere bazuen⁶⁶.

Lehen Mundu Gudaren osteko garai horiek, ikusiko dugun bezala, greba-garaiaiak izan ziren. Grebak deitzeko arrazoirik nagusiena, aberastasun-banaketaren faltatik zetorren bizitzaren garestitzea izan zen. Izen ere, oparoaldi horretan, langileen soldatak gutxi igo ziren irabaziek (eta dendetan elikaduraren prezioek) gora egiten zuten bitartean. Horren adierazgarri nahiko

⁵⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 48. or.

⁵⁷ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: *Beasain. Udalerri gipuzkoar baten historia*, 92 or. eta LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990, 127-128. or.

⁵⁸ LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Bilbo, 1990, 128. or.

⁵⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 51-52. or.

⁶⁰ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 180-181. or.

⁶¹ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 52-53. or.

⁶² LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 54-56. or.

⁶³ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 54. or.

⁶⁴ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 16. or.

⁶⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 72-73. or.

⁶⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo *Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia*. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 74-75. or.



CAF enpresako akziodunak eta Beasaingo orduko alkate Jose Guridi Balantzategi, CAFeko frantziar akziodunen partea erosi zutela ospatzen, 1925ean.
(Argazkia: JZF, 86. or.)

argia izan zen lantegi horretako langilegoaren murrizketa: 1.791 langiletatik 1.155era jaitsi zen. 1918an 1.200 langile eta 120 enplegatu bazeuden ere, 1923an langilegoaren beste murrizketa bat egin zen⁶⁷.

1920ko hamarkadan, 1922ko Estatuko muga-zerga babesleak babesturik, CAFek merkatu berriak bilatzeari ekin zion zion zaharrak (bagoien eta bidaiai-bagoien eraikuntza) utzi gabe: trenbideak elektrifikatzeari alegia. 1922an beste berrikuntza bat egin zuen fabrikak: zoruaren aldaketa; fabrikan egurrezko zorua jarri zuten, aurreko zementuzkoaren ordez. Hala ere, berrikuntza horiek ez zuten ekidin, CAF artean azpierabilpen-egoeran egotea: 1924an adibidez, 30.000 tona ekoitzi zitzakeen lantegi horrek baina 20.044 tona ekoitzi zituen. Legorburu Fausen arabera, energia-arazoa zen gehienbat, izan ere, udan erreken ur-emaria jaisterakoan CAFen presek ez baitzuten behar adina energia sortzen. Hori dela-eta, 1924an beste presa bat eraikitzea erabaki zuten, baina Gipuzkoan tokirik ez zegoela eta baimenik lortu ez zutenez, Ebro errekkako presa bat erosi behar izan zuten, lantegiaren hirugarrena⁶⁸.

Beste alde batetik, Primo de Riveraren Diktadura-garaian oso urte oparoak izan ziren CAFentzat. Diktadura horrek, hein batean aurreko Berrezarkuntzaren erregimena hautsi gabe “leheneratu” nahi zuten klase nagusienetako sektoreek babestua zenak, bere helburuen artean ekonomia modernizatzea zuen, eta horren barruan, Estatuak are interbentzio-paper handiagoa jokatzea aurreikusten zen (eta aldi berean, langile-mobilizazioak bukatzea). Kasu honetan, CAFen eskaera-zorroa handitu egin zen, baina baita Estatuarekiko mendekotasuna ere. Estatuak aurrekontu-defizitarekin subentzionaturik, kontratu onak ematen zieten enpresei, adibidez, trenbideen sektoreari (sektore estrategikoetako enpresei emandako kontratueta urteko aurrekontuaren %20 bideratzen zen). 1928an eta 1929an Estatuak ere gastu publiko handia bideratu zuen halako enpresa, zor-bonuak eta guzti jaulkiz. Azkeneko urtean, 10 urterako ohiz kanpoko aurrekontu berezi bat onartu zuen, baina ez zuen betetzerik izan, ekonomia-krisiaren ostean, erregimen berriak, II. Errepublikak, gastuari eusteko politika egin zuelako⁶⁹. Fabrikak

⁶⁷ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 60. or.

⁶⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 61-64. or.

⁶⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: “*Fabrika haundie*”. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 107-108. or.

or.

bere aldetik aldeko testuinguru hori berrikuntza berriak egiteko baliatu zuen: 1928an gurpil-uztaiak edo bandajeak ekoizteko erabakia hartu zuen (1932an prest zegoen jada berrikuntza hori), eta urtebete lehenago, berriz, Espainiako Estatuan artean inork ere egiten ez zituen pieza bakarreko gurpilak (monobloc gurpilak) egiteko (1930an hasi ziren halako gurpilak egiten). 1928an Heroult markako galdategiko labe elektriko bat erosi zuen CAFek⁷⁰.

1.2 Beasaingo demografia eta hirigintza

Esan bezala, Beasainen populazioaren goraldia handia izan zen XX. mende-hasieran, eta argi dagoenez, industrializazioak bultzatu zuen hori. Kasu horretan Beasainen izandako prozesua ez zen Gipuzkoako beste herrietan izan zenarekiko ezberdina gertatu. Gipuzkoa herrialde hartzalea izan zen, eta horrez gain, Gipuzkoa barruan, herri txikietatik herri handietarako (hau da, industria zutenetarako) migracio-prozesua ere izan zen. Hala, Gipuzkoa, Bizkairekin batera, XX. mendearren hasierako lehen heren honetan, Espainiako Estatuan populazio-hazkunde handiena izan zuen lurraldea izan zen⁷¹.

Beasainen, populazio-hazkunde XX. mendearren lehen herenean gertatu zen batez ere. Izen ere, XIX. mendean Beasainen hazkunde nahiko txikia izan zen, batez ere barneko faktore begetatiboak zirela-eta (1857an 1.100 biztanle zituen, 1900ean 1.940 eta 1910ean, Zurbano Melero egilearen arabera, 2.937). Beraz, 1857 eta 1910 arteko hazkunde %122koa izan zen, eta 1910 eta 1936 artekoa %94 (horrek esan nahi du ia bikoiztu egin zela tarte horretan)⁷². Baino, mende-aldaketarekin batera, faktoreak ere aldatu egin ziren (gogoratu 1902an fabrika instalazioak berritzen hasi zela, lehenik eraikuntzarako eta gero bertan lan egiteko langile asko ekarriz). Hala ere, XX. mendearren lehen tarte hartzen badugu, hau da, 1900etik 1930era, Joxe Manuel Azurmendi Dorronsororen zenbakiak erabiliz, lehen datan 1.920 biztanle zituen Beasainek eta bigarrenean 5.240⁷³. Beraz, tarte horretan, %172ko hazkunde izan zuen. Erreferentzia gisa, 1914ko Guda hartzen badugu, Zurbano Meleroren datuak ikusirik⁷⁴, 1900ean Beasainek 2.047 biztanle zituen, eta 1918an 3.780. Beraz garai horretan, %84ko hazkunde izan zuen Beasainek; eta are gehiago zehazten badugu, 1914ko Gudaren inguruan, 1910ean (egile beraren zenbakiak erabilita), 2.947ko biztanleria zuen Beasainek, beraz, 1910-18 tartean %28,2eko hazkunde izan zuen herriak (1918an gripez 60 bat pertsona hil ziren eta horrek hazkunde moteldu egin zuen). Argi ikusten da, beraz, 1914ko Gudaren papera zein izan zen. Guda horren ondoko aldeko testuinguru ekonomikoa ikusita, Zurbano Meleroren arabera, 1918an 3.780ko biztanleria zegoen, 1.924an 4.080koa eta 1930ean 5.260koa. Beraz, 1914ko Guda osteko populazio-hazkunde, batez ere 1920ko hamarkadaren bigarren bosturtekoan gertatu zen: %29koa hain zuzen ere. Hala ere, kontuan hartu behar dugu, 1927an Arriaran eta 1929ean Astigarreta Beasainen sartu zirela.

Izen ere, esan bezala, ordura arteko inmigrazioa txikia izan zen eta gehienetan ondoko herrietatik industrializatze-bidean zeuden herrietara bideratua, eta ez hainbeste kanpotik etorritako; datu bat jartzeko 1860tik (gogoratu fabrika 1862an jarri zela Beasainen, eta geltokia 1863an inauguratu zela), 1910 arte, Gipuzkoako 39 herritako populazioak hazi egin ziren eta 51 herritakoak jaitsi, hots, inguruko herrietatik industrializatze-bidean zeuden herrietarakoa⁷⁵. Baino 1900etik aurrera, faktore hori aldatu egin zen, eta herri handiak demografia-arloan are gehiago urrundu ziren herri txikietatik. Hala ere, horrek ez du esan nahi kanpotik etorritako jenderik ez zenik, eta Zurbano Meleroren arabera, jada 1910ean (hazkundearren bigarren uholdea etorri aurretik) Beasainen bizi ziren pertsonen %60 ziren Gipuzkoan jaioak (tartean, soiliik %27 herrian bertan jaioak, beste %33 Gipuzkoako beste herrian jaioak izanik), eta %20,64 beste euskal lurralteetan jaioak (horien erdiak Araban jaioak). Ia %17 genuen orduan Spainian jaioa. Tradizionalki inmigrazio handia jaso izan duen beste herri gipuzkoar batekin, Errerteriarekin alderatuz gero, orduan, azken honen biztanleen %77 Gipuzkoan jaioak ziren, eta ia %90 Euskal Herrian. Beraz, hor ikusten da zein zen Beasainen erakarpen-maila⁷⁶.

⁷⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 109-111. or. Hamarkada luzeetan zehar, bai gurpil-uztaiak edo bandajeak eta baita monobloc gurpilak ere ekoitzi zituen CAFek, harik-eta 1965 eta 1975 artean monobloc gurpilek uztai edo bandajedunak ordeztu zituzten arte.

⁷¹ HERNANDEZ MARCO, J. L. eta PIQUERO ZARAUZ, Santiago: "Demografía e industrialización en el País Vasco" in FERNANDEZ DE PINEDO eta HERNANDEZ, J.L.: *La industrialización del norte de España*. 206-221. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 49-51. or.

⁷² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 51. or.

⁷³ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostia Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 28. or.

⁷⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 51. or. Egile honek 1918ko biztanle-kopurua ere ematen digu.

⁷⁵ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostia Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 27. or.

⁷⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 71-72. or.

Beraz, ondorio gisa, Beasain Goierrin nabarmentzea eta bere zentralitatea indartzea ekarri zuen. Ander Gurrutxagak egindako ikerketa baten arabera, 1900ean Beasaingo biztanleria Goierrikoaren %9,3 zen, 1910an %12,65, 1920an %14,39 eta 1930ean %16,98⁷⁷. Hala ere, horrek ez zuen aldatu Goierri osoko populazioa oro har nekazaria eta ez kaletarra izatearen errealitatea, baina orduko egitate hori 1950eko hamarkadan aldatu zen: Zurbano Melero ikerlariaren arabera, 1900ean 20.000 goierritarretatik soilik 5.000 ziren kaletarrak, beste 15.000 baserritarrak ziren artean. 1930erako, kaletar goierritarren kopurua igo bazen ere (Beasain 1.940 biztanle izatetik 5.260 izatera pasatu zen, eta Ordizia, 1.500 inguru izatetik 4.000 ingurura; suposatzekoa da 6.000 inguru goierritar berri horietako gehienak kaletarrak zirela), ez zen hor azaldutako alde handi hori jateko beste izan⁷⁸. Ikusi dugu hori ez zela Beasainen kasua izan, non 1910erako jada kaletarrak baserritarrak baino gehiago ziren. Beraz, hor ere ikusten da Beasain Goierri baino azkarrago hazten ari zela.

Demografiari lotuta beste arazo bat aurkitzen dugu, hau da, Beasainen bertan zegoen etxebizitza-falta (eta baita osasun zerbitzuen eskasia ere, baina azken hau hurrengo azpiatalean tratatuko dugu). Ikusiko dugun bezala, laster, lehen zabalkundea egin beharrean gertatu zen Beasaingo herria. Hala ere, laster erakutsiko dugun bezala, arazo hori demografiari loturik egonik, azken finean bagoi-lantegiko arazoekin estu-estu lotuta zegoen.

Lehen aro horietan, Beasaina etorritako inmigrazioa batez ere gipuzkoarra izan zen arren, kontuan hartu behar dira bi gauza; alde batetik Euskal Herriz kanpotik zetorren inmigrazioak geroz eta pisu handiagoa hartu zuela, eta ikusi dugun bezala, Beasain, Gipuzkoan inmigrazio mota hori jaso zuen udalerrietako bat izan zela.

Gero eta garbiago gelditu zen Beasaingo etxebizitza-parkeak berrikuntza bat behar zuela; jende berria etortzen ari baitzen Beasaina. Jose Orueta fabrikako zuzendaria bezalako lekuo batzuen arabera, "gela batean 6 do 8 pertsona pila zitezkeen"⁷⁹. Konponbide bat topatu behar zen, eta ez etxebizitzei zegokienean bakarrik, baizik eta baita etxebizitza horien hornikuntzari zegokionean ere, adibidez urez hornitzeko.

Halako populazioaren igoera batez ere "fabrika haundian" lan egiten zuten langileek ekarri zutelarik, normala izan zen fabrika hori, bai SECM markapean, bai CAF markapean Udalarekin batera etxebizitza berriak egiteko elkarlanean aritu izana. Hori gertatu zen adibidez, 1902an Bideluzeko gunean egiten hasi ziren etxeekin (gaur egun, Arana kalea eta hein batean Iturriotz kalea eratzen dituztenak). Beasaingo Jose Zufiaurre etnografoaren arabera, 1907an, bukatu eta gutxira, kale horiek "Zabalgune" gisa ezagutzen ziren⁸⁰. Kale horiek 1910-11 artean asfaltatu ziren, Martin Lasa alkate zela⁸¹.

Egia esan J. M. Iturriotz kalekoak ez ziren izan fabrikak egin zituen lehenengo etxeak, izan ere aurretik, gaur egungo Ezkiaga auzoan, egin baitziren, Legorburu Fausen arabera, Gipuzkoako lehen "langile-etteak". Legorbururen arabera, ez zuten askorik iraun, eta badirudi populazio "mugikor" edo "behin-behineko" bat hartzeko etxe probisionalak izan zirela⁸². Beste alde batetik, Legorburuk berak esaten du, (eta lehen ere komentatu dugu), fabrikaren lursailen barruan bazeudela teknikarientzako eginiko etxeak (Lazkaoko lurretan), baina fabrikaren lursailen barruan egonda, Beasaingo hirigintzarengan ez zuten eraginik izan, ez paisaia-aldaketarik eragin.

Beraz, lehen "zabalkunde" handia, 1902ko hori izan zen. Urte horretan, Ezkiaga auzoan, 28 familientzako eraikin bat egin zuten, eta baita langileen "Etxe Nagusia" ere, gaur egungo J. M. Iturriotz kalean (CAFeko sarreraren ondoan). Esan bezala, Udal bera ere implikatu egin zen eta Jose Migel Iturriotz alkate zuen Udalak lurra eman zion Bideluze ondoan enpresari etxeak egiteko (Legorbururen arabera, 1901ko ekaineko 19ko agindu batek debekatu egiten zuen Udalek enpresei lurra doan ematea, beraz, kopuru sinboliko baten trukeko salmenta gisa eman zion lurra Udalak SECMeri)⁸³. Etxe horiek 1903an hasi ziren eraikitzen, eta berez, 66 familientzako tokia egin behar izan zuten (fabrikaren zuzendari Jose Oruetaren arabera, gehiago ezin izan ziren

⁷⁷ GURRUTXAGA, Ander: *Estructura y progresos sociales en el País Vasco*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 1991. Kontuan izan behar da ikerketa honek Legazpi, Urretxu eta Zumarraga (Urola Garaia edo Goierri Garaia) ere Goierriren barruan sartzen dituela. Bertan esaten da Beasainek, Ordiziak, Urretxuk eta Zumarragak Goierriren hazkundearen %92 hartzutela 1900-1930 epean.

⁷⁸ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 46-49. or.

⁷⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 82. or.

⁸⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia* (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 74-77. or.

⁸¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001, 17-21. or.

⁸² LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 85. or.

⁸³ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 90-91. or.

or.



Horrelakoak izan ziren 1902. urtean SECM enpresak Jose Migel Iturriozt kalean (CAFeko sarreraren ondoan) eraiki zituen etxebizitzak. (Argazkia: FL/MG, 26. or.)

egin, ur-hornikuntzak aukera gehiago eskaintzen ez zuelako)⁸⁴. Hala ere, badirudi Udalaren eta enpresaren arteko eten bat gertatu zela uraren inguruan (alde bakoitzak zioen uraren ekarrera beste aldeak egin eta ordaindu behar zuela) eta azkenean 13 etxejabe pribaturi saldu zitzaitzien. Horrela sortu zen “Zabalgunearen auzoa”, Bideluze Kaleak eta Kale Berriak osatua; geroago bi alkateren izenak jarri zitzaitzien: 1916an Bideluze kaleari Jose Martin Aranaren izena eman zitzaison, eta geroago, Kale Berriari Jose Migel Iturriozt izena, hain zuzen ere obra hura bultzatu zuen alkatearen izena⁸⁵. Aldaketa horrek beste ondorio bat izan zuen: kaletar populazioaren nagusitasuna. Halaber, 1910ean, lehen aldiz Beasainen, hiriguneko populazioak landa-guneko populazioa jada gainditua zuen: 1900ean kaletarrak %42 baziren, 1910ean %58 ziren⁸⁶. Etxe horietara etorri zen Urretxutik, geroago politikari komunista gisa ezagun egingo zen Jesus Larrañaga eta bere familia; familia horretako alabarik gazteena, Maria Josepa, 1903an edo 1904an jaio zen etxe horietan⁸⁷.

Zabalkunde berriak ere egin ziren 1930. urte aldera. 1923 eta 1924 artean, Arana kalean zein Iturriozt kalean etxebizitza berriak egin ziren eta 1929an geltokira bidean, Urbi etxearen eta geltokiaren artean⁸⁸. 1924an plazako Eskola Berriak eta Udaletxearen eraikin berria egin ziren. 1929an abere-hiltegia eta zubia⁸⁹ egin ziren Urbietan. Beste alde batetik, 1910eko hamarkadan, orduko Andra Mari kalea asfaltatu egin zen⁹⁰.

⁸⁴ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 62-63. or.

⁸⁵ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70. eta 74-77. or.

⁸⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 60. or.

⁸⁷ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 12. or.

⁸⁸ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 65-66. or.

⁸⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43-44. or.

⁹⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70 eta 13-14. or.



Itxura hau zuen
Loinazko San Martinen
plazak 1924ko
berritzearen aurretik.
Eskuinean, banderarekin,
udaletxe zaharra, eta
ondoan, Aranberri fonda.
(Argazkia: FL/MG, 76. or.)

Hala ere, bazegoen beste arazo handi bat, Bideluzeko etxeak egitean gorabehera handiak sortu zituena eta arazoa azaleratu zuena: etxeak zerbitzuz hornitzea, batez ere uraren hornikuntza egitea. Joxe Migel Iturriotz alkatea izan zen ur-ekarketak bultzatu zituena. XIX. mendean, Joxe Martin Arana alkate zela, Ugartemendiko ur-gordailutik (Aizpurun, egungo Institutuaren azpian dago ur-gordailu zahar hura) ur-ekartze bat egin zen, baina emaria urria gertatu zen hazkunde berriarentzako, beraz, argi gelditu zen ur gehiago ekarri beharra zegoela⁹¹. Beraz, Iturriotzek 1909an beste ur-ekartze bat egin zuen, kasu honetan, Albizturko Santa Marina auzoko Zazpiturrietatik, eta geroago, bere bigarren agintaldian (1912-1920) ere ur-ekarketa gehigarri bat egin zuen Zazpiturrieta bertan Letamendiko ur-gordailuaren hornikuntza hobetzeko. Iturriotz liberalak, ekarketa horrekin tirabiraren bat izan zuen oposizioko zinegotzi karlistekin, haien ustez ekarketarako hodiak lodiegiak baitziren eta horrek gastu handia suposatzen baitzuen; karlistek hodi meheagoak jartzea (emari gutxiagorentzat eta gastu gutxiagorekin) jartzea defendatu zuten. Hala ere, geroak Iturriotzi eman zion arrazoia, eta hurrengo hamarkadetan ere, Beasainen hazkuntzak ur-eskasiaren



Ur-ekarketa lanak (ezkerrean). Uraren inguruan arazo handiak izan ziren mende hasierako Beasainen. Lan horien bultzatzale nagusia Jose Migel Iturriotz alkatea izan zen (eskuinean). Lan-taldearen argazkian, eskuinean, kapela eskuetan duela agertzen da alkatea. (Argazkia: FL/MG, 42. or.)

⁹¹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in *Beasain Jaietan* urteroko aldizkaria, 2001 (17-21. or.).

or.

arazo nabarmena izan zuen beti berekin eta beste hainbat ur-ekartze, etab. egin ondoren, azkenean, Arriarango urtegia da Lareokoarekin batera, Beasainen eta Goierriko hainbat herriren behar hori asetzeko hornitzairen nagusia⁹².

Oro har, XX. mendearen lehen heren hori hazkunde handiko garaia izan zen Beasainentzat, ekonomiaren egoera onak sustatuta. Ez zen berdin gertatu 1930eko hamarkadan, ekonomiak atzera egin zuenean, eta hor ikusi zen Beasaingo populazioak ere beherantz egin zuela.

1.3 Bestelako zerbitzuak eta elkarlanean

Garai haietako Beasainek, bere egitekoen artean, bazituen hainbat betebehar betetzeke. Uraren ekarrera beharrizan horren lekuoetako bat dugu, baina beste beharrizan asko sortu zituen populazioaren igoerak. Beste alde batetik, jendearen pilaketak eta bizitzeko modua aldatzeak, jendearen ohitura kolektiboak ere aldatu egin zituen, eta horrela, jendeak, bere aldetik elkartzeko modu berriak sortu zituen. Kontuan hartu behar da, halako kasu askotan, fabrikaren papera ere aipatzeko dela, izan ere, bertako langileentzako jarritako zerbitzuak, askotan, gero herri osora zabalduak izan baitziren, edota, beste batzuetan, arlo batzuetan herriak zuen zerbitzu-gabezia leuntzen lagundu zuen. Lehen aipatu dugun hirigintza da adibide bat, baina badaude gehiago ere, eta horietako bat eskolarena da.

Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, industrializazaren aurreko Beasainen, jendea elkartzeko modurik ohikoena, jaiak, ospakizunak, erlijio-ospakizunak eta abarrak izaten ziren, Hori dela-eta, jaien inguruan sortu zen Loinazko San Martinen Kofradia, jaien antolakuntzaren ardura "zibila" hartzen zuena (orduan jaiak beste modu batean ulertzenean ziren eta erlijioak pisu handia zuen). Jaien inguruan, kontuan hartu behar da San Martinen jatorriaren inguruko eztaba handi bat zegoela Beasain eta Bergararen artean, eta Kofradia horrek, santuaren beasaindartzasunaren defentsa egiten zuela⁹³. Kofradia horren banderadunak, baserri eta etxe jakinetakoak izan ohi dira oinordetzan ordezkapenak eginez eta, besteren artean, Barrendain etxeko Mendi familiakoak ere izan ziren, tartean, 1936an fusilatua izan zen Ebaristo Mendiak⁹⁴.

XIX. mendean bi kezka nagusi zeuden Beasaingo bizitza-aldaketan, horietako bat eskolatzeari lotua eta beste bat Foruak ezabatzeari lotua. Foruen galerak izan zuen ondorioetako bat, soldaduskarenaren izan zen, izan ere, 1876tik aurrera, Euskal Herriko mutilak Euskal Herritik kanpo joan behar izan baitzuten soldaduska egitera. Soldaduska-zerbitzua egin beharrari aurre egiteko, Udalaren laguntzaz, "Kintoen Elkarte" batek funtzionatu zuen Beasainen 1876 eta 1885 artean, eta bere betebeharra, kintoak soldaduskara joatetik saihestea izan zen, fidantzak ordainduta, adibidez.

Eskolatzearren inguruan, populazioaren goraldiak ere izan zuen eragina eskolatzean. Alde batetik, kontuan izan behar da, XIX. mende-erdialdean eskola bakarra zegoela Beasainen⁹⁵ (ditugun datuen arabera, 1844tik aurrera neskak ere eskolara joaten hasi ziren, eta ordutik aurrera ere, joan arren, mutilak baino proportzio txikiagoan joaten omen ziren). Garai haietan eskolek ikasle gutxi samar izaten zituzten, eta gehienak herrigunekoak. Baina industrializazioaren gorakadak umeen kopurua ere handitu egin zuen eta horrek eskola gehiagoren premia handitu egin zuen. Bai sare publikoan zein sare pribatuan, eskola berriak egin behar izan ziren, eta horretan ere nabaritu zen fabrikaren bultzada.

Hala ere, eskolen zabalkundearen inguruko lehen kezkak 1868an izan ziren, "Hezkuntza Batzordea" sortu zenean, eskolak plazan eraikitzeko helburuarekin. Jose Gabriel Zurbano Melerok ematen dituen datuen arabera, 1879an plazako eskola horiek 80-100 ume artean hartzen zituzten. Hala ere, kontuan hartu behar da orduan Beasainek 500 bat ume zeudela⁹⁶. Nahiz eta berez mutilek zein neskek ikasi ahal izan, garai hartan diskriminazioa erabatekoa zen mutilak eskolatzearren alde eta urteko aurrekontuan mutilen eskolan neskenean baino askoz ere gehiago gastatzen zen. Berdintasunerako bidean artean urrats asko emateke zeuden⁹⁷.

⁹² ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasaingo Udala. Beasain, 1995, 68-70 eta 74-77. or.

⁹³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 70-72. or.

⁹⁴ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70. eta 18-20. or.

⁹⁵ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiarra Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 18-19. or. Hala ere, Zurbano Meleroren arabera, Garin eta Aratz-Matxinbentan ere auzo-eskolak bazeuden.

⁹⁶ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 91-93. or.

⁹⁷ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 91. or.

Beste alde batetik, aurretik aipatu bezala, haur-kopuru txikiegia hartzen zuen eskola horrek. Hala ere, Beasainen bazegoen beste eskola bat fabrikarena, eta hura langileen semeei klaseak emateko zabaldzu zuen enpresak (zabaldzu zenean multilenzat solilik ireki zuen; langileen alabak nesken eskola publikora joaten ziren⁹⁸). Horrela, hein batean bederen, Udal-sareko eskolen gabezia leundu ahal izan zen. Fabrikaren eskola hori 1879 inguruan ireki zen 72 ikaslerekin, baina lehen urteetan batez ere, eskola horren oinarrizko baliabideak, enpresaren gorabeherei oso lotuta egon ziren. Hala ere, 1895ean Probintziako Ikuskariaren bisita izan zuen eta hark goraipatu egin zuen. Elena Legorbururen arabera, eskola horretako ikasleek, eskola publikokoek baino nota hobea ateratzen zituzten eta horretarako arrazoi bat, Legorbururen arabera, eskola horretako ikasleak, langileen semeak izanik, denak kaletarrak ziren, beraz, eskola etxetik hurbil zutenak; eskola publikoak, aldiz, baserritar jatorriko ikasle asko hartzen zituen eta ikasle askok klaseetara joateko zaitasunak zituzten, bai distantziengatik eta baita baserrian lanean lagundu behar izaten zutelako ere⁹⁹.

XX. mendean, hasierako sare eskas samar hori pixkanaka zabalduz joan zen, bai publikoan eta baita pribatuan ere. Mende-hasieran, haur-eskola bat egin zen, Udalak eratuta. Hala ere, sare pribatuan berrikuntza bat iritsi zen eta 1909an Lasalletarren eskola hasi zen, Teresa Sangronizen etxearen, Andra Mari kalean¹⁰⁰. Hasieran 60 ume hartzen zituen eta denak mutilak ziren. Hasiera batean, barnetegi-erregimenean egon ziren, harik eta 1920an erregimen zabala ezarri zen arte (eskaera handia zen-eta). 1926an Udalak, beste pabilioi berri bat eginez lagundu zion eskola horri, hain zuzen ere etxearen jabeek etxea saltzeko asmoa agertu zutelako eta eskola horrek eskaintzaren parte bat hartu zuelako (ordurako 200 ikasle zituen eskolak)¹⁰¹.



Teresa Sangronizen etxea; bertan jarri zen Lasalletarren Loinazko San Martinen ikastetxea. (Argazkia: JZG, 94. or.)

⁹⁸ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 100. or.

⁹⁹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 101. or.

¹⁰⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: Beasaingo kale-izenen historia. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 68-70 eta 13-14. or.

¹⁰¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 96. or.

or.

Udalak, horrez gain, SECMeren laguntzaz, Arte eta Lanbide Eskola bat zabaldu zuen 1915ean, Andre Mari kalean, artean alkate Jose Migel Iturrioz zela. Alkate haren asmo berritzaleak argiro ikusi ziren, izan ere, bera izan baitzen ur-ekarketa berriak egiten hasi zena. Eskola horrek beasaindarra Industriarako prestatzea zuen helburu eta SECMeko Feliziano Arizmendi delineatzalea izan zen zuzendari. Baino 1917an fabrikak bere eskola industrial propioa bultzatu zuen, beraz, 1923an Udalaren eskola industriala laguntzeari utzi egin zion. Eskola bakoitzak, gutxi gora-behera 40 bat ikasle zituen¹⁰².



**Arte eta Lanbideen Eskola 1915. urtean zabaldu zen.
Andre Mari kalean zegoen.** (Argazkia: JZG, 94. or.)

Berezarkuntza garaiko Beasaingo eskola-eskaintzarekin amaitzeko, bestelako bi eskola mota aipatuko ditugu. Alde batetik, 1914an Udalak zabaldu zuen lehen Musika Eskola dugu, eta kontuan izan behar da garai hartarako bazegoela jada bultzada bat herriko txistulari-banda, musika-talde eta abarren inguruan, beraz, eskola horrek eta herriko musika-taldeek elikatzen zutela suposa dezakegu. Beste alde batetik, Beasaingo Batzokian EAJk "Euzkel eskola" bat antolatu zuen 1936ko maiatzean, helduei euskara irakasteko.¹⁰³ Hilabete eta erdiz jardun zuen eskola hark eta lauzpabost ikasle izan zituen. Eskolak, On Pedro Mari Usabiaga apaiz mutrikuarrak eman zituen. Aipatzeko da Beasainen euskara irakasteko lehen saiakera izan zela. 1936ko gudak eta Francoren diktadurak jarrai-pena eten zuten.

1924an Eskola berriak (eraikin berriak) inauguratu ziren, Jose Guridi Balantzategi alkate zela. Eskola horiek Loinazko San Martin plazan eraiki ziren, udaletxeari itsatsita. Nesken eskolako zuzendaria Pilar Barber izan zen garai hartan, eta mutilen eskolakoa, Leovigildo Aguado. Eskola horiek 1929an handitu egin ziren.



**Udaletxea, eskola berriak, irakasleen etxea eta Loinazko San Martinen
plazaren itxura berria 1924ko berritzearen ondoren.** (Argazkia: FL/MG, 77. or.)

¹⁰² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 92-93. or.; eta LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 102. or.

¹⁰³ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Beasain Jaietan urtekaria*. 1987, 66. or. eta SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: *Alfabetatzearen hastapenak Goierriin. Goierriko Euskal Eskola K. E.*, 2000, 16. or.

Hala ere, dirudienez eskaintza ez zen nahikoa izan eta Errepublika garaian eskola-sarea handitu egin behar izan zuten, adibidez eta ikusiko dugun bezala auzoetan (Arriaranen), baina baita ere, herri barruan, sare pribatuak batez ere (Serora edo Moja Karmeldarren neskentzako eskola eta Akademia Berezia zabaldu ziren). Horrez gain, eskola publikoak hobeto hornitzeko saiakera ere egin zen.




Mateo Muxika Urrestarazu gotzainak 1924ko eskola berrien inaugurazioan parte hartu zuen.
(Argazkia: FL/MG, 84. or.)



**Notre Dameko mojen eskolak 1930. urtea arte iraun zuen.
Hona hemen eraikina.** (Argazkia: FL/MG, 98. or.)

Populazioaren hazkundeak, mediku-zerbitzuak handitu beharra ere ekarri zuen. Honetan ere Udal-zerbitzuak eta fabrikarenak bikoiztu egin ziren, izan ere, jakin badakigu fabrikak bere mediku propioak izan zituela, XX. mende hasieratik behintzat, orduan Jose Gabarain Arana izan baitzen zerbitzu hori eman zuena¹⁰⁴ (hala ere, langileentzako Osasun Sorospen Kutxa sortzeko 1924. urterako arte itxaron behar izan zen). Herriko zerbitzua kontuan izanik, modernizatzea ere beharrezkoa izan zen, kontuan harturik, XIX. mende-bukaeran, mediku bakar batek, Martzelino Agirrezabalek, Beasaingo jendeaz gain, Ordizia, Lazkao eta Zaldibiakoak ere artatu behar izaten zituela (ematen duenez, geltokian bizi izaten zen). Halako neurriak ez ziren nahikoak izaten izurrite bat etortzen bazen, adibidez, Bigarren Guda Karlistan zehar, 1874an izurrite bat gertatu zen Beasainen Erauskin auzotik zabaldu zena. Beraz, populazioaren hazkundea zer-nolakoa izan zen kontuan izanik, askotan populazio industrialari lotua eta gainera pilaketa baldintzetan bizi zena (hirigintza eta populazioari buruzko paragrafoetan ikusi dugun bezala), Beasainek bere mediku-zuzkidura handitu egin behar izan zuen. Osasun-zerbitzuen lehenengo hazkuntza 1882an hasi zen, Martina Maiz ongileak finantzaturik, Arangoitiko erietxea egiten hasi zirenean. Erietxe hori egiteko lurra, Joxe Bixente Iraola Lasak, geroago alkate izango zenak, saldu zituen eta merke saldu ere¹⁰⁵. Erietxea 1903an handitu egin zen eta SECMEk lagundu zuen handitze hori egiten¹⁰⁶. Beraz, ikusten dugun bezala, herriaren eta fabrikaren arteko elkarlana nabarmena izan zen modernizazio-dinamika horretan. Gertatu ohi zen halaber, fabrikako mediku zenak, gero herriko plaza publikoa hartzea ere eta hala gertatu zen,



XX. mende-hasieran, populazioaren igoerak eta izurriteen hedapenak, orduko medikuntza-zerbitzuak eskasak zirela erakutsi zuten. Irudian, fabrika haundiko klinika, bertako langileei beharrezko zerbitzuak ematen zizkiiena. (Argazkia: FL/MG, 64. or.)

¹⁰⁴ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 99 orr. Beasain, 1996, 99. or.


¹⁰⁵ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in Beasain Jaietan urtekaria, 2001 (17-21. or.).

¹⁰⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 98. or.

or.

adibidez, Roman Unanue medikuarekin¹⁰⁷. 1918an, "gripe espanyiarra" jasan zuen herriak eta 60 bat hildako izan ziren. Une hartan, lau mediku zeuden Beasainen. Beste alde batetik, aipatu behar da, fabrikak bere mediku-zerbitzua izanagatik, Mediku Brigada antzeko bat jarri zuela martxan, fabrikan gaixotzen zirenak, Beasaingo edo Ordiziako erietxeetara eramateko. Osasun-eskaintzaren azkeneko atala ere, farmazia-dendena, laster iritsi zen Beasaina, izan ere, 1884tik aurrera Antonio Sagarminagak farmazeutiko edo botikari gisa jardun baitzuen, 1898an gaur egungo Kale Nagusian farmazia-denda zabalduta. Hala ere, 1929an bi ziren jada Beasainen zeuden farmaziak, Domingo Jauregik ere berea zabaldu zuen-eta. Beraz, Beasainek osasun-zerbitzuen inguruan biziako aldaketa nabarmena da: XIX. mendeko izurriteen kontra borrokatzeko mediku bakar bat izan zuen (beste herri batzuekin partekatua zena), eta mende horren bukaeran farmazeutiko bat jarri zen (toki finkorik gabe) eta erietxe txiki bat ere eraiki zen. 1931n, Errepublika jarri zen urtean, lau mediku (gehi fabrikan beste bat), bi farmazia-denda, erietxe handitu bat, eta horrez gain, fabrikako langileentzako premiazko Osasun Brigada bat, eta langile horiek gaixotasunen kontra babesten zituen Sorospen Kutxa bat ere bazeuden.


Modernizaziorako beste faktore garrantzitsu bat garraioa izan zen eta ez zen faktore txikia izan, trenbidea eta trena Beasainentzat zeinen garrantzitsuak izan ziren kontuan hartuta, izan ere, halako lantegi handi bat eta tren-geltoki bat bertan izateak, industrializazioari bultzada erraldoia eman zion. Kontuan hartzekoa da, geltokiaren eraikuntza bera, langileen erakarpen-faktore izan zela, industrializatzeko orokorraren pizgarri izan aurretik. Ez da kasualitatea, bai fabrika eta baita geltokia ere, elkarren garaikide izatea, izan ere, fabrika 1862an hasi bazen lanean, trenbidea 1858an hasi ziren egiten Jean Bernorain eta Antoine Soulerain frantziar ingenieriak buru zirela¹⁰⁸ 1863ko irailaren 1ean bukatu zuten Beasain-Donostia trenbidea. 1864ko abuztuaren 2an, berriz, Altsasurako trenbidea bukatu zen, eta hamabost egun geroago Madril-Paris bidea osatzerakoan, helmugak biderkatu egin ziren.



Beasaingo tren-geltokia, XX. mende-hasieran, bigarren trenbidea jarri ondoren. (Argazkia: FL/MG, 51. or.)

¹⁰⁷ Sara Unanueri Donostian egindako elkarrizketa. Sara Unanue, Roman Unanue medikuaren alaba da.

¹⁰⁸ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: Beasain: *Udalerrri gipuzkoar baten historia*, 109-110. or.



Zegama-Segura-Beasain ibilbidea egiten zuen garaiko autobus bat, Beasainen izan zen lehenengo autobusetako bat. (Argazkia: FL/MG, 79. or.)

Trenbidearen irekiera baino lehenago, Beasaingo garraio-zentroa, zalgurdiak edo diligentziak gelditzen zen tokia zen, hain juxtu ere tren-geltokiaren aurrean, Barrendainen (baserri hura bota eta beste toki batean berregin behar izan zuten)¹⁰⁹. Baserri hura, zalgurdien eta posta-zerbitzuaren erdigunea zen. Bertan posta-zerbitzua gelditzen zen. Jakin badakigu, XIX. mendearren erdialdean bazegoela Ormaiztegiko bainuetxerako garraio mota antolatu bat ere. XX. mendean motordun ibilgailuak ugaltzearekin batera, autobusak antolatzen hasi ziren, batez ere inguruko herrietatik jendea Beasaina tren-geltokira ekartzeko eta bertatik eramateko baina baita azoketara ekartzeko ere. Gogoratu beharra dago azokak, jarduera ekonomiko garrantzitsua izateaz gain (kontuan hartu Gipuzkoan industrializazioak ez zuela aurreko bizitza-modua erabat ordezkatu) jendearen bilgune garrantzitsu izan ohi zirela aspaldidianik, batez ere industrializazioaren aurretik. Gainera, hiribilduetako hierarkien adierazgarri ere baziren, eta eskualde-buru ziren herriean egiten ziren. Eta industrializatzeko ondoren ere lehen sektorearen (gogora dezagun Beasainen lehen sektoreak indartsu izaten jarraitu zuela) topagune garrantzitsu izaten jarraitu zuten. Hori ikusten da adibidez, autobusen zerbitzuarekin: 1927an asteroko zerbitzuak zeuden Ordiziara, Tolosara eta Azpeitira merkatu egunetan (Beasainez gainera, beste herri batzuetatik ere pasatzen ziren). Horrez gain, urte haietan, Atauna, Zegamara, Idiazabala, Ormaiztegira zein Zaldibiara bazeuden autobusak eta egunean bat edo bi ateratzen ziren helmuga bakoitzera. Beraz, horrek ere erakusten du Beasainek nolabaiteko zentralitatea hartu zuela Goierrin eta inguruan.

Kontsumoaren inguruan ere nabaritzen hasi zen aldaketa. Izen ere, XIX. mendeko azken egunetara arte, banaketaren gaineko ia erabateko monopolioa Udal Alondegiaaren eskuetan zegoen. Horrek lortzen zuen janaria eta bertako merkatariei (merkatari izateko Udalaren baimena behar zen) banatzen zien. Kontuan izan behar da askotan “merkatariak” ere ez zirela espezializatuak, askotan baserri batzuetan, baserriko lana egiteaz gain, janariak edo edariak saltzen ziren (geroago salmenta askea baimendu ondoren, halako baserritar-ostalariaren irudia ere ez zen desagertu, izan ere, jakin badakigu XX. mende-hasieran SECMEko zuzendari Jose Oruetak, Lazkaibarko baserri batzuetan alkohola sal ez zezaten saiatu zela, eta Zegaman ere, guda

¹⁰⁹ ZUFIAURRE GOYA, Jose: Beasaingo kale-izenen historia. (Beasaingo paperak 4. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1995, 18-20. or.

or.

ostean, Anjel Irigorasek jasoa du Langile Batailoian lanean ibili zirenak Intsausti baserriko ostatuan gelditzen zirela askotan¹¹⁰). Hala, 1885ean ezarritako salmenta askeko sistemak ez zuen irudi hori desagerrarazi baina bai “osotasunezko” denden irudia agerrarazi. Horrela, pixkanaka, halako dendariak agertzen hasi ziren. 1908rako jada 25 taberna zeuden Beasainen eta baita zazpi elikagai-denda ere (tartean, 1930-1931 urteetan alkate izango zen Joxe Bixente Iraola Lasak Kale Nagusian jarritakoa, edo Guda Zibilean fusilatu zuten Guillermo Ugarteek Kale Berrian, gaurko J. M. Iturriozt kalean, jarritakoa) eta sei harategi. 1929rako igo egin zen kopuru hori eta hamar janari-denda, bederatzi harategi eta hiru zapata-denda izatera iritsi zen. Altzari-denda bat ere bazen ordurako Beasainen, 1915ean jarri zuten Kale Berrian Arrillaga, Murua eta Suarez bazkideek¹¹¹.

Hala ere, prezioen igoera kontuan izanda (geroago ere mintzatuko gara honetaz), prezioei aurre egiteko kontsumo-kooperatibak sortu ziren. Kooperatiba horiek, bai fabrikan, langileei kontsumoa errazteko, nahiz herrian sortu ziren. Antza denez, herrian bazegoen mende-aldaleta garaian Kontsumo Kooperatiba bat, kale nagusian jarria¹¹². Fabrikan sortu zen kooperatiba, 1898an jarri zen abian, nahiz eta, dirudienez, 1907an beste bulkada bat jaso zuen. Hala ere, kontuan hartu behar da hasiera batean ez zituela bere helburuak bere, eskari eskasa zuen, eta gainera bertako prezioak dendetakoak baino handiagoak ziren. Hala zeuden gauzak, beraz, ez da harritzeko 1917-1919 artean Beasainen izandako langile-mobilizazioetan, kooperatibarekikoak aldarrikapenen parte izatea. Kooperatiba horrek 1909an, Udalak Senperen kooperatiba jeneroz hornitzeko baserri bat eraiki zezala eskatu zion, baina eskaera hori ez zen bete. 1917an, kooperatiba Ezkiaga auzotik Kale Nagusira aldatu zen.

Halako kontsumo eskaera asetzeko zerbitzu berrien beharrean zegoen Beasain. Horietako bat asteroko merkatua edo azoka izan zen. Ezaguna da eskualdean Ordiziako merkatuak duen fama. Hala ere, Beasainen ere pixkanaka, halako kaleko azoka bat eratzen hasi zen. Azokaren hastapenen inguruan ez dago informazio handirik, antza denez, 1878an Udalaren osoko bilkura batean, astero azoka egitea onartu zen, baina administrazioaren baimena lortzeko 1926 arte itxaron behar izan zen. Hala ere, badirudi 1920.eko hamarkadarako, nahiko ohitura finkatua izan zela, izan ere, 1920 eta 1922 artean Hornigaien Plaza eraiki baitzen, Pedro Arana Gaiztarro eta Joxe Migel Iturrioz alkate izan ziren agintaldietan. Gutxi irau zuen, ordea, azokak ofizialtasunez eta, urtebetera, 1927ko irailaren 14an ateratako Errege-agindu batek, merkatuak elkarrengandik 15 kilometro baino gutxiagora egotea debekatu egin zuen, eta Goierrin Ordiziako bazegoenez, Beasaingoa debekatuta gelditu zen. 1935era arte itxaron behar izan zen berriz ere legezko azoka egin ahal izateko¹¹³.

Merkataritzaren hazkundeak, herria ere horretara moldatzea ekarri zuen eta bestelako zerbitzu batzuk ere jarri behar izan ziren Beasainen. Horietako bat abere-hiltegia izan zen, gaur egungo Gipuzkoa plazaren alboan dagoen Urbietako izeneko eraikinean (Urbietako arte plastikoen zentroa dago) egin zena. Hiltegi hori Joxe Guridi Balantzategi alkatearen garaian eraiki zen, baina hurrengo alkateak, Joxe Bixente Iraola Lasak inauguratu zuen 1930eko abuztuaren 31n. Antza denez, nahiko zerbitzu ona ematen zuen, izan ere, 1932an Gipuzkoako Aldundiaren Ikuskariak egin zuen bisita batean “Gipuzkoako abere-hiltegirik onenen artean zegoela” esan zuen¹¹⁴. Aipatutako Joxe Guridi alkatearen garaian, Bideluzen ganadua edukitzeko tokia egin zen, adibidez¹¹⁵.



1930ean, abere-hiltegia
inauguratu zen, Urbietan,
Gipuzkoa plazan. Ezkerretik,
lehen hirurak, orduko alkate
Jose Bixente Iraola, Guardia
Zibileko kapitain Alejo Beñaran
eta Florentzio Aspe erretorea.
(Argazkia: FL/MG, 89. or.)

¹¹⁰ IRIGORAS, Angel: *Herri zapalkuntzaren lekuo batzuk. 1936-2006 Lehen orain eta beti: Eskubide berdinak pertsona guztientzat*. Erröteta. Bizkaia, 2006, 148-149. or.

¹¹¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 81-82. or.

¹¹² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 81. or.

¹¹³ GOZALO, J.: “Ekonomia komunikazioak eta merkataritza-jarduera” in LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel (zuz.): Beasain: *Udalerrri gipuzkoar baten historia*, 114. or.

¹¹⁴ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 80-81. or.

¹¹⁵ ZUFIAURRE GOYA, Jose: “Alcaldes de Beasain” in Beasain Jaietan urtekaria, 2001 (17-21. or.).



Beasaingo somatena osatzen zuen taldea, 1928an. Somatena, Primo de Riveraren garaian sortutako herritarrez osatutako ordena publikoko taldea zen.
(Argazkia: JZG, 118. or.)

Zerbitzuekin bukatzeko, ordena publikoaz hitz egin beharra dago. Halako sistema ekonomikoen testuinguruan gertatu ohi den moduan, jakina denez, zaintza jabetza pribatuarekin lotuta egoten da gehienetan, eta Beasainen ere, fabrikak interes berezia izan zuen ordena publikoaren arloan zaintza handiagoa izan zedin. Fabrikak XX. mende-hasieratik zituen guarda edo zaintzaile batzuk kontratatuta, bai Beasainen eta baita Zaldibiako Aiestaran auzoko zentraltxoaren ondoan ere. Ordutik aurrera, guardien kopurua handitu egin zuen CAFek eta 1920an 32 zaintzaile kontratatua zituen (alboko baserritarren kexuei jaramon eginez, ondoko soroak zaintzeko zaintzaile bat ere kontratatu omen zuen). FVBren kasuan, segurtasun publikoaren eta segurtasun pribatuaren arteko nahasketa ikusten da: 1912an, udaltzain bat ordaindu zuten Ezkiaga auzoa zaintzeo. Are gehiago Guardia Zibilaren kuartela Beasainen eraikitzea, dirudinez, fabrikaren ekimen bat izan zen. Kuartela 1914an bukatua zen jada, eta jakina, Ezkiaga auzoaren hasieran kokatu zen, gaur egun Olaran fabrika izandako eraikinaren ondoan (CAF fabrika beraren parean)¹¹⁶.

Aisaldi-taldeak ere osatzen joan ziren, bai euskal folkloreari lotutakoak, zein kirolari lotutakoak, zein bestelako jardunei lotutakoak. Elkarte berri horiek sortzea masa-gizarte modernoaren adierazgarrietako bat da eta gizartearen elkartekarako beste era bateko antolamendu-modu bat erakusten du. Pixkanaka, taldeen egituraketak pertsonen identifikazio kolektiboa perfiltratzen lagundu zuen eta baita jendea taldeetan biltzen ere.

Dugun informazioaren arabera, sortu ziren lehen taldeak euskal herri-kulturaren ingurukoak izan ziren. Halako taldeek, berez, ez zekarten industria-gizarte baten urratsik, aurrelik zeuden elementuak kohesioatzentz baitzitzuten. Hala ere, pixkanaka kolektibotasun baten lehen aztarnak izan ziren, bestelako (hots, familiaz eta parrokiaz at) "elkarteko kultura" eratu zutenak. Hala, 1865 eta 1870 urteen artean, dirudinez, txistulari-taldeak sortu ziren, eta azken urte horretan, musika-txaranga bat ere osatu zela dirudi¹¹⁷. Horren fruitu izan zen, 1881ean eratu zen Udal Musika Banda. Kirolari dagokionez, garai berean, bi pilotaleku egin ziren orain Bideluze Plaza dagoen tokian; Jose Zufiaurre Goia Beasaingo etnografoaren arabera, biak "Joxe Martin Arana Arregiren lehen alkate-aldian egin ziren", beraz, 1876 eta 1878 artean egin zirela ondorioztatu beharra dago¹¹⁸.

¹¹⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie" Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 99. or.

¹¹⁷ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 89-91. or.

¹¹⁸ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in Beasain Jaietan urtekaria, 2001, 17-21. or.

or.



Beasaingo Futbol Elkartea 1920an sortu zen. 1932ko argazki honetan, belauniko eskuinetik bigarrena Frantzisko Eltzo dugu, Realean jokatu zuena eta guda ondoren taldea berraktibatu zuena. Argazki hau oraingo Bideluze plazan atera zuten; atzean, artean zutik zegoen pilotalekua ikusten da. (Argazkia: FL/MG, 110. or.)

XX. mendeari itxaron behar izan zitzzion, kirol “berriak” Beasainen sartzeko. Halako gehienak Beasain Kirol Elkartearen babespean sortu ziren. Kirol Elkarte hori, beasaindarren artean kirola sustatzeko lan eginez, kirol ezberdinaren praktikan aitzindari izan zen. Horietako bat, adibidez, mendiko taldea izan zen, 1905ean sortua (1961ean birsortu zen Aitzgorri izenarekin)¹¹⁹. Laster, txirrindularitza-probak ere antolatzen hasi zen, adibidez, Joxe Manuel Azurmendik esaten digun moduan, 1916an lehen txirrindularitza-proba antolatu zen Beasainen, nahiz eta Loinatz proba izenekoa finkatzeko 1924. urterako arte itxaron behar izan zen¹²⁰. 1920an Migel Cerrajeria lehendakari zela (gudaren osteko erregimen frankistan lehenik zinegotzi eta geroago, 1949 eta 1954 artean, alkate izan zena), Beasaingo Futbol Kluba izeneko Kirol-elkartea sortu zen eta garai hartan futbol-zelaia, Senperen zegoen “fabrika haundiko” Iurretan. Hala ere, Jose Gabriel Zurbano Melerok esaten digunez, badirudi elkartea hori, “Futbol” izena jarri eta aurreko elkartearen jarraipenekoa izan zela, mendizaleak eta txirrindularitza ere bere baitan baitzituen. Gogoratu behar da, gaur eguneko Beasaingo futbol-taldeak “Beasain Kirol Elkarte” izen zaharra daramala, agian elkartearen lehen izena iraunazariz. Zurbanoren esanetan, lehen urteetan, futbolari batzuk musika-bandako kide ere bazirenez, gatazkak ere sortzen bide ziren bi elkarteen artean, futbolari-musikari batzuei isuna jartzeko punturaino. Futbol-partidak eta igandeetako plazako dantzaldiak ordu bertsuan zirelako, eta azkenean, dantzaldiak ordu erdiz atzeratu behar izan ziren¹²¹.

Atal hau bukatzeko, “klase-elkartea” ere izan ziren. Elkarte haien bi motatako interesetakoak izan ziren: bazeuden sektore sozial jakin baten interesak defendatzen zituztenak, baina baita ere, defentsa sozioekonomikoa helburu zehatz gisa izan gabe, sektore horretako jendea batzen zutenak. Lehen multzoan, langileen aldetik, jakina, sindikatu ezberdinak sortu ziren XX. mende-hasieran, bai sozialistek, zein anarkistek zein jeltzaleek euren sindikatu propioak izan zituzten; hala ere, horiez hurrengo azpikapituluan hitz egingo dugu, langile-antolamendua aztergai izango dugunean. Bestetik, 1917an “Kafegileen, Tabernarien eta Antzekoen Elkarte” sortu zen, pixkanaka, beste sektore batzuetako enpresariak batu zirelako¹²². Hala ere “aisialdiko klase-elkartea” ere sortzen hasi ziren. Esan bezala, aisialdia zuten lehen helburu gisa halako taldeek, baina zeharka bada ere, “elkartasun-kultura” bat susta zezaketen: halako lehen langile-elkartea 1904an sortu zuten SECmeko langileek, Beasaingo Casino Recreativo (Aisialdiko Kasinoa) deitu zena, Emilio Poignon eta Baltasar Fernandezen eskutik eta Kale Berrian kokatu

¹¹⁹ ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoia*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 56. or.

¹²⁰ AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970, 89. or.

¹²¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 87-88. or.

¹²² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 82. or.



Trenbideko Aisialdi Elkarteko kideak, herri-ospakizun batean, 1920. urtean. (Argazkia: FL/MG, 70. or.)

zen. Kontuan izan behar da garai hartin sortu zela Beasaingo lehen langile-elkartea politikoa ere, *Agrupación Socialista* (Elkarte Sozialista); ez dugu honi buruzko informazio handirik, baina badakigu 1909an desagertu egin zela eta 1915ean berriz agertu). Badirudi bi elkarteen artean nolabaiteko zubi-lana egin zela. Aisialdiko Kasinoa, Zurbano Meleroaren arabera, "kultura liberala" sortzeko erabakigarria izan zen: 1910ean frontoian film bat eman zuten, eta 1920an Beasaingo lehen danborrada antolatu zuten. Trenbideko langileek 1920an Trenbideko Aisialdiko Elkartea, erdaraz *Sociedad Recreativa Ferroviaria* sortu zuten. Elkarte horrek, batez ere, gaueko ikuskizunak eta aisialdia egituratu zituen; dantzaldi modernoak eta abar¹²³.

Beste alde batetik, Usurbe elkartea ere aipatu beharra dago. Elkarte horrek, beste mota bateko jendea biltzen zuen, hau da, "profesionalak, industrialak, unibertsitateko ikasleak, merkatariak eta enplegatu bereziak"¹²⁴. Beraz, langileena baino areago, erdi edo goiko klaseetako pertsonek osatzen zuten elkartea hori (elkartea sortu zen garaiko alkatea bera, Pedro Arana Gaiztarro industriala, elkarteko kide zen). Elkartea, Donostiako Gaztelubide Elkartearren "imitazioz" sortu zen 1920. urtean¹²⁵, eta Zubimusu plazan kokatua zen¹²⁶. Elkarte horretako pertsonak, Zesareo Ugarte bazkideak esaten zuenez "joera liberaleko jendea" ziren (hala ere, kontuan hartu behar dugu garai hartin ez zutela emakumerik onartzen bazkide gisa; guda ostean Martzelina Urteaga sukaldari gisa izan zen sartzen lehena; gaur egun bai, bazkide izan daitezke). Baina esan beharra dago, joera politiko-sozial oso ezberdinako jendea biltzen zela bertan, beraz, badirudi komunean zuten elementu bakarra, pertsonen klase soziala zela, burgesiako edo burgesia txikiko pertsonak batzen baitziren. Ugarteren arabera, Elkartean gizartearren eta baita ere Udalaren arazoez asko eztabadatzen zen, "politika egiten zen, beste modu batean bazen ere"¹²⁷. Baina aipatu bezala, joera ezberdinaketa jendea biltzen zen bertan, horietako asko, lan horretan garrantzia izango zuten pertsonak: Errepublika garaian ezkerreko alkate izandako Jazinto Urteaga eta Viktor Bernedo, adibidez, eta joera errepublikanoko zinegotzi izandako Seberiano Azpeitia, Leontzio Ibarbia, Serafin Arana edo Pedro Azarola; baina baita eskuindarrak eta karlistak ere, adibidez, guda osteko lehen alkate Jose Luis Guridi edo bere Udal-taldeko zinegotzi Jose Aranburu eta Restituto Urteaga¹²⁸.

¹²³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 89-90. or.

¹²⁴ UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarreko herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

¹²⁵ UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarreko herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19. or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 13-14. or.

¹²⁶ UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarreko herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19. or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 16. or.

¹²⁷ UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarreko herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1 zk.) 13-19. or., Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

¹²⁸ UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarreko herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) 13-19. or., Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.

or.

1.4 Langile-mobilizazioa

Langile-antolakuntza, Gipuzkoan, Bizkaian baino berantiarragoa izan zen, lehen aipatu bezala, industrializatzea Gipuzkoako lurretan hain traumatikoa izan ez zelako. Lehen mobilizazio handiak Lehen Mundu Gudaren bukaera aldean izan ziren, 1917-1919 arteko mobilizazio handietan (Espainiako Estatuan ere halako mobilizazioak izan ziren). Garai hartan bi faktore bat etorri ziren, bata, enpresen onurak handitzea baina horrek langileengana eragin positiborik ez izatea, eta bestea, bizi-kostua igotzea, prezioak garestitzea, alegia.

Migel Anjel Lopez Gonzalezek, 1891n Maquinista Guipuzcoanen mobilizazio bat egin zela aipatzen du, baina ez du datu handirik ematen¹²⁹. Ez dugu informazio handirik mugimendu horren inguruan.

Hala ere, PSOEren *El Socialista* egunkariaren arabera, 1900an beste greba bat egin zen Beasainen, baina ez dago mugimendu hari buruzko informazio handirik¹³⁰. Fabrikaren nondik-norakoak ezagutuz, badirudi greba hori, langile-kopuruaren murrizketa bategatik izan zela, Elena Legorburuk esaten digu 1899an langile-kopuruaren murrizketa egin zela eta agian hurrengo urteetan

gehiago ere egin zirela, fabrika berrian (gogoratu 1904an instalazio berriak egin zirela), langile gutxiago sartu baitziren¹³¹. Baino baliteke 1900an eratu zen Langile Erreformarako Batzordearen kontrako protesta izatea ere, izan ere, batzorde hori eratzeak langileen artean ezinegona piztu baitzuen, hain zuzen ere, batzorde horretako partaideetan langilerik ez zelako¹³². Luis Castells egilearen arabera, mugimendu hori doitzaleen artean izan zen¹³³.

Lehen greba horiek bat-batekoak izaten ziren. Joan Pablo Fusiren arabera, Gipuzkoan langile-antolamendurako tradizioa pixka bat berantiarragoa izan zen eta lehen langile elkartea Eibarren 1897ko grebaren ondotik sortu zen armaginen elkartea izan zen. Hala ere, Fusik berak aitortzen du, “Eibar salbuespna izan zela” eta “Gipuzkoako gainontzeko zentro industrialetan (Tolosan, Beasainen, Errenterian edo Pasaian), langileen antolakuntza berantiarragoa izan zela”. Ikuusiko dugun bezala, askotan, langile-elkarre sindikalena eta elkarre sozialisten sorrera batera etorri ziren¹³⁴.

Jose Gabriel Zurbano Meleroen arabera, beste greba bat ere egin zen 1907an, abuztuaren 2an eta 3an izan zen mugimendu hori, eta langileek, aroztegiko kontramausu bat botatzea izan zuten helburu. Zurbanoren arabera, litekeena da greba hori Arrasateko beste mugimendu batekin elkartuta egin izana, baina antza denez, mugimenduak porrot egin zuen. 63 langilek egin zuten bat¹³⁵, 1908ko datuen arabera, fabrikan 869 langile ziren¹³⁶.

INSTITUTO DE REFORMAS SOCIALES

ESTADÍSTICA DE LAS HUELGAS

Sección 3.^a—Estadística.

AÑO DE 1907

Provincia de Gipuzkoa
Ayuntamiento de Beasain
Pueblo de id

1. 1907. Acta del Instituto de Reformas Sociales sobre una huelga en la Sociedad Española de Construcciones Metálicas, Juego CAF, de Beasain. Se menciona la presencia de una Comisión de obreros que negocia con la patronal. Se despidió a sesenta trabajadores de la carpintería. Aunque finalmente se readmitió a todos menos a once. La Patronal dirá poco después que en Beasain no prenden las huelgas y el personal es sumiso y satisfecho. *El Socialista de Madrid* se hace eco de la huelga y su correspondiente en la comarca. Enrique de Francisco, acusa de intramisante a la patronal.

2. ¿En qué mes? Agosto 1907
¿En qué día terminó? tres
¿En qué mes? Agosto 1907
2. ¿Es industrial? sí
¿Agrícola?
¿Comercial?
3. ¿Cuál es el nombre de la empresa, fábrica, finca ó establecimiento en que trabajan los obreros declarados en huelga? Fábrica de Tagores de Beasain
Pertenece el establecimiento a alguna sociedad anónima? España de Construcciones Metálicas
4. ¿Cuál es la industria ejercida ó en qué comercio el establecimiento mercantil cuyos obreros se han declarado en huelga? construcción de vagones
5. ¿Está la empresa, fábrica, finca ó establecimiento dirigida por su propietario ó por empleados de este? por un Director
6. ¿Pertenece el propietario á alguna asociación patronal? no
7. ¿Existen en la localidad fábricas ó establecimientos del mismo género? no
8. ¿Cuántos eran los obreros ocupados en el momento de la huelga? 750
¿Cuántos varones? todos
¿Cuántas mujeres? 0
9. ¿Cuál ha sido el número medio de huelguistas? 63
¿Cuántos varones? 63
¿Cuántas mujeres? 0
10. ¿Qué retribución media fija ó destajo ó por cualquier otro procedimiento tenían? cuatro pesetas
11. ¿Cuál es el oficio ó especialidad profesional de los huelguistas? carpinteros
¿Cuántos varones? todos
¿Cuántas mujeres? 0
12. ¿Estaban asociados estos obreros? no se sabe
13. ¿Cuál era la jornada de trabajo antes de la huelga? dues horas
14. ¿Cuántos obreros se han negado á declararse en huelga? 687
¿Cuántos varones? todos
¿Cuántas mujeres? 0
15. Los no declarados en huelga, ¿han podido continuar trabajando á pesar de la ausencia de los huelguistas? si

1907ko Gipuzkoako greben estatistika. (Beasaingo PSOEk utzitako agiria)

¹²⁹ LOPEZ GONZALEZ, Miguel Angel: *Beasain: Udalerrri gipuzkoar baten historia*, 96. or.

¹³⁰ El Socialista, 1900-12-8; in EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesús Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 22. or.

¹³¹ LEGORBURU FAUS, Elena: *“Fabrika haundie”*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 33. eta 41. or.

¹³² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 117. or.

¹³³ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madril, 1993, 13-17. or.

¹³⁴ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 178-180. or.

¹³⁵ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 118. or.

¹³⁶ LEGORBURU FAUS, Elena: *“Fabrika haundie”*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 41. or.

Izan ere, hasiera batean, instalazio berrietako fabrikan (gogoratu, 1902an ekoizpena eten egin zela eta 1904an hasi zela martxan berriz) langile gutxiagok egin zuten lan hasiera batean: 1904an 396 langilek egiten zuten lan eta 1905ean 469k. 1908an 869 langile izan zirenean gainditu zen berrikuntzen aurreko zifra hura. Langile haietatik 847k 16 urtetik gora zituzten eta egunero 3 pezeta eta erdi irabazten zituzten, 14 eta 16 urte arteko 18 langileek 1,25 pezeta egunean, eta 14tik beherako 4ek bi erreal (pezeta-erdia) egunean. 14 urtetik beherakoek 5 orduz egiten zuten lan, besteek 10 orduz¹³⁷.

Esan bezala, Lehen Mundu Guda bukatzean egin ziren lehen greba-mugimendu koordinatuak. Guda hura hasi aurretik nahiko bare zegoen Gipuzkoa eta batez ere Beasain: 1911ko fabrikako informe batek adierazi zuen, langileria otzana zela eta ez zela grebetara emana; horren lekuko dugu 1910-1914 arteko barealdia. 1912an Tolosan greba handi bat egin zen papergintzan, baina oro har, Gipuzkoa giro barean murgilda zegoen¹³⁸. Esanguratsua da, 1910 eta 1914 artean, Gipuzkoan egin ziren greba gehienak Donostian egin zirela eta industrialak ez ziren langileen artean eginak izan zirela (tabernariekin, ile-moztaileek margolariek eta abar)¹³⁹. Joan Pablo Fusiren arabera, langileen hasierako elkartze- eta sindikatze-tradizio falta hori, orduan Gipuzkoan nagusi zen pentsaera katolikoarenengatik eta langile askoren jatorri baserritarrenengatik gertatu zen, non lanerako jarrera, lanarekiko eta betebeharrarekiko leialtasunarekin identifikatzen zen¹⁴⁰. Kontuan hartu behar dugu garai horiek oparotasunaren garaiak zirela eta pixkanaka gorantz egin zuela langile-kopuruak: 1911n 1.200 langile ziren eta 1918an 1.320¹⁴¹ (1920rako 1.800 langile izatera iritsi ziren)¹⁴².

Hala ere, Lehen Mundu Gudak erabat aldatu zuen panorama, bai mobilizazio sindikalei zegokienez eta baita langileen autoidentifikazioari zegokionez ere. Lehen Mundu Gudan Spainiaren neutraltasunak on egin zien Spainiako Estatuan kokatutako enpresei, eta onurak asko igo ziren, baina ez ziren ondo banatu. Izan ere, onurek gora egin bazuten ere (prezioekin batera), langileentzat gauzak ez ziren onera joan, soldatik ez baitziren igo.

1917rako asko nabari izan ziren igoera horiek. Elena Legorbururen arabera, urtarriletik azarora, kiloko ogia, 0,40 pezeta balio izatetik, 0,55 balio izatera pasa zen, litro-esnea, 0,25 pezeta balio izatetik 0,30 balio izatera, arrautza-dozena bi pezetatik 3ra pasa zen eta litro-olioa 1,30 pezetatik 2,10 pezetara. Bien bitartean, langileek 1905ean kobratzen zutena kobratzen zuten 1917an, 3,5 pezeta egunean¹⁴³.

1917an hasi ziren lehen grebak Beasainen¹⁴⁴. Horietako bat, ekainaren 19 eta 23 artekoia izan zen, bost langile kalera bota zituztela-eta¹⁴⁵. Miren Barandiaran Contrerasen arabera baina, Euskal Herrian egin zen, metalurgiako greba batekin koordinatuta egin zen. Greba hori ELAk babestu bide zuen baina UGT kontra agertu zen¹⁴⁶. Hala ere, langile askori Lleidako meatze batera lanera joateko aukera eman ondoren adostasun batera heldu ziren, nahiz eta Ludger Mees ikerlariaren arabera, grebaren emaitza "porrota" izan¹⁴⁷. Ematen duenez, greba horrek nazionalisten eta sozialisten arteko harremanak okertu egin zituen Beasainen¹⁴⁸, baina abuztuan beste greba bat egin zen eta, Elena Legorburu ikerlariaren arabera, Spainiako Estatu osoan

¹³⁷ LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie"*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 41. or.

¹³⁸ LUENGO, Felix: *Crecimiento económico y cambio social. Guipúzcoa 1917-1923*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 1990, 321. or. Antzeko zerbait komentatzen du, adibidez, Joan Pablo Fusik, zeinak 1912ko greba hori Tolosan soilik egin zela dioen eta ez zela ezta Papelera Española enpresaren Erreneriako enpresara ere zabaldu, Gipuzkoako beste papergintza-enpresetara alegia. Hala ere Fusik berak onartzen du greba horrek arrakasta izateaz gain, beste ondorio ongarri bat ere izan zuela: Euskal Herriko Papergintzako Sindikatua sortzea, alegia. FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 313-315. or.

¹³⁹ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 314. or.

¹⁴⁰ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 180-181. or.

¹⁴¹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 35-36. or.

¹⁴² LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie"*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 51. or.

¹⁴³ LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie"*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 65-66. or.

¹⁴⁴ Joan Pablo Fusik 1916an Beasainen trenbideko greba bat egin zela esaten du. Urte hartan Bizkaian metalurgiako langileek greba handi bat egin zen eta Gipuzkoako zenbait herrian, Arrasaten adibidez, greba-hotsak izan ziren. FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 368-369. or.

¹⁴⁵ LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie"*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 66. or.

¹⁴⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 45 or.; eta MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbao, 1992, 154. or. 1917-06-20ko Euzkadi egunkarian ere informazio horiek agertzen omen dira.

¹⁴⁷ MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1907-1923)*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 1992, 154. or.

¹⁴⁸ Ludger Meesen arabera, Bilboko *El Liberal* egunkari filosocialistaren berri-emailea "eskioltzat" tratatu zuten Beasainen. MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1907-1923)*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 1992, 146 or.

or.

PSOEk eta UGTk deitutako greba iraultzailearen markoa beste greba bat deitua izan zen eta CNT ere batu egin zen hartarako. Miren Barandiaranen arabera, ordea, ELA ez zen elkartu greba hartara, UGTk gonbita egin arren¹⁴⁹.

Abuztuko greba harten, helburuak politikoagoak edo orokorrakoak izan ziren, ez ekonomikoak edo fabrika edo herri baten ingurukoak: nahiz eta prezioen igoerak zeresana izan, badirudi sindikatu deitzaleek, erregimen monarkikoaren sinesgarritasun-falta zela-eta, monarkia uzkaitzeko edota behintzat erreforma demokratiko sakonak ezarratzeko asmoa izan zutela¹⁵⁰. Greba hura Euskal Herrian, Bizkaian bereziki, oso jarraitua izan zen (Bilbo eta batez ere Meatzaldea 13tik 20rako astean erabat geldituta egon ziren), baina ez hainbeste Gipuzkoan; Beasainen bai, ordea, eta grebaren toki beroetako bat izan zen¹⁵¹. Greba hark istilu handiak sorrazi zituen, alde batetik, Guardia Zibilak eta Armadak parte hartu zuten greba bertan behera utzarazten (abuztuaren 13an Gipuzkoan guda-egoera aldarrikatu zuten). Jose Gabriel Zurbano Meleroen arabera, abuztuaren 12an hasi zen greba eta 16an geltokiko langileak ere elkartu egin ziren¹⁵². Jose Antonio Egidoen arabera (garaiko langileek kontatuta), garai harten grebak puskatzeko erabiltzen zen beste taktika bat, ondoko herrietatik eskirolak ekartzea izaten zen¹⁵³. Greba harten, adibidez, eskirolen eta gredularien arteko talka nahiko handia izan zen eta greba-egileen eta eskirolen arteko kolpeak ere izan ziren. Greba harten, Elena Legorbururen arabera, 1.000 langile baino gehiago elkartu ziren, eta Zurbano Meleroen arabera, are gehiago, “16an, lanera, 700 bat, hots %53 inguru soilik itzuli ziren”, beraz, guztira, uneren batean behintzat 1.350 bat langilek greba egin zutela kontuan hartu beharko dugu. Izan gogoan, greba-olde horregatik, Gipuzkoan guda-egoera ezarri zela eta Elena Legorbururen arabera, “Gipuzkoa osoan zehar ez zuela jarraipen handirik izan”¹⁵⁴, beraz, Beasaingo istiluak benetan handiak izan zirela ondorioztatu beharko dugu. Errepresioa ere handia izan zen, Beasaingo Lanbide Anitzetako Langile Elkarteko zuzendaritza osoa atxilotu baitzuten. Abuztuaren 25ean, atxilotuen askatasuna lortzeko istilu batzuk gertatu ziren Beasainen. Atxilotutako langile ia guztiak aske utzi zitzuten, baina beasaindar bat eta ordiziari bat atxilotuak izan ziren¹⁵⁵. Fusiren arabera, greba hura porrota izan zen, ez baitzituen helburu politikoak lortu eta, gainera, sozialisten eta anarkisten arteko koordinazio-falta agerian utzi baitzuen¹⁵⁶. Halere, Legorburu Fausen arabera, soldatu-igoera batzuk lortu zitzuten langileak.

Kontuan hartu behar dugu 1917rako jada sindikatuak antolatzen hasiak zirela. Urte harten Beasainen Lanbide Anitzetako Langile Elkartea sortu zen, Donostiako *Federación Local de Sociedades Obreras* (FLSO; Langile Elkarteen Tokiko Federazioa) elkarteari lotuta. Federazio hori, UGTren hurbilekoa zen, baina Donostian komunistek sindikatuetan zuten indarra zela-eta, sozialisten eta komunisten arteko borroka-leku ere izan zen¹⁵⁷. Beste alde batetik aipatu beharra dago, 1915ean Beasainen Elkarteko Sozialista berriro berreratu zela eta horrek gerora begira jada UGTren hazkundea iragar zezakeen. Urte harten bertan, Jose Gabriel Zurbano Meleroen arabera, sindikalismo katolikoa ere agertu zen Beasainen eta bi erakunderen bidez agertu ere, alde batetik ELA/SOV (Eusko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Obreros Vascos), ideologiaz katolikoa zena, Utrechtako Sindikatuen Konferentziari atxikia eta sindikalismo sozial kristauaren doktrina sindikala jarraitzen zuena, baina elizako hierarkiari lotuta ez zegoena)¹⁵⁸ eta bestetik Elizaren Sindikatuak (Elizako hierarkiari ideologia eta antolamendu aldetik lotuagoak zirenak. Dirudienez, azken horiek Beasainen ez zuten pisu handirik izan, izan ere, Beasainen ez dugu halako sindikatuen beste erreferentziarik aurkitu)¹⁵⁹. Anarkistak, Legorbururen arabera, 1920an sortu ziren, Beasaingo Langileen Sindikatu bakarra eratu zenean, Pedro

¹⁴⁹ LARRAÑAGA, Polcarpo: *Contribución a la historia obrera del País Vasco*. Aranzadi. Donostia, 1976-77, 68-69. or.; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 45-46. or.

¹⁵⁰ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 370. or.

¹⁵¹ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 369-377. or.

¹⁵² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 120. or.

¹⁵³ EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesús Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Bartzordea. Beasain, 1993, 22. or.

¹⁵⁴ LEGORBURU FAUS, Elena: *“Fabrika haundie”*. Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 66-67. or.

¹⁵⁵ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 45-46. or.

¹⁵⁶ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 376-377. or.

¹⁵⁷ 1930.eko hamarkadan, FLSO komunistekin lerratu zen.

¹⁵⁸ Beasainen ELA 1915ean sortu zela azaltzen digu Ludger Mees historiagileak ere. Meesen arabera, ELAk bost talde zituen orduan Gipuzkoan: Soraluze, Eibar, Antzuola eta Bergarakoak izan ziren lehenago sortuak. MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1907-1923)*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 1992, 145. or. Mikel Aizpururen arabera, ELAtik Sindikatu Katolikoen aurka egin zen salaketa nahiko erabilia izan zen, azken horiek “patronalaren mendeko sindikatuak” zirela adieraziz. AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 192-193. or.

¹⁵⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 120-121. or.; eta CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madrid, 1993, 48. eta hurrengo or. Ludger Meesen arabera, ELAren eta Elizako Sindikatuen arteko ezberdintasun hori, azken horiek Elizarekiko atxikimendu ideologikoak gain hierarkiaren mendekotasuna izatean zetza. ELAK hori kritikatu zuen, “enpresarien tresna” gisa ikusi zituztelako. MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbao, 1992, 161-162. or.



1917ko grebaren kontrako errepresioa handia izan zen, Gipuzkoan guda-egoera ere ezarri baitzen. Argazkian Guardia Zibilaren konpainia bat fabrika haundian. (Argazkiak: FL/MG, 61. eta 64. or.)

Lasa idazkari zela¹⁶⁰. Egile horrek berak ere aipatzen ditu, esanez, 1919an sortutako Beasaingo Langileen Elkarketak, Eugenio De Pedro lehendakari eta Joan Urbina idazkari zituela, eta Beasaingo Metalurgiako Sindikatuak, berriz, Nicolas Urbistondo zuela buru eta 1921ean Gipuzkoako Metalurgia Sindikatuan sartu zela. Antza denez, azken bi horiek sozialistekin edota UGTrekin harremana izan zuten (sozialistena baitzen Beasaingo langile-talderik indartsuena).

1918an eta 1919an gora egin zuen asaldurak Gipuzkoan, baina Beasainen ez ordea hainbeste. Beasainen egoera nahiko lasaia izateko arrazoia hauek izan ziren Elena Legorbururen arabera, alde batetik enpresak kontsumo-kooperatiban hobekuntzak egitea (1918tik aurrera, lokal berria zabaltzeaz gain, haragia saltzen ere hasi ziren bertain) eta baita lanegunak murriztea ere: 1919an 9 orduko laneguna jarri zen, eta 1923an 8koa, Gipuzkoan aitzindarietako bihurtuz. Kontuan hartu behar dugu halaber, lehen aipatutako soldatua-igoerak egin zirela eta txikiak izan arren ere, nolabait, hobekuntza horiek, langileen egoera hobetzen lagundu zutela¹⁶¹. Jose Gabriel Zurbanok 1920ko maiatzean eta ekainean greba-mugimenduak sumatu zirela dio, baina arlo politikoan kokatuak eta berme konstituzionalak bertan behera uztearen kontrako mugimenduak izan zirela aipatzen du¹⁶². Urte hartako Maiatzaren Lehenean izan zen Beasainen lehenengo aldia Udal Musika Bandak¹⁶³ eta abertzaleek, bai EAJk zein ELAK, parte hartu zutena¹⁶⁴.

¹⁶⁰ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 71. or.

¹⁶¹ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 68-70. or.

¹⁶² ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 121. or.

¹⁶³ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 121. or.

¹⁶⁴ LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 46-47. or.

or.

2.- 1917- (Documento) Actas de la Junta directiva del Sindicato de oficios varios de Beasain de la UGT, organizadora de la Huelga General Revolucionaria de Agosto de 1917. La práctica totalidad de los obreros de la CAF, unos 1.500, y de los ferroviarios e industrias menores secundaron el paro, convocado por la UGT y el PSOE. SOV (ELA), secundó la huelga los primeros días. Mas de la mitad de la plantilla de CAF se mantuvieron firmes en huelga entre los días 13 y 25 de agosto de 1917. Beasain y Eibar fueron las dos localidades en que la huelga tuvo mayor repercusión.

UGTren Beasaingo eta Ordiziako
zuzendaritza, 1917 inguruan.
(Beasaingo PSOEk utzitako agiria)


Urte haien, oso urte oparoak izan ziren langile-militantziarentzat; 1919-21 biurtekoan, adibidez, Donostian, sindikatutako langileak, 699 izatetik 4.053 izatera pasa ziren; Gipuzkoako Metalurgiako Langileen Sindikatuak, 1920ko ekainean, 1.659 langile sindikatu zituen eta Euskal Herriko Papergintzako Langileen Sindikatuak, Tolosan 1919an sortuak, 1921eko urtarilean 2.492 langile zituen¹⁶⁵. Beasaingo fabrikan lanegunaren orduak murritzearazten zirenean, Euskal Herrian, izan ere, 1919a eta 1920a urte oparoak izan baitziren akordioetarako. Bizkaian adibidez, enpresa handi gehienetan zortzi orduko laneguna ezarri zen. Gipuzkoan halako neurriak jartzea pixka bat beranduxeago iritsi zen eta, adibidez, Bergarako oihalgintza-enpresetan hobekuntza horiek ezartzeari uko egingo zioten ugazabek, Gipuzkoa beste greba baten ertzean jarri zuten. Aldi berean, Pasaiako eta Errenterian gatazka indartsuak izan ziren 1919-1920 biurtekoan, baina Bizkaian egoera bare egon zen aldi hartan¹⁶⁶. Hala ere, Gipuzkoan enpresa batzuetan gauzatu ziren halako hobekuntzak eta hobekuntza haien egindakoetako bat Beasaingo fabrika izan zen; beste bat, Tolosako Papelera Española papergintza-enpresa garrantzitsua. Azken enpresa horretan Euskal Herriko Papergintzako Langileen Sindikatuarekin, De Francisco zuzendari sozialistaren ideiapean hitzarmen kolektibo bat sinatu zuten, non langileak ez botatzea, igoerak eta abar hitzematea eta Sindikatuei aintzatespen ofiziala ematea lortu zuten¹⁶⁷.

Primo de Riveraren Diktadurak kale-borrokok, eta beraz, langile-mobilizazioak apaltzea ekarri zuen hasiera batean, hori baitzen bere helburuetako bat. Primo de Riverak, langile-ordezkaritzaroko, "Enpresa Komite Parekideak" ezarri zituen 1926an, enpresariekin eta langileek, biek, ordezkarriak batak adina besteak izango zituzten komiteak. Sindikatu batzuek, UGTk adibidez, Diktadura harekin kolaboratu egin zuten, langileen aldeko neurri batzuek hartzeko aukera bezala ikusi zuten-eta. Hein batean, arlo batzuetan amore eman zuen, eta ezarritako ekonomia-protekzionismo berriak (Primo de Riveraren helburu

¹⁶⁵ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 400-401. or. Une berean, Bizkaiko UGT 1918ko uztailean 6.226 langile izatetik 1920an 18. 002 langile izatera pasa zen.

¹⁶⁶ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 403. or. Fusuren arabera, Bizkaian monarkikoak (oligarkiaren eta enpresarien ordezkarri politikoak) eta sozialistak (langileen ordezkarriak) hauteskundeetan fronte antinacionalista batean joateak hobekuntza horiek ezartzear ahalbideratzen zuten; ulermen hori politikatik lan-mundura pasatuta. Gipuzkoan ez sozialistak eta ez nazionalistak ziren hain indartsuak; batzuek ez zuten hainbesteko presio-indarrak eta besteak ez ziren "etsai nagusi" gisa hartzen halako koalizio bat justifikatzeko; hori zela-eta ez zen halako ulermen komunikatzen.

¹⁶⁷ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 407. or. Hala ere, itun hark ekarri zuen moderazioa ez zen guztiek onartua izan.



ekonomikoa kapitalismoa “espainiartzea” baitzen), nolabait ere langileen egoera aldi baterako baretza lortu zuen; eta hori greben beheraldiarekin garbi ikusten da, izan ere, Primo de Riveraren ekonomia-kontsentsutik at geratzen ziren indarrak ahal samarrak izaten ziren greba indartsuak antolatzeko (komunistak, anarkistak, ELA). Adibidez, Jose Antonio Egidok dioenez, komunistak 1927an Bizkaian greba bat egiteko gai izan ziren, baina Gipuzkoan, ahulagoak zirenez, ez zuten lortu¹⁶⁸. Noski, sakoneko kontraesan ekonomikoak puskatu gabe. Horrek ekarri zuen egoera okertzean, kontrako mugimenduak berriz ere suspectza eta azkenean Diktaduraren krisia 1930ean leherraraztea.

1.5 Mende-hasierako politika Beasainen

Industrializatzeak eta ekarri zuen gizarte-modernitateak, bai ordezkaritza-sistema eta baita jendearen komunitate-identifikazioa ere aldatzea ekarri zuten. Beraz, lehengo antolaketa-moduak desagertuz joan ziren, berriei tokia egiteko. Lehen ikusi dugu zer gertatu zen elkarteen kasuan, non kolektibitate berriak sortzen hasi ziren, zaharren ondoan edota haien ordezkatzuz, betiere testuinguru berri baten barruan. Politikari dagokionez, antzeko zerbait gertatu zen, ordezkapen-modu berriak sortu ziren, batez ere testuinguru berriari lotuta.

¹⁶⁸ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 32. or.

or.

Sistema foralaren pean, bozka-sistema “etxeko botoa” bazen ere, aukeratua izateko beharrezko zen ondasun higiezin jabe izatea (zerga hori ordaintzea). Lehen ere ikusi dugu baserritar hipotekatuek askotan euren lurak saldu egin behar izan zituztela (horrek jendearen nolabaiteko kaletartze edo fabrikan murgiltzeko prozesua lagundi zuela komentatu dugu); beste arazo bat, hautagai posibileen murriketa, eta beraz, herriko bizitza politikoa monopolizatzea izan zen: 1840an 79 “hautagai posible” zeuden Beasainen, eta 1860an 107, populazioaren %7a¹⁶⁹. Botere politikoaren eta lur-jabeen arteko (hots, ekoizpen-sistema zaharreko klase nagusien arteko) identifikazioa gertatu zen. Horrez gain, 1876an Bigarren Guda Karlista bukatu ostean, Berrezarkuntzaren garaian ezarritako “demokraziaren” sistema formalak, boterearen aldeko bi alderdiren arteko txandakatze-sistema (liberalak eta kontserbadoreak, biak monarkia parlamentarioaren aldekoak) bermatu egin zuen. Kontuan hartu behar da Gipuzkoan karlismoak, batez ere baserritarren aldetik, herri-babes handia izan zuela (parte batean, herri-lurren defentsagatik), eta bestetik, antzinako erregimenaren defendatzaleak eta erregimen hari lotutako ekoizpen-moduei atxikitako pertsonak ere (lur-jabe tradizionalak edota elizgizonak), sistema horren defendatzaleak zirela. Beraz, Berrezarkuntzako sistemak (nahiz eta 1890ean gizonezkoen sufragio “unibertsala” jarri Spainiako Estatuan¹⁷⁰ –emakumezkoen botoa 1931n onartu zen), botoa emateak eta aukeraketa egiteak eliteen eta jauntxoen esku jarraitzen zuen. Izan ere, 1890eko gizonezkoen sufragio “unibertsalaren”¹⁷¹ legeak eta geroagoko, 1907ko, lege berriak, ez zituzten hautagai izateko lehengo mugak kendu, eta beste alde batetik, bai probintziako Batzar Nagusietarako eta baita Spainiako Parlamenturako ere, aukeraketa izen bakarreko barrutien arabera egiteak, politika, lotura onak zituzten tokiko pertsona “eragindunen” esku uzten zuen. Mikel Aizpuru historialari goierritarraren arabera, “hautagaiek eta hautesleen kopuria txikia izateak, jauntxokeria lagundi zuten”¹⁷².

Industrializatzeak, jakina, gizartearen aldaketa mota bat eragin bazuen ere, klase sozial berriak agerrarazi zituen eta horietako asko sistema liberalari lotuak. Gogorarazi behar da, liberalismoa, bai Gipuzkoan eta baita Euskal Herrian ere, hiriei eta hiribilduei lotua zegoela gehienbat, merkataritzari lotutako klaseen bitarte. Beste alde batetik, 1876aren ostean, sistema egonkortu zenean, “boterearen alderdiak” tokiko jauntxoengan (ahal zuten neurrian) oinarritzen ziren, moduren batean karrera egiteko modu bat baitzen. Praktikan, Estatu liberal berriaren demokrazia-maila oso mugatua zen eta oligarkiaren pisua oso handia. Alderdi horiek, askotan erregimen berriaren politika liberalizatzaleen onuradun izan zitezkeen pertsonek babesten zituzten, adibidez, industria-enpresarieki, merkatariek eta abarrek; euren nagusitasun soziala erreformismo liberal apal batekin bilbatzen zuten. Bestalde, Berrezarkuntzak, ezaguna den bezala, Foruen indargabetzea edo deuseztapena ekarri zuen eta Itun edo Kontzertzeko Ekonomikoez ordeztu zituen. Hitzarmen Ekonomiko hori Estatuarekin aldzika-aldzika berritu beharra zegoenez gero, Aldundien paperak garrantzia hartu zuen, Udalen papera txikituz¹⁷³. Hala gertatu zen adibidez 1905eko Hitzarmenaren berrikuntzarekin, Hego Euskal Herrian, eta batez ere Gipuzkoan, foruen berrezarkuntzaren aldeko kanpaina batí bide eman baitzuten¹⁷⁴.

Horrek, botere-modu tradizionalarekin ika-mikak sortu zituen; Beasainen, antzinako lur-jabeen eta fabrikaren inguruko pertsonen artekoak, adibidez. Kasu horietako bat Frantzisko Goitia enpresariarena izan zen. Goitia XIX. mende bukaeran Udalean sartu zen, eta, harago joanik, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako aukeratua izan zen. Hala ere, garai hartako Beasaingo Udalaren eta Goitiaren arteko harremanak oso onak ez zirela frogatzen du 1888an Udalak Goitiari Beasaingo biziagun izaten jarraitu behar al zuen galdetu izanak¹⁷⁵. Lur-jabeen eta industria-jabeen arteko borroka azaleratzen eta arlo politikoan barneratzen hasi zen. Euskal Herria bezalako lurrardeetan, karlismoaren babes handia eta aldi berean industriaren gorakada handia aldi berean elkartu ziren tokian, hauteskundeetan, udaletakoetan zein foraldean batez ere, sistema liberalaren aldeko aldagai guztiak (Alderdi Liberala zein Alderdi Kontserbadorea Spainiako Gobernuan txandakatzen ziren sistemako alderdi “ofizialak” ziren eta, kasu batuetan, Tolosako hauteskunde-barrutian adibidez, baita errepublikanoak ere), bat egitera eramatzen zituen.

Gauzak horrela, eliteen arteko talka bizi izan zen (eliteen arteko talka izateak erakusten du askotan herria aparte samar zegoela; alderdien egoitzak berandu zabaldu izana ere kontuan hartu behar da, karlisten lokala 1907an zabaldu zen, eta

¹⁶⁹ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 13. or.

¹⁷⁰ 1868an egin zen gizonezkoen sufragio unibertsala jartzeko saikera bat, baina ez zuen iraun.

¹⁷¹ Emakumeen bozka ez zen 1931 urtera arte onartu, horregatik, ezin dugu benetako sufragio unibertsalaz hitz egin.

¹⁷² AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 39. or.

¹⁷³ CASTELLS, Luis: *Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración. 1876-1915*. Siglo XXI. Madrid, 1987, 225-226. or.

¹⁷⁴ Hego Euskal Herriko orduko ia alderdi denek bat egin zuten Foruak berrezartzeko kanpainarekin, hala ere euren arteko batasunak gutxi iraun zuen eta hori zela-eta kanpaina hark ez zuen arrakastarik izan. Aipatzeko da Gipuzkoan alderdi nagusiek Foruen Liga sortu zutela 1905ean hauteskundeetara batera joateko.

¹⁷⁵ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 128. or.



Argiñano, Iturrioz eta beste pilotari batzuk bigantxa-txuliatzaile kapota eta guzti. (Argazkia: Aranzadiren argazki-bildumakoa)

liberalena 1918an¹⁷⁶). Ez da harrigarria, Beasainen, liberalen indarren oinarria CAF inguruan egotea, hori baitzen ekoizpen-modu berrien, empresa-kapitalismoaren, gunea. Hori izan zen karlisten kontrako deman liberalen babestokia. Goitia, talde liberal eta errepublikanoetan bolo-bolo sartu zen. Hala, Unai Belaustegi, Berrezarkuntza garaiko mugimendu errepublikanoan aditua den historialariaren arabera, Frantzisko Goitia errepublikanoen ordezkari gisa agertu zen Goierri-Tolosaldea barrutian¹⁷⁷. Frantzisko Goitia, Beasaingo fabrikako akziodun nagusi gisa eta Beasaingo errepublikanoen buru gisa, liberal monarkiko edo “ofizialistekin” (Berrezarkuntza-sistemaren aldekoekin) koalizioa egitearen aldekoa izan zen, beraz, hala, liberalen esku egon zen Beasaingo Udala mende-hasiera hartan (hor kontuan hartu behar dugu Frantzisko Goitia FVBko handiki nagusia errepublikanoa zela, eta beste alde batetik Jose Orueta zuzendaria “kidetzarik gabeko liberala”, eta horrek bien harreman ona ziurtatzen zuela). Hala ere, hauteskunde batzuetan irabazi arren, adibidez Gipuzkoako Aldundirako 1882ko hauteskundeetan, 1891n eta 1893an galdu egin zuen karlisten kontra¹⁷⁸. Aldiz, etxeko hauteskundeak, 1900etik aurrera batez ere, liberalentzat hobeak izan ziren, ezen mende-hasierako alkate denak liberalak izan ziren. Esan bezala, badirudi Beasainen mota guztietako liberalen arteko koalizioak egin zirela (bai Gobernuaren aldeko liberal monarkikoek zein errepublikanoek eginak). Izan ere, nahiz eta Estatu motarekiko ezberdintasun handiak izan, beste balio batzuen inguruan antzekotasun handiak zituzten. Horren adibide dugu 1922 eta 1923 artean Beasaingo alkate Jazinto Urteaga izatea, gero 1931n berriz alkatetza “errepublikano” moduan lortu zuena.

Karlistak ere antolatzen hasi ziren. Esan bezala 1907an Elkarte Tradizionalista ireki zen Beasainen, Santiago Elizegi beren lehendakari izanik. Zirkulu horrek, ikusiko dugun bezala, garantzi handia izan zuen 1936ko gertaeretan. Kontatu dugun bezala, Beasain sartua zen Tolosako barrutian karlistak ziren nagusi, baina Beasain bera herri zaila zen karlistentzat. Ikusten ari garen bezala, XX. mende-hasieran, Udala liberalen aldagai ezberdinien esku egon zen. Karlistentzat, Tolosako hauteskunde-barrutia (Aldundirako zein Espainiako Parlamenturako hauteskundeetan) gotorleku bat izan zen arren, Beasaingo Udalean oposizioan egon ziren urte luzez.

Beasainen, indartsua izan zen beste alderdi bat errepublikanoena izan zen. Alderdi hori, XIX. mendeko “Seiurteko Demokratikoa” delakoan zehar (1868-1874) sortu zen Gipuzkoan, orduan izan baitzen Espainiako Lehen Errepublika (1873-74). Errepublikanoek, liberal ofizialistekin komunean zituzten ondorengo ezaugarriak: erregimen politiko-sozial berria (ordezkartz-demokrazia) eta “aurrerapena”, hots, industria-gizartea, merkataritza, jabetza pribatua, laikotasuna eta karlismoarekiko aurkakotasuna. Oro har, liberalismoaren aldekoak ziren, baina Estatua antolatzeko sistema gisa, Errepublika defendatzen zuten, izan ere, errepublika, demokraziaren eta askatasunaren forma gorena zela irizten baitzuten. Hala ere, Berrezarkuntza

¹⁷⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 18. or.

¹⁷⁷ BELAUSTEGI BEDIALUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014.

¹⁷⁸ ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 129-130. or.

or.

garaian, Gipuzkoan, hiri industrialetan batez ere, guneak osatu bazituen ere, ez zen oso alderdi indartsua izan. Alderdi hori barne-zatiketaren mendeko izan zen, izan ere, alderdi bateratu bat baino gehiago, hainbat alderdi errepublikano izan ziren, euren arteko batuketak eta zatiketak tarteko zirela. Beraz, agian, alderdi batez baino gehiago "joera" batez hitz egin beharko genuke. Izan ere, errepublikanismoa Gipuzkoan, hainbat aferarengatik zatituta ibili zen mugimendu errepublikarra, batzuek, balio liberalak lehenetsiz, erregimen hori, karlismoa atzean uzteko eta askatasun politiko liberalak garatzeko aukera bezala ikusi zuten; baina beste batzuek, ordea, errepublikanismoa lehenetsiz, erregimen monarkikoa zelako, jomugan ezarri behar zen helburu moduan ikusi zuten. Berrezarkuntzako erregimenaren aurreko jarreragatik, aliantza politikoan inguruan (sozialistak, liberalak, jeltzaleak; denak izan ziren nolabait errepublikanismoaren alde edo pertsonaiaren batek tentatuak eta besteren batek arbuiatuak), foruekiko edo autonomiaren inguruan (federalak, antzinako euskal foruak autonomia zabal baten markoa gaurkotzearen aldekoak, etab.), demokraziaren ikur bezala ikusten zutenak alde batean egon ziren eta normalean Berrezarkuntzaren erregimenetsai nagusitzat hartu zuten, errepublikanismoaren barruan alderik erradikalenarekin batuz; eta beste aldean, berriz, zentralistak kokatu ziren, euskal lurralteak liberal bihurtzeko aukera bakar bezala Estatu zentralista bat izatea ikusten zutenak, liberal ofizialistekin eta Gobernuarekin elkartzearen aldekoago joera zutenak: dena dela, Euskal Herrian, ikusiko dugun bezala, foralismoa hain errouta zegoen, ezen errepublikanoen barruan ere foruzaletasuna ez zela soilik talde federalaren ondare, tarteko talde errepublikanoek eta abarrek ere foruzaletasunarekin bat egiteko joera izan zuten. Izan ere, errepublikanismoa oro har, erdi-mailako klaseko eta izaera liberaleko pertsonen alderdia izan zen, eta erdi-mailako klase horiek, gehienetan, errepublikanismoak proposatzen zuen beste eraldaketa-prozesu batean sartu baino nahiago zuten klase gisa euren oparotasuna bermatzen zuen erregimen monarkikoaren alde paratu. Unai Belaustegi Bedialauneta, arlo edo atal honetan aditua den historialariaren arabera, gipuzkoar errepublikanoen artean nolabaiteko kohesioa, Benito Jamarrek¹⁷⁹ sortutako *La Voz de Guipúzcoa* egunkari donostiarak mantendu zuen, egunkari hori izan baitzen errepublikanoen benetako erreferentzia¹⁸⁰. Hala ere, Berrezarkuntza-sistemak aurrera egin ahala, eta monarkiarekiko etsai izango ziren indar berriak agertzeak, errepublikanismoari toki edo espazio politikoa kendu egin zion, eta pixkanaka, Gipuzkoan zuten garrantzia, XX. mende-hasieran goia jotakoa, murritzuz joan zen¹⁸¹.

Errepublikanismoak Gipuzkoan hainbat etapa bizi izan zituen. Alde batetik, mende-bukaeran, liberalengana hurbildu zen, izan ere, Sagastaren gobernuak 1890ean gizonezkoen sufragio "unibertsala" ezartzeak, nolabaiteko itxaropena eman zien demokratizatzeko aukerak bazeudela-eta; ez, ordea, barne-tirabirarik izan gabe¹⁸². Hala ere, sufragio "unibertsalak" ez erregimen demokratizatzeko eta ez benetako parte-hartze politikoa sustatzeko, ez zuela balio ikusita, koalizioa hautsi egin zen, eta baita errepublikanoen barneko batasuna ere. Hortik aurrera, errepublikanoak hainbat batasun-saiakera egiten saiatu ziren, adibidez, mende aldaketan zehar, *Union Republicana* alderdiaren saiakera egin zen¹⁸³. 1907an autonomiaren programarekin bat Foru Liga (*Liga Foral*) sortu zuten, eta 1907tik 1914ra¹⁸⁴, sozialistekin koalizioan joaten saiatu ziren¹⁸⁵; eta 1917-1919 arteko kanpaina autonomistaren zehar, barne-ñabardura handiekin, eta jeltzaleekin tirabira handiak izanda, autonomismoaren alde egin zuten¹⁸⁶.

Unai Belaustegik komentatzen duenaren arabera, errepublikanoen barruan, Frantzisko Goitia beasaindarra federalen joeratik gertu ibili zen, nahiz eta berez oso errepublikano erradikala ez izan (Beasainen liberal monarkikoekin itunak egiteak hori ziurtatzen du). Oso goiz hasi zen Gipuzkoako errepublikanoen artean nabarmentzen, 1883an Tolosako barrutitik Gipuzkoako Aldundirako hautatua izan baitzen (liberalekin koalizioan)¹⁸⁷. Esan bezala, Goitia 1890ean aurkeztu zen Tolosako hauteskunde-barrutian parlamenturako hautagai gisa, baina hauteskundeak galdu egin zituen. Halere, aurkezte horrek erakusten digu zein izan zen beasaindarraren papera politikan¹⁸⁸. 1983an berriz aurkeztu zen Goitia Parlamenturako, Tolosako hauteskunde-barrutian eta gizartearen aurrerapena (industriaren eta hezkuntzaren bidez) eta alderdi errepublikanoaren euskaltzaletasuna defendatu zituen, ez zela alderdi politiko espanyiarraren sukutsala eta foru-berrezarkuntza defendatzen zuela esanez. Berriz ere porrot egin zuen¹⁸⁹. Hala ere, mende-aldaketarekin, Goierriko errepublikanismoa hazten hasi zen eta, 1901ean, Beasainetxe gain, Ordizian ere

¹⁷⁹ Berau ere, Maquinista Guipuzcoana enpresaren akzioduna izan zen: LEGORBURU FAUS, Elena: "Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia. (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 28. or.

¹⁸⁰ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 368. or.

¹⁸¹ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 367. or.

¹⁸² BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 114-134. or.

¹⁸³ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 220-231. or.

¹⁸⁴ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 231-236. or.

¹⁸⁵ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 269-286. or.

¹⁸⁶ MEES, Lodger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 246-249. or.

¹⁸⁷ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 93. or.

¹⁸⁸ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 155. or

¹⁸⁹ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 207. or.

ordezkaritza izan zuten errepublikanoek¹⁹⁰ (azken herri horren aipamena eginez, esan beharra dugu Ordizian urte luzez izan zela zinegotzi Joan Usabiaga Laskibar, II. Errepublika garaian diputatu izan zena. Gainera, kontuan hartu behar da Ordizian kasino errepublikanoa ere egon zela).

Lehen esan bezala, nahiz eta errepublikano federalak errepublikanoen barruan erradikalenak eta liberalekin konpromisoak hartzearen aurkakoenak, izan, Euskal Herriko errepublikanoen artean, autonomiaren inguruko tesiak talde errepublikazale guztien artean nagusi izan ziren, berez talde errepublikanotik at egon arren. Belaustegik esaten duen bezala, "praktikan Euskal Herriko errepublikano gehienak federalak ziren, beste aukerarik ez zutelako (foruen deuseztapena zela-eta) eta euren kosmogoniarekin hobekien zetorren alderdia huraxe zelako"¹⁹¹, baina horrek ez zuen esan nahi talde federalaren teoria guztiek bat egiten zutenik¹⁹². Horrez gain, Foruak antolaketa demokratiko baten eredu gisa ikusten ziren. Horren eredu dugu hain zuzen, Frantzisko Goitia Ostolaza beasaindarraren *Autonomía Mundial* liburua, 1907an prentsa errepublikanoak kaleratua¹⁹³. Bertan, Goitiak defendatzen zituen ideiak, Estatu ezberdinako desentralizazio- eta autogobernu-kasu ezberdinei buruz ondo dokumentatu ostean, bere ikuspuntuak berretsiz adierazi zituen: Euskal Herriko nortasuna defendatzea, ahalik eta autonomismo handiena defendatzea eta berezitasun historikoak defendatzea, baina hori bai, beti ere Espaniaren barruan, independentziaren alde egin gabe. Aurretik, *La Región Vasca* egunkarian, Goitiak berak idatzi zuen "autonomia herrien berebiziko egoera zela"¹⁹⁴. Ideia horiek ez ziren batere berriak gipuzkoar errepublikanismoaren barruan eta beste buruzagi bat ere, Frantzisko Gascue, *El Bizkaitarrismo* liburuan¹⁹⁵, euskal nazionalismoa aztertzen saiatu zen, eta errepublikanismoaren programa honekiko alderatzen. Gascuek berriz ere, autonomia federala eta Euskal Herriaren berezko pertsonalitatea defendatzen zituen baina ez zuen independentzia defendatzen. Eta areago adierazi zuen oraindik, *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren fundatzaile eta Beasaingo fabrikako akziodun zen Benito Jamarrek, 1894an Foruak "gure arbasoengandik jaso dugun altxor sakratura dira, gure seme-alabei ahalik eta osoen ondaretan utzi behar dizkiegunak (...) herri baten izaera berezia mamitzent duten askatasun eta eskubideak, gorputzen duten ideia, sentimendu, ohitura eta erakunde sorta biltzen dituztenak (...) euskal izaera mantentzeko modu bakarra (...) Foruak ezabatzu gero, ehun urte ostean ez da euskalduntasunaren arrastorik ere geldituko". Hala ere, Jamarrek berak ere argi utzi zuen Foruak ez zirela independentziarako urrats bat edota Espaniaren apurtzeko justifikazio bat; errepublikanoengan foruak zentzu autonomistan irakurtzen ziren eta ez zentzu independentistan¹⁹⁶. Benito Jamarrek foruzaletasuna derrigor Errepublikanoekin lotzen zuen, monarkia izan baitzen Foruak desagerrarazi zituena, antzinako "antolaketa demokratikoa" deseginez. 1885ean bere egunkarian idatzi zuen *La Cuestión Vascongada* artikulu sortan¹⁹⁷, "foruzalea izateak *Canovas-zaleen* edo *canovisten*"¹⁹⁸ etsai izatea dakar, horiek ere foruzale gisa definitzen diren arren (...) Euren alderdia ezin kaltegarriagoa da herri euskaldunarentzat" esan zuen. "1876ko uztailaren 21eko legeak euskal probintziek zituzten eskubideak urratu zituen (...) Ez dago lege horren aurka protestatu ez duen euskaldunik"¹⁹⁹.

Halako ikuspegiak ez ziren soilik buruzagi edota pertsonalitate ospetsu batzuen ideiak: mende berria hasi zenean, Gipuzkoako taldeen arteko birbatze-saiakerako programetan honako hau jartzen zen: "foruak oinarri zituen autonomiaren lorpena" helburu gisa²⁰⁰. Belaustegiren arabera, errepublikanismoaren eta nazionalismoaren artean, batez ere alde moderatuko nazionalismo

¹⁹⁰ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 268-269. or.

¹⁹¹ Hala ere, Ludger Meesen zein Joan Pablo Fusiren arabera, errepublikanismoaren euskaltzaletasun edo foruzaletasun hori Gipuzkoan Bizkaian baino handiagoa izan zen. Meesek horretarako ematen duen arrazoia, Bizkaiko errepublikarren erreferentzia zen *El Liberal* egunkaria, Gipuzkoako *La Voz de Guipúzcoa* baino zentralistagoa izatean zetzen. MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 248. or. Fusiren arabera ordea, Euzko Alderdi Jeltzalea garai horretan Bizkaian indartsu baina Gipuzkoan ahal izatea izan zen arrazoia; Gipuzkoan lehiakide ez zenez, harenkeko ezberdintzeo saiakerarik egin behar ez zelako, eta Euskal Herri autonomo edo forala jeltzale "klerikal" esku geratzeko beldurrik ez zegoelako. FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 343. or. Fusiren arabera, Bizkaiko errepublikarrek 1912an sartu zuten zalantzak gabeko foruzaletasuna euren programan lehen aldiz. FUSI, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner, Madril, 1979, 41-44. or.

¹⁹² BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 72. or.

¹⁹³ GOITIA OSTOLAZA, Francisco: *Autonomía Mundial. Concepto moderno de la autonomía y su aplicación a las regiones españolas*. Librería Científico-Literaria de Jose Agustí. Bartzelona, 1907.

¹⁹⁴ Egunkari horretako zuzendarriak, Antonio Cullarék, 1906an "Espaniaren barruan, nazionalitate bakoitzak bere arazoak bere eraera konpondu behar ditu (...) Euskal Herria ezin da herrialde honetako ohiturak eta hizkuntza ezagutzen ez dituzten Madrilidik bidalitako gobernadoreek gobernatura izan" esan zuen. BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 234-235. or.

¹⁹⁵ GASCUE, Francisco: *El bizkaitarrismo*. Imprenta y encuadernación de Francisco Jornet. Donostia, 1904.

¹⁹⁶ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 215-216. or.

¹⁹⁷ Gero liburu bezala atera zen: JAMAR DOMENECH, Benito: *La Cuestión Vascongada*. Imprenta de La Voz de Guipúzcoa. Donostia, 1891. Horri buruzko erreferentzia gehiago, BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 163. or.

¹⁹⁸ Antonio Canovas del Castillo Berrezarkuntzako erregimenaren arkitekto nagusia izan zen, hainbat aldiz Espaniako Gobernuburu, Espaniako Alderdi Kontserbadoreko burua eta baita Foruen ezabapenaren legea sinatu zuena ere.

¹⁹⁹ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 163. or.

²⁰⁰ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 222. or. 1902an errepublikanoek, beren alderdiari "autonomista" abizena ere jarri zioten.

or.

moderatuaren artean, antzekotasun handiak zeuden nazio-arazoari zegokionez, baina ez hainbeste erlilioari zegokionez²⁰¹. Hala ere, Mikel Aizpuruk komentatzen duenaren arabera, doktrina-hurbiltasun horrek ez zuen ekarri eguneroko ekintza politikoaren arloan, bi alderdietako kideen arteko hurbiltzerik²⁰². Gauzak hala, ez da arraroa Gipuzkoako errepublikanoak eta euren artean Frantzisko Goitia Ostolaza beasaindarra 1904ko azaroan sortu zen Foru Ligaren bultzatzaile nagusien artean egotea. Liga hori, foruen defentsan egindako koalizio zabala izan zen, errepublikanez gain karlistak ere batu zituena²⁰³. Foru Ligaren indarra ulertzeko, 1905ean Bartzelonan sortu zen *Solidaritat Catalana* koalizio autonomista (katalan prentsaren aurka militarrek eginiko eraso bati erantzuteko premiaz sortutakoa) hartu behar dugu kontuan, Kataluniako autonomia-nahiaren haizeak Euskal Herrira ere iritsi baitziren. Foru Ligak 1905eko haueskundeetan Gipuzkoan erabateko arrakasta izan zuen²⁰⁴, baina anitzasun ideologiko handia zela bide, segituan desegin zen, errepublikanoen ahalegin autonomista eta foralistaren lekuko historiko izan bazen ere. Hala ere, errepublikanismoak iritzi autonomista sendoak 1917-1919 arteko kanpaina autonomistaren zehar berriro agertu ziren, Gipuzkoako foru-mitinetan parte hartu zutenean²⁰⁵.

Pixkanaka-pixkanaka, nahiz eta artean indar gehiegirik ez izan, alderdi berriak ere agertzen hasi ziren, gerora, II. Errepublikan batez ere, indar handia izango zutenak eta Gipuzkoako zein Euskal Herriko indarrik handienak izatera iritsiko zirenak. Hala ere, Berrezarkuntzaren sistemak kanpoan utzi zituen, “oposizioko” alderdi gisa. Bi alderdi horiek, ikusiko dugun moduan, oso zail izan zuten sistema horretan jokatzea, eta euren papera sistematik at zeuden taldeak ordezkatzea izan zen. Horrela, alderdi horiek, boterearen ohiko harremanetatik at, eta aldi berean, herri-klaseen defentsa beren egiten zutela, masen politizazioa bultzatu zuten, horrela, masak politikara hurbilduz eta jauntxo-sistemaren ahultzea ekarriz. Beraz, XX. mendearen hasierako lehen herenean, alderdi horien presioa ezinbestekoa izan zen bizitza politikoan demokratizazioa pixkanaka zabaltzen joan zedin. Horrek azaltzen du, alegia, sistema gehiago demokratizaterakoan, 1931n II. Errepublika iristean, alderdi horiek hain indartsu agertu izana. Mugimendu handiko bi alderdi horiek, Euzko Alderdi Jeltzalea (EAJ-PNV) eta *Partido Socialista Obrero Español* edo PSOE (Espainiako Langileen Alderdi Sozialista) izan ziren.

Abertzaleei buruz, informazio handiagoa dugu, izan ere, hor dago Miren Barandiaranek Beasaingo EAJri buruz ateratako liburua. Beasainen 1908an antolatu ziren, Lazkaon antolatu eta urtebete geroago (sortzaileen taldean egon zen Viktoriano Oñatibia, gero guda zibil garaian erail zutena)²⁰⁶. Batzokia urte hartako azaroaren 22an sortu zuten. Hala ere kontuan izan behar da batzokia jeltzaleen topaleku bazeen ere, ez zirela gauza bera batzokia eta alderdia eta bi errealitate juridiko ezberdin gisa funtzionatu zuten, gutxienez ere 1936ko gudara arte (bakoitzak bere zuzendaritza propioa izan zuen). Lehen urteetan, batzokia askotan aldatu zen tokiz, izan ere, ez zuen toki finko bat izan eta betiere Kale Nagusiko eta Kale Berriko (gaur egungo Iturriozt kalea) etxebizitza ezberdinetan kokatuz, nahiz eta EAJren asmoa, Iursail bat erosi eta bertan eraikin oso bat izatea izan (noski, afiliazioa handitzeak horretan lagundi zuen, eta 1915erako 80 bazkide bazituen Beasaingo Batzokiak), baina Errepublika garaira arte ez zuen asmoa betetzerik izan²⁰⁷. Esan bezala, batzokiak orduan, alderdiarekiko errealitate ezberdinak izanik, alderdiaren topaleku gisa funtzionatzeaz gain, beste ekitaldi batzueta rako balio izaten zuen, batez ere euskal kulturaren arloko ekitaldiak egiteko; adibidez, euskal antzerki-taldea eta euskal dantza-taldea zeuden Beasainen²⁰⁸. Kontuan hartu behar dugu halaber, euskararen egoera txarra kontuan hartuta, batzokitik ere euskarari bultzada ematea pentsatu zela: 1915ean euskarako klaseak emateko “Euzkel Eskola” bat sortu bide zen batzokiaren ekinenez, ume batzuei eskola emateko eta aipatzen denez Anastasia Aiestaranek zuzendua izan zen (hurrengo urtean EGI euskara erabiltzearen aldeko kanpainarako diru-bilketa egiten hasi zen)²⁰⁹. Jose Zufiaurrek aipatzen duenez, 1917ko uztailaren 27an Udalari subentzio-eskaera bat egin zion beasaindarralde batek (Eusebio Aranburuk, Markos Arrillagak, Agapito Zumaetak, Viktoriano Oñatibiak –gudan fusilatua izan zen-, Fernando

²⁰¹ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 266-269. or. Aipatu daitetako beste ezberdinatasun bat, errepublikanoen foruzaletasunak 1876an deuseztatutako foruak itzularaztea zuela helburu; abertzetasunaren foruzaletasunak, aldiz, 1839an deuseztatutako foruak itzularaztea.

²⁰² AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 210-212. or.

²⁰³ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 226-230. or.; eta CASTELLS ARTECHE, Luis: *Los Fueros y los conciertos económicos. La Liga Foral Autonomista de Guipúzcoa (1904-1906)*. Haranburu Altuna editorea. Donostia, 1980, 124. or. Belaustegiren arabera Foru Ligaren sorrerak, batez ere 1905eko hasierarako Tolosan deitutako mitinak eztabaideak piztu zituen errepublikar artean, nahiz eta gehiengoak Foru Ligaren alde egin.

²⁰⁴ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 274. or.


²⁰⁵ BELAUSTEGI BEDIALAUNETA, Unai: *Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923)*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2014, 361. or.

²⁰⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 21. or.

²⁰⁷ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 22-26. or.

²⁰⁸ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 28-35. or.

²⁰⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 33-35. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 97. or.; eta *Euzkadi*, 1916-05-28. Azken iturri honetan aipatzen da “umeentzako ikastola” bat zela.



Argazki honetan, 1912an batzokiak zuen lokala agertzen da, jada jeltzaileen koloreekin. Kale Nagusian kokatuta egon zen batzokia. (Argazkiak: FL/MG, 41. or.)

Gaztañagak eta izena soilik agertzen den seigarren batek) "Kale Nagusiko 33. zenbakian, 3. solairuan dagoen Euskal Eskolari laguntzeko, herriari eta gure hizkuntzari on egingo diolako". Hala ere, 1917ko abuztuaren 7ko osoko bilkuran, Udalak ukatu egin zuen laguntza ematea ("eskola klandestino" deitu zuen erabaki-agirian, beraz, pentsatzen dugu garaiko legezkotasunetik at zegoela eskola hura), Anastasia Aiestaranek hartarako behar zen titulurik ez zeukala argudiatuta²¹⁰. Gure ustez, litekeena da, Miren Barandiaranek aipatu bezalaxe 1915ean sortua izatea, eta lehen urteetan subentziorik gabe funtzionatzea, baina 1917an subentzioa eskatzea (agian eskola horren zaitasun ekonomikoak medio). Ez dakigu noiz arte iraun zuen, baina gerora azaldutako aipamen urri batzuk tarteko, laguntza ukatu izateak ikastola-saiakera haren desagerpenean eragina izan zuela pentsa dezakegu.

Kontuan harta behar da, garai hartan EAJk, alderdi soil gisa jokatu baino "euskal komunitatea" berregiteko (aisialdia, erlijio-gaiak, bizitza zibila euskalduntzeko edota euskal ohiturak berreskuratzeko) ekintza-lana ere egiten zuela. Lehen aro honetan, Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, "alderdi moduan baino gehiago, mugimendu sozial gisa jokatzen zuen"²¹¹.

Egia esan, alderdi hori, eta baita sozialistak ere, Bizkaian sortu eta Gipuzkoan baino lehenago hasi zen jardunean. Gipuzkoako lehen taldeak 1904an agertu ziren, Donostia Centro Vasco delakoaren bidez, eta 1905ean eta 1907an Gipuzkoako hainbat tokitara zabaldu ziren. 1908an lehen Gipuzko Buru Batzarra sortu zen, Zumarragan eta Beasaingo ordezkaritza ere bertan izan zen²¹². 1919rako Gipuzkoako 22 herritan zeuden EAJren taldeak, baina zortzik soilik zuten Uri Buru Batzarra (UBB sortzeko hamar kide behar ziren herrian). 1905ean lortu zituen EAJk bere Gipuzkoako lehen zinegotziak, Deban eta Zumaian

²¹⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Irakaskuntza Beasainen*. (Beasaingo Paperak bildumako 23. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 2015, 116-117. or.

²¹¹ RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Kuxaren Fundazio Kulturala. Donostia, 1994, 60-98. or.

²¹² AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 56. eta 172. or.; 32 herrietako ordezkaritza izan zen bertan; Zumarragan, beasaindarrez gain, ataundarak, itsasondoarrak, lazkaotarrak eta ormaiztegiarrak ere agertu ziren.

or.



EAJko abertzale batzuk eta beren lagunak Astigarragan, 1922 inguruan. (Argazkia: Beasaingo Batzokiko argazki-bildumakoa)



EAJko abertzale batzuk eta beren lagunak Garinen, 1922. urtean. (Argazkia: JZG, 114. or.)

hain zuen ere, eta 1913an kopurua 13ra handitu zen. Hala ere, Ludger Meesen arabera, 1914rako, jada jeltzaleak indar antolatua ziren Gipuzkoan, batez ere Engrazio Arantzadi "Kizkitza" buruzagiaren antolakuntza-gaitasunari esker, eta laster ikusi zen hori hauteskunde-emaitzetan²¹³. Ludger Meesen arabera, zailagoa izan zen Araban eta Nafarroan hedatzea, lurralte horietan antzinako eliteen boterea, bi herrialde industrialetan ez bezala, higatu ez zelako. Lehen urteetan, Euzko Alderdi Jeltzaleak Gipuzkoan bere espazio propioa lortzeari ekin zion eta hori zela bide, lehen aipatutako Foru Liga koalizio autonomistaren sartzeari uko egin zioten²¹⁴. Gipuzkoako Batzar Nagusietarako lehen diputatua 1915ean lortu zuten (Migel Urreta Donostiariko hauteskunde-barrutian aukeratua izanik, karlistekin eta kontserbadoreekin koalizioan)²¹⁵, eta 1918an lehen aldiz Gipuzkoan Spainiako Parlamenturako diputatu bat lortu zuten Bergarako hauteskunde-barrutian²¹⁶ (kontuan izan behar da Beasain eta Goierri osoa Tolosako hauteskunde-barrutian sartuta zeudela). Izan ere, EAJk ondo jakin izan zuen 1917-1919 arteko uholde autonomistari etekina ateratzen, eta beste arrakasten artean, Gipuzkoan zein Nafarroan Madrilgo Parlamenturako bere lehen diputatuak lortu zituen, Bizkaian sei diputatutatik bost eta Bizkaiko Aldundia lortzeaz gainera. Mikel Aizpururen arabera, alderdi horren militantzia gipuzkoarra, batez ere klase herrikoietakoia izan zen, langileak, baserritarra eta burgesia txikia (dendarriak, merkatari apalak, artisauak), jeltzaleen militantziaren gehiengoa izan ziren²¹⁷. Horrek azal dezake, garai haietan EAJk, ideologiaz kontserbadorea izan arren, orduko erregimenaren aurka zergatik jarduten zuen. Aizpuruk berak dio, 1910az aurreko militantzia jeltzalea, batez ere Alderdi Karlistatik eratorria izan zela, baina urte horretatik aurrera "politikoki berriak" ziren kideak bereganatu zituela EAJk²¹⁸.

Euzko Alderdi Jeltzalea hasiera baten hain ahula izanik (Alderdi horretan bi jauzi handi gertatu ziren: lehena 1910eko hamarkadaren bukaeran, Bizkaiko Aldundia kontrolatzera iritsi zirenean eta, bigarrena, II. Errepublika jartzean), koalizioak egitera behartua gertatu zen, ordezkaritza lortu nahi izateketan behintzat. Barandiaranen arabera, EAJk 1909 eta 1917 artean koalizioak egin behar izan zituen, bai herrialdeko Batzar Nagusietarako, bai Spainiako Parlamenturako eta baita Udal-hauteskundeetarako ere. 1918ko Spainiako Parlamenturako hauteskundeetan, *Comunión Nacionalista Vasca* alderdia bere aldetik joan zen eta Bergaran aipatutako diputatua lortu zuen. 1911n Pedro Laskibar aurkeztu zuen Beasainen eta 197 boto lortu zituen. 1918an diputatua lortu zutenean, Beasainen Jose Maria Lardizabalek (bakarrik aurkeztu zen) 244 boto lortu zituen (%41,42), eta gutxigatik gelditu zen aukeratua izan gabe (une hori izan zen EAJren momenturik onena). 1923an, berriz, jeltzaleen eta jaimisten arteko koalizio batek Tolosako barrutian diputatua lortu zuen. Udal-hauteskundeetan, EAJk ere koalizioak egiten zituen askotan, izan ere, 1907ko legea zela-eta, bakarrik aurkeztea zaila izaten zen. Iturri batzuen arabera, EAJk bere lehen zinegotzia 1909an lortu zuen, Joan Olabe Agirrezabal, baina beste iturri batzuen arabera, pertsona hori independentea zen²¹⁹ (hauteskunde horiek, Miren Barandiaranen arabera, errepublikanoek irabazi zitzuten). Hala ere, Beasaingo Udalean liberal-talde ezberdinak osatzen zuten koalizioaren boterea indartsuegia zen aurka egiteko: 1911n eta 1913an Jose Migel Iturriozek borrokarik gabe irabazi zituen hauteskundeak. EAJk ez zuen zinegotzirik lortu Beasaingo Udalean, nahiz eta batzuetan, 1917an kasu, karlistekin koalizioan joan²²⁰. 1920ko hauteskundeetan, Gipuzkoan EAJk 64 zinegotzi lortu zituen, baina Beasainen ez zuten arrakastariak izan (Beasaingo hautagaitza izan zen Gipuzkoan zinegotzirik lortu ez zuen hautagaitza bakarra)²²¹, baina *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak "nazionalisten grina" goraiatu egin zuen²²². Hala ere, Gipuzkoako Aldundirako hauteskundeak izan ziren jeltzaleentzat hauteskunderik arrakastatsuenak eta 1915ean lehen diputatua lortu zuten; 1923an, berriz, bost batzarkide lortu zituzten²²³.

EAJ hasiera batean alderdi sozialki kontserbadorea eta erlijiosoa izan zen, nahiz eta bere osagai sozialagatik (herriklaseetako jendearen babesia zuen gehienbat, ugazaba batzuk ere alderdiko kideak izan arren) eta ideologiagatik, erregimen monarkikoak baztertua izan. Hasiera batean, alderdi horren arerio nagusietako bat sozialismoa izan zen, bai ideologia sozialagatik

²¹³ MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 154. or.

²¹⁴ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 123-129. or.

²¹⁵ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 407. or.

²¹⁶ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 17-18. or.

²¹⁷ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 109. or.

²¹⁸ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 197. or.

²¹⁹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 40. or. Liburu honen arabera, 1909ko abenduaren 18ko Gipuzkoarra egunkariak abertzaletzat jo zuen Joan Olabe, eta 1909ko abenduaren 6ko *El Pueblo Vascok* independentetzat.

²²⁰ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 40-42. or.

²²¹ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 432. or.

²²² La Voz de Guipúzcoa, 1920-02-5 in BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 41. or.

²²³ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 414-419. or.

or.

ezberdina zelako (katolikotasuna eta klase-harmonia vs klase-borroka), eta baita jeltzaleen artean sozialistak askotan "kanpoko elementu" gisa ikusten zirelako ere²²⁴. Hala ere, pixkanaka, hasierako "maketoen aukakotasun" hori, gainditua izan zen Euzko Alderdi Jeltzalearen baitan, bai Alderdiaren zuzendaritzan izaera liberalagoko pertsonak sartuta eta baita ELA sindikatua sortuta ere, eta ideologian sozialismora ez hurbildu arren, pixkanaka, eremu praktikoan, abertzetasunak kanpoko jatorriak zituzten langileekiko mesfidantza-sentimenduak leuntzea ekarri zuen²²⁵ eta langileen arazoak ere jeltzaletasunaren barruan tratatzea lortu zuen. ELAren "katolikotasun soziala" pixkanaka²²⁶, Alderdiaren ideologia bihurtzen joan zen eta horrela EAJk bere klase arteko osagai soziala aintzatestea lortu zuen²²⁷, izan ere, Euzko Alderdi Jeltzaleak zuen oinarriaren parte handi bat langileek eta herri-klaseek osatzen baitzuten, ideología antisocialistako alderdia izan arren. 1911n sortutako ELAk, 1913an lau tokiko erakunde zituen Gipuzkoan (denak Debarroko eskualdean), eta 1920rako hamasei talde izan zituen herrialdean, tartean, Beasainen eta Zumarragan²²⁸. ELAk, hasiera batean, klase-borroka defendatu ordez, klase-harmonia defendatzen zuen²²⁹, "euskal langileak elkarri laguntzeko" talde gisa sortu baitzen²³⁰, beraz UGT eta CNT baino moderatuagoa izan zen (Meesen arabera, 1920tik aurrera erradikalizatze bat gauzatu zen bere jarreretan, baina betiere "kristautasun soziala" edota "katolikotasun soziala" defendatuz eta sekula ez sozialismoaren ideología bere eginez)²³¹. ELAren afiliazioa, beste sindikatuenarekin batera, hazi egin zen 1918-1920 arteko langile-mobilizazioen hirurtekoan eta 10.000 kide lortu zituen, baina hurrengo urteetan pixka bat jaitsi egin zen eta 1922an 7.000 eta 8.000 kide artean zituen²³².

Lehen aipatu dugu 1917-1919 arteko autonomia lortzeko kanpainak EAJra militante berri asko eta boto berriak erakarri zituela. Baino kanpaina horrek helburuak ez zituela bete ikusita (jakina denez, ez zen autonomiarik lortu orduan), garai hartako ilusioarekin alderdira joandako militante askoren artean atsekabea izan zen nagusi. Are gehiago, aurretik zetorren zatiketa (batzuen ustez Sabin Aranaren garaitik) areagotu egin zen eta autonomiaren bidetik joatea urratsa aurrera egitea zela uste zutenen eta independentziarako bidean oztopo zela uste zutenen arteko erabateko zatiketa ekarri zuen. Beraz, bi alderditan banatu zen: alde batetik *Comunión Nacionalista Vasca*, autonomistek zuzendutakoa eta bestetik *Aberri* (urte batzuen buruan hauek berreskuratu zuten EAJ-PNV marka), independentista setatsuak. Primo de Riveraren diktaduraren bukaera iritsi behar izan zuen 1930ean, Bergaran, bi zatiak berriz ere alderdi bakarrean biltzeko. Beasainen zein Gipuzkoan, militante gehienak *Comunión* taldean gelditu ziren eta Aberrik ia batere indarrik ez zuen izan. Miren Barandiaran Contrerasen ustez, Gipuzkoako abertzetasuna moderatuagoa zen Gipuzkoako Engrazio Arantzadi "Kizkitza" gipuzkoar zuzendariaren eraginez eta Gipuzkoako industrializatzek Bizkaian beste gatazka sozial ez eragitearen ondorioz²³³ (*Aberri* taldekoen buru zen Eli Gallastegik, adibidez, behin baino gehiagotan erabili izan zuen arazo soziala euskal independentziarekin lotuta nolabaiteko erretolika antikapitalista eginez)²³⁴. Barandiaranen ondorioen arabera, berak informazio handirik ez dagoela onartzen badu ere, Beasainen jeltzale gehienak *Comunión*en gelditu ziren²³⁵. Mikel Aizpuru Murua baiezttatu egiten du Gipuzkoan Aberri korronte independentista erradikalak izan zuen oihartzun falta²³⁶ eta gipuzkoar abertzale batzuek bi korronteetako ekitaldietan parte hartu edo prentsan idatzi arren, bi korronteen arteko zatiketa, Alderdiaren oinarrian behintzat, ideologoen eta buruzagien artean izan zena bezain sakona ez zela izan erakusten duela azpimarratzen du²³⁷.

²²⁴ BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 163. or.

²²⁵ MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 151. or.

²²⁶ BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 161. or.

²²⁷ MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 169-171. or.

²²⁸ MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 145. or

²²⁹ Zenbait egilek, tartean Pedro Barrusok, ELAren sorrrera, klase-borrokaren aldeko sindikatu sozialisten aurrez aurreko erreakzio moderatuaren testuinguruan kokatzen dute, Elizako Sindikatuekin batera. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 166. or.

²³⁰ MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 143-144. or.

²³¹ MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 151. eta hurrengo or.

²³² MEES, Luder: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1900-1923)*. Sabino Arana Fundazioa. Bilbo, 1992, 146-147. or

²³³ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 17 eta 39. or.

²³⁴ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesús Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 20-21. or.; eta AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 321. or. Hala ere, Gallastegiren antikapitalismoa gehiago zen erretolikoa edota emozionala, ideologikoa baino.

²³⁵ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 18. or.

²³⁶ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 314-324. or.

²³⁷ AIZPURU MURUA, Mikel: *El Partido Nacionalista Vasco en Guipúzcoa (1893-1923): orígenes, organización y actuación política*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Euskal Herria, 2000, 314-315. or. Aizpururen arabera, batzokiak juridikoki Alderdiarenak ez izateak (tokian tokiko batzokiaren zuzendaritza-batza eta Alderdiarena ezberdinak ziren), kasu batzuetan zatiketa hori leuntzen lagundu zuen eta batzokia "abertzale denetx etxe komuna" izan zen.

Gipuzkoan korronte minoritarioa bazen ere, gutxienez ere ezagutzen dugu *Aberriko* beasaindar bat, gerora ezaguna egin zena: Jesus Larrañaga. Urretxun jaio eta Beasainen bizi zen beasaindar hau, bere biografia idatzi zuen Jose Antonio Egidoren arabera, Ordiziako batzokian afiliatu zen, bere lagunekin batera (Mikel Garmendia Itxarkundia batailoiko gudari izan zena eta lehenengo Jaurlaritzako Sailburu izan zen Joseba Rezola adiskide zituen). Egido Siguenzaren arabera, Elias Gallastegiren ideiak, non arazo nazionalari hein batean arazo soziala gehitzen zion, Larrañagaren prestakuntzarako ezinbestekoak izan ziren eta geroago komunismoranzko trantsizioan lagundu zioten (kontuan hartu behar da garai hartan, Alderdi Komunistaren Euskal Federazioaren tesiak abertzalesunetik oso gertukoak zirela)²³⁸. Jesus Larrañaga ezaguna izan zen militante jeltzale gisa eta berak eta bere lagun batek, 1926an Primo de Rivera diktadorea Ordiziako geltokia inauguratzera etorri zenean, “Gora Euzkadi Askatuta!” oihu egin zuten eta horregatik biak atxilotu zituzten²³⁹.

Azkenik, PSOE, Spainiako Langileen Alderdi Sozialista dugu. Alderdi hori langile-arloan mugitu zen eta UGT sindikatuarekin harreman handia izan zuen; Alderdia, batez ere, produkzio-moldeak sozializatzera emana zen. Sozialistek, mende-hasieran, langile-klasearen ordezkari-lana egiten zuten, eta langile klaseari onurak ekartzea zen euren betebehar nagusia, Estatu-sistemaren inguruko gaiak (orduan) bigarren maila batean utziz. Hala ere, langile gaiez at, sozialistak errepublikanoekin ados egon ohi ziren hainbat gaitan, adibidez, laikotasunaren gaian. Horrek azaltzen du neurri batean, sozialistak eta errepublikanoak, bai Euskal Herrian, zein Gipuzkoan, zein Tolosako hauteskunde-barrutian, batzuetan hauteskundeetan elkarrekin joatea (nahiz eta harreman hori ez zen tirabirarik gabea izaten, bai alde batetik zein bestetik). Hala ere, askotan ordezkaritza lortzeko modu bakarra hori zuten, beraz, elkartzeko joera ere bazegoen (kontuan hartu behar da, oso zaila zela Berrezarkuntzaren sistemaren arabera ordezkaritza lortzea, hautagaiak aurkezteko baldintzak oso gogorrak baitziren; batez ere alderdi berrientzat edota sistematik kanpo zeuden alderdientzat), 1909tik aurrera bereziki.

Alderdi hori, jeltzaleekin gertatu zen moduan, Bizkaitik Gipuzkoara hedatu zen, Fusik esaten duen bezala. Hori zergatik gertatu zen jakiteko, kontuan izan behar dugu alderdi horren oinarri soziala ia erabat industriako langileek osatutakoa zela, eta industrializatzea Gipuzkoan baino lehenago gauzatu zela Bizkaian (Bizkaian sozialistek zuten pisua hain garrantzitsua izan zen, ezen PSOEren gune garrantzisuenetako Bilbo izan zela). Bizkaia oso gune garrantzitsua izan zen PSOErrentzat, eta arrakasta politiko handiak lortu zituen han, bai kaleko ekintzetan zein hauteskundeetan (1917an, sozialista bat, Rufino Laiseka Bilboko alkate izan zen, eta 1920an Indalecio Prieto diputatu aukeratu zuten Bilboko barrutian). Gipuzkoako lehen Elkarte Sozialistak Donostian eta Eibarren sortu ziren, biak urte berean, 1897an eta biek oso bilakaera ezberdina izan zuten²⁴⁰: Donostiakoak, hasiera batean ez zuen jende asko biltzerik lortu baina Donostiako lehen zinegotzi sozialistak 1909ko abenduan eseri ziren Donostiako Udalean (bi lortu zituzten)²⁴¹; Eibarkoa, ordea, hasiera batean oso arrakastatsua izan zen 1903. urterako zinegotziak lortuz²⁴², eta 1920an, Eibarko Udalaren kontrola lortu zuten²⁴³. Eibarko elkartearen bulkadaz, 1901ean Soraluzen beste Elkarte Sozialista bat sortu zen, eta badirudi urte horretan bertan Irunen beste elkarte bat sortu zela (beste gune indartsu batean, Tolosan, 1902an sortu omen zen Elkarte Sozialista, baina Endrike De Francisco sozialista ospetsua herriatzean hasi zen sozialismoaren goraldia, 1910.eko hamarkadan, batez ere 1912ko papergintzako grebaren ondorioz; De Francisco 1917an zinegotzi aukeratua izan zen)²⁴⁴. Beraz, hasiera batean, Gipuzkoako sozialismoaren eragin praktikoa Eibarrera mugatuta gelditu zen eta Goierriko sozialismoaren lehen ekitaldia, PSOEren fundatzaile Pablo Iglesiasek 1900ean Ordizian emandako mitina izan omen zen, Euskal Herrian zehar mitin-bira bat egin zuenean²⁴⁵.

Errepublikanei gertatu bezala, sozialisten kasuan ere, elkarketen politika barne-kalapiten iturri izan zen, izan ere, sozialista guztiak ez baitzituzten errepublikanoekin egindako tratuak onartzen. Sektore sozialista erradikal horrek errepublikanoengan beste alderdi burges bat ikusten zuen alderdi monarkikoengandik bereizten zaila zena, eta ordezkaritza lortzean baino gehiago, langile-grebetan sinesten zuten gizarte sozialista ezartzeko asmoz. Euskal Herriko sozialisten bitasun horren erakusgarririk nagusienak bi zuzendari bilbotar izan ziren: Indalecio Prieto alde moderatuan, eta Fakundo Perezagua alde erradikalean²⁴⁶.

²³⁸ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 18-21. or.

²³⁹ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 23. or.

²⁴⁰ FUSI, Joan Pablo: *Politica obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 177. or. Fusiren arabera, 1891n, Donostian eta Tolosan sortuak izan ziren Elkarte Sozialistak, baina ez zuten iraupenik izan.

²⁴¹ FUSI, Joan Pablo: *Politica obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 291. or.

²⁴² Egile gehienaren arabera horiek izan ziren Gipuzkoako lehen zinegotzi sozialistak. Hala ere, Jose Gabriel Zurbaro Meleroen arabera, 1901ean, Goierri berrian, Zegaman, bi zinegotzi sozialista aukeratu zituzten. Hala ere, Zurbaronk aipatutako datu hori ez dut beste inon aukritu, beraz, zalantzan utziko dut hemen. Baliteke sozialisten laguntzarekin aukeratuak izandako zinegotzi “independenteak” izatea. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936)*. (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 132. or.

²⁴³ FUSI, Joan Pablo: *Politica obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madril, 1975, 177-179 or. Joan Pablo Fusiren arabera, Gipuzkoako sozialismoaren hastapenean, Bizkaiko aktibistik egongo ziren inplikatuta.

²⁴⁴ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 24. or.

²⁴⁵ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 24. or.

²⁴⁶ EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 136-138. or.

or.

Bien arteko talkak, behin baino gehiagotan banatzeko ertzera eraman zuten Alderdi Sozialista²⁴⁷, nahiz eta epe laburrerako hauteskunde-lorpenetarako bidea hori izan, bai Udal, herrialde zein Spainiako hauteskundeetan²⁴⁸.

Euskal Herriko arazo nazionalaren inguruan, Alderdi Sozialistaren (PSOEn) ez zegoen barne-tirabirarik. Alderdi hori, hasiera batean, euskal autogobernuaren, autonomiaren edota euskal berezitasunaren etsai izan zen eta, Eibarko sozialisten kasua aparte utzita, Alderdi osoa bat zetorren joera antinazionalista horrekin. Jarrera hori izateko bi arrazoi zituen: alde batetik "nazioen eta mugen oztopoen desagerpenaren" aldeko teoria eta, bestetik, abertzalesunarekiko aurkakotasun politikoa, zeina indar katoliko, atzerakoi eta baserritar gisa ikusten zuten, Prietok behin baino gehiagotan adierazi bezala (kanpo-faktore bezala, jeltzaleen garai hartako ideologia kontserbadoreak eta antisocialistak ere, sozialisten posizioan nolabaiteko eragina izan zuela uste izan liteke). Sozialistak, adibidez, 1905ean foruen berrezarkuntzaren alde egin zen kanpainan parte hartu ez zuten bakarrak izan ziren²⁴⁹. Euskal Herriko PSOEren nazionalismoaren edota autonomismoaren aurkako jarrera bortitz horren ordezkari gisa Indalecio Prieto dugu, zeinak bere Bilboko politikaren *leitmotiv* gisa nazionalismoaren aurkakotasuna izan zuen, nazionalismo espainiarra defendatzeraino²⁵⁰. Indalecio Prietoren euskal antinazionalismo horren koherentzia hainbesterainokoa izan zen, ezen 1919an sozialisten etsai monarkikoekin (Bizkaiko kapital handiaren ordezkariak eta Espainiako erregimen monarkikoaren defendatzaileak) itun bat egingo zuela 1917-1918ko garaipen nazionalistak neutralizatzeko²⁵¹. Urte horietan izan zen kanpaina autonomistaren aurrean, PSOEren ikuspegia, formalki kanpainarekin bat egitea izan baten ere, berez "Udalen autonomia" esku zuen, Aldundieie aurre egiteko²⁵². Baino egia da baita ere, halako kanpaina autonomistak PSOEren baitan bestelako posizioak ere agerrarazi zituela. Halako bat izan zen, Jose Madinabeitia oñatiarrarena eta bere ekimen politikoa Eibarko gune sozialistan burutu izan zuen, beraz, sozialismo eibartarraren nolabaiteko sentiberatasun euskaltzaleaz blai ibili zen²⁵³. Madinabeitiaren proposamena "Iberiar Estatuen Federazioa" eraikitzea izan zen; bere proposamena errepublikar foruzaleen atzekoa zen, euskaldunak herri bat zirela zioen, bere hizkuntza eta ohiturekin eta hori aintzatetsia izan behar zuela ("euskal nazioaren" aintzatespna eskatzen zuen, "Euskal Estatua" gauzatzea); baina aldi berean, Euskal Estatu hori independentea izatearen aurka zegoen, Iberiar Federazio batean, eta geroago Munduko Federazio batean sartzearen aldekoa zen, ez Estatu independente baten aldekoa, hori "gauzaezina" eta "Txinako harresiak eraikitza" zela iruditzen baitzitzaion²⁵⁴. Madinabeiti sozialisten eta nazionalisten arteko elkar-ulermenerako zubi izan zitekeen, baina bere jarrerak oso urriak ziren Alderdi Sozialistaren, eta Euzko Alderdi Jeltzalean ere hainbatek mesfidantzaz hartzitzen zituen²⁵⁵. Antzoko planteamenduak egin zituen Eibarko Toribio Etxebarria lider sozialistak ere eta euskal idazlea ere izan zen²⁵⁶. Etxebarriak, 1918an, *La Liga de las Naciones y el problema vasco liburuxka* atera zuen²⁵⁷, eta Madinabeitiak bezala, Euskal Herriaren neurri bateko burujabetasuna eta federalismoa aldezten zituen. Halere, salbuespenak salbuespen, Alderdi Sozialistaren barruan, euskal izaera nazionala modu orokorrean aintzatesteko Errepublika garaiko urteei itxaron behar izan zitzaien.

Lehen esan dugu jeltzaleen kasuan 1917-1919 inguruan afilazioan jauzi bat eman zela, eta gauza bera gertatu zela II. Errepublika garaian. Sozialistei dagokienez ere, antzoko zerbaite gertatu zen, lehenengo kasuan langile-mobilizazioei lotuta egin zen igoera, eta bigarrenean Errepublikak ekarri zituen itxaropenei atxikita. Mende-hasieran alderdi txiki samarra eta ezarpen berantiarrekoia izan zen Gipuzkoan, eta askotan, tokiko komiteak agertu eta desagertu egiten ziren, Beasaingoa kasu. Lehen urte haietan alderdi horrek gorabehera handiak izan zituen eta garai hartako kidetza sozialistaren datuak atzematea oso zaila da (Jesus Egigurenek dio 1912ra arte ez zirela kidetzaren datu sistematikoak bildu, eta 1915era arte ez zela lurradekako kidetzaren daturik jaso)²⁵⁸. PSOEren ezarprena UGTren ezarpenarekin bat etorri ohi zen askotan, kontuan izanik hasiera batean behintzat alderdi hori ia erabat langilez osatua zela. Eta UGTren afilazio-datuak ikusiz gero, Lehen Mundu Gudaren aurretik,

²⁴⁷ Prietok bere tratu-politika muturreraino eraman zuen: 1919an, monarkikoekin hauteskunde-itun bat egitea ere lortu zuen.

²⁴⁸ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 65. or.

²⁴⁹ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 275. or.

²⁵⁰ 1911ko kanpainen, adibidez, jeltzaleekin koalizioa egitearen aurka "Espainiaren bandera zapaltzen dutenekin bat egiten duena ezin izango da patriotatzat hartu" bezalako argudioak erabili zituen. FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 342. or.

²⁵¹ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 387. or. Giro antinazionalista hori erakusten duen gertakari esanguratsu bat izan zen 1918an Bilboko kaleetan manifestazio espinolista batean; Prieto eta Ybarra oligarka eta konserbakoren hautagai zena, biak txalotu izana.

²⁵² FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 390-391. or.

²⁵³ Jesus Egigurenen arabera, Eibarko sozialismoaren hizkuntza nagusia, mitinetan zein batzarretan (baina ez prentsa idatzian) euskara izan zen. EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 146. or.

²⁵⁴ MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1907-1923)*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 1992, 255. or.

²⁵⁵ MEES, Ludger: *Nacionalismo vasco, movimiento obrero y cuestión social (1907-1923)*. Sabino Arana Fundazioa, Bilbao, 1992, 256-275 or; eta FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 391. or.

²⁵⁶ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 271-173. or.

²⁵⁷ ECHEVARRIA, Toribio: *La Liga de las Naciones y el problema vasco*. Eibarko Elkarte Sozialista. Eibar, 1918.

²⁵⁸ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 17. or.

1911n, Gipuzkoan 120 kide soilik zituen, 1917an 291, 1920an 1.322, eta 1921ean 4.000²⁵⁹. Eigurenen datuen arabera, 1915ean Hego Euskal Herrian 24 Elkarteko Sozialista zeuden (5 Gipuzkoan), 968 kiderekin (216 Gipuzkoan). 1920rako 1.500 bat kide izango zituen Hego Euskal Herriko PSOEK²⁶⁰, nahiz eta hurrengo urteetan kidetza pixka bat murriztu Alderdi Komunista sortu zeneko banaketa eta Primo de Riveraren Diktadura zirela bide²⁶¹.

Hazkunde horren parte edo fruitu izan ziren Beasaingo PSOE eta UGT ere. Antza denez, mende-hasieran bazegoen Beasainen Elkarteko Sozialista bat, 1909an desagertu zena. Hala ere 1915ean berriz sortu zen Elkarteko Sozialista Beasainen²⁶²; baina ez dirudi garrantzi handia izan zuenik, gutxienez ere Primo de Riveraren Diktadura (1923-30) bukatu arte. Eigurenek adibidez, bere euskal sozialismoaren inguruko lanean, 1923ra arte ez du aipatzen Beasaingo Elkarteko Sozialista²⁶³, eta ez zuen ordezkaritzarik bidali, ez 1919ko, ez 1920ko, ez 1921eko beren Biltzar Nagusietara (Biltzar Nagusi horiek izan ziren sozialisten eta komunisten arteko zatiketa ekarri zutenak)²⁶⁴. Oso har, Gipuzkoako sozialistak errepublikanoekin batera koalizioan joatearen aldekoak izan ziren, euren aldetik indar gutxi samar baitzuten hasierako garai horretan. Hala, nolabaiteko arrakasta partzialak lortu zituzten, adibidez, Endrike De Francisco ospe eta prestigio handiko sozialista Tolosako zinegotzi hautatua izatea 1917an²⁶⁵. Mende-hasieran, Errepublika heldu arte, Beasainen sozialistek ez zuten Udalean sartzerik izan, hein handi batean fabrikaren inguruko koalizio liberal-errepublikanoak (Frantzisko Goitia akziodun nagusia eta Jose Orueta zuzendaria buru zituela) zuen indar handiagatik, hain zuzen ere, fabrikan oinarritua baitzegoen eta sozialisten bozkatzaile potentzial ziren langileengan baitzuen eraginik handiena, sozialismoaren aurrerapena galaraziz. Hala ere, Errepublika garaian gauzak asko aldatu ziren, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Alderdi Sozialistaren zatiketak sortu zen *Partido Comunista de España*, PCE (Espainiako Alderdi Komunista). Espainiako Alderdi Komunistaren sorrera, akademiko gehienetan arabera, Errusiako Iraultzaren aurreko jarrerarekin bat egiten zuten aldeak biltzen zituen Hirugarren Internazionalean biltzeko erabakik eitorri zen. Internazional Komunistak, 1917ko iraultza boltxebikearekin ados zeuden alderdiak biltzeko asmoa zuen; eta Internazional horretako kide egiteko zenbait ideologia-baldintza ezartzeara erabaki zuen; horien artean, derrigorrezkoak ziren erreformismoa ukatzea eta iraultzaren aldeko hautua egitea. Errusiako Iraultzak ospe handia lortu zuen langile-mugimenduaren barruan lehenengo aldiz langileak boterera eraman zituelako, baina erabilitako moduak ez zituen sozialista guztiek konbentzitu. Beraz, Internazional Komunistarekin (III. Internazionalarekin) bat egitearen edo Internazional Sozialistaren (II. Internazionalean) jarraitzearen arteko eztabaidea, jada ez zen taktiko-estategikoa soilik, ideologikoa ere bihurtu zen, eta PSOEren erabateko apurketa ekarri zuen. Ordutik aurrera bi alderdi ezberdin, eta areago, bi nortasun politiko ezberdin moduan bereizi ziren. Horrek azaltzen du ondo erabaki hori hartu beharrak zuen zaitasuna eta, horretarako, hainbat goi-bilkura eta biltzar nagusi burutu zituzten sozialistek II. Internazional Sozialistaren (erreformistan) gelditzeko erabakia hartzeko. Aldiz, III. Internazional Komunistan (iraultzailean) sartzearen aldekoek Espainiako Alderdi Komunista sortu zuten. Batez ere Gazteria Sozialistako kideak izan ziren III. Internazionalean sartzeko hautua egin zutenak²⁶⁶.

Erabaki hura hartzeko lehen kongresua 1919ko abenduan egin zuen PSOEk eta tarte txiki batengatik Internazional Sozialistaren gelditzearen aldekoek hartu zuten erabakia (erabakiarekin desados zeuden Gazteria Sozialistako kiderik gehienak, alderditik bereiztea erabaki zuten eta Alderdi Komunistaren ernamuin bihurtu ziren). Kongresu hartan, Euskal Herriko sozialista gehienek eta Gipuzkoako Elkarteko Sozialista guztiak jarrera ofizialarekin bat egin zuten. Hala ere, kongresuaren ebazpena oso bikotza izan zen, eta gaia zabalik gelditu zen²⁶⁷. Gai horri berriz heldu zion 1920ko ekainean egin zen PSOEren kongresu berri batek, eta oraingoan, bai Alderdiaren gehiengoa zein Euskal Herriko PSOEko gehiengoa (tartean Donostiarra eta Iruno Elkarteko Sozialistak) III. Internazionalaren alde agertu ziren (Eibarko eta Tolosako elkartea posizio erreformistetan gelditu ziren). Jarrera horren aldekoek, Euskal Herriko sozialisten 1920ko abuztuko batzar batean ere, III. Internazionalaren aldeko hautua egin zuten²⁶⁸. Haistik, gehiengo hori balitzeko adore faltak eta III Internazionalaren aldekoen arteko zatiketek (batzuek kosta ala kosta erabakia gauzatu nahi zuten, baina beste batzuek erabakia gauzatu aurretik Alderdian zatiketa bat gertatzea eragotzi nahi izan zuten), berriz ere eztabaidea zabalik utzi zuten. Ezbaie hauek izateak hurrengo kongresuan zigorra ekarri zieten²⁶⁹.

²⁵⁹ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 489. or. Euskal Herria sozialismoaren gune nagusi zen Bizkaian, 1911n UGTk 9.000 kide zituen, 1917an 4.600, 1920an 18.000 eta 1921ean 21.000.

²⁶⁰ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 29-32. or.

²⁶¹ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 34-37. or

²⁶² LARRAÑAGA, Policarpo: *Contribución a la historia obrera de Euskalherria (2 lib.)*. Itxaropena. Zarautz, 1977, 68. or.

²⁶³ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 17-24. or.

²⁶⁴ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 186., 199., 208. eta 212. or.

²⁶⁵ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 82. or.

²⁶⁶ MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruña, 2012, 13. or.

²⁶⁷ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 431. or.

²⁶⁸ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 431-432. or.

²⁶⁹ MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruña, 2012, 14. or.

or.

Azkenean, 1921eko apirilean hartu zen behin betiko erabakia eta berriz ere PSOEren egoera aldatu egin zen (oraingoan II. Internazional erreformistaren alde), baina berriz ere tarte txikiarekin. Gutxiengo komunistak alderdia utzi eta 1919an banatutako Gazteria Komunistarekin batera, Spainiako Alderdi Komunista (PCE) sortu zuen. Alderdi Sozialistaren buru nagusiek jarrera erreformistaren alde hautua egiteak jarrera hori "Alderdiarekin" identifikatzen lagundu zuen (zenbait liderrek, tartean Prietok eta Alderdiaren sortzaile zen Pablo Iglesiasen, Internazional Komunistaren kide izateko baldintzek, alderdiaren zatiketa eta "Alderdi kanpotik gobernatzea" ekarriko zutela esan zuten); eta behin betiko banaketak, eta beraz, "gure betiko alderdia" uzteak sortutako beldurrak, komunisten aldeko jarrerak ahuldu egin zituen. Baino, kontuan izanik Euskal Herriko elkartegiak III. Internazionalaren aldeko jarrera berretsi egin zutela (Eigurenen arabera, Euskal Herriko 18 Elkartegi Sozialistetik 13k eman zuten III. Internazionalean sartzearen aldeko bota²⁷⁰; Gipuzkoan Eibarkoek eta Irungoek III. Internazionalaren alde egin zuten eta Donostiakoak eta Tolosakoak II. Internazionalaren aldean gelditu ziren²⁷¹), ez da harritzeko Euskal Herria PCE berriaren gune garrantzitsu bihurtu izana²⁷². Hala ere, ez dugu pentsatu behar 1921eko Kongresuan III. Internazionalaren alde agertutako Elkartegi Sozialistak blokean PCE berriarekin bat egin zutenik eta, esan bezala, askorengan "zatiketaren beldurra" nagusitu zen, Elkartegi Sozialista askok, III. Internazionalaren aldeko bota eman arren, zatiketaren orduan PSOEn gelditzea erabaki zuten)²⁷³.

Sozialisten eta komunisten arteko ezberdintasun handiena, biak banatzen zituen marra gorria "erreforma ala iraultza" dikotomia zenez gero, ez gaitu harritu behar Euskal Herrian PSOEk 1918tik aurrera, hain justu Euskal Herrian inoizko gatazka-mailarik handiena zegoen garaian, egindako itunen politikak atsekabetutakoek (gogoratu Indalecio Prieto euskal sozialisten buruak Bizkaian abertzaleen gorakada neutralizatzeko oligarkiaren alderdi monarkikoekin ituna egitea erabaki zuela) errusiar boltxebikeen tesiekin bat egin izatea. Izen ere, hauteskundeetako estrategia horrek, estrategia sindikalean ere eragina izan zuen, eta sindikalista sozialistak lan-gatazketan geroz eta moderatuago jokatzen zuten, grebak deitzeko mesfidantza are handiagoa izanez. Beraz, lan-gatazketan estrategia aktiboago baten aldekoak zirenak ere, Alderdi berrian sartu ziren²⁷⁴. Alderdi Komunista berrian, militante gazteak izan ziren nagusi²⁷⁵. Euskal sozialismoaren lider zaharrak, bai Bizkaian zein Gipuzkoan, PSOEn gelditu ziren, tartean, Guillermo Torrijos donostiarra, Toribio Etxebarria edo Joan De los Toyos eibartarrak edo Endrike De Francisco tolosarra, eta noski, Indalecio Prieto bilbotarra, euskal sozialisten liderrik ezagunena. Komunisten aldera pasa zen lider ezagun bakarra, lehen aipatutako Fakundo Perezagua izan zen²⁷⁶. Horrek ekarri zuen UGT barruan ere, gehiengoa PSOEri leial mantendu izana (komunistek ordukoz ez zuten euren sindikatu alternatiborik sortu eta UGT barruan jarraitzea erabaki zuten). Horrek ez du esan nahi komunistek sindikatuen barnean pisurik izan ez zutenik, adibidez, Bizkaiko Meatzarien Sindikatua (1923an bere aldetik greba bat egiteko gai izan zena) komunisten kontrolpean gelditu zen. Euskal Herriak alderdi berriarentzat zuen garrantzi kuantitatiboa ulertzeko, nahikoa dugu esatea PCE sortu zuten 80 tokiko zelula komunistetik pisurik handiena zuena Bizkaikoa izan zela²⁷⁷ edo PCERen idazkari nagusi izan zen Jose Bullejos Bilbora ekarri izana²⁷⁸. 1923an PCEk zituen mila kideetatik 300 bizkaitarrak ziren, eta 1923an Bizkaian meatzarien greba bat egiteko beste indar izan zuen Alderdiak²⁷⁹. Bizkaian komunisten eta sozialisten arteko tentsioa oso handia izan zen eta praktikan "gizarte-guda" baten antzekoa suertatu zen²⁸⁰.

Antza denez, Gipuzkoan, militante komunisten gunea Rafael Marinen inguruan hasi zen biltzen, garai hartako Zosimo García militante komunista donostiarrok Jose Antonio Egidori kontatu zion moduan: "bera izan zen Gipuzkoara komunismoaren ideiak ekarri zituena"²⁸¹. 1922an Gipuzkoako Federazio Komunista sortu zenean, Rafael Marin bera izan zen idazkari orokorra eta Leandro Carro (gerora erbestean Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zena) sindikalgitzaroko arduraduna²⁸². Gipuzkoako gune komunistan nabarmendu ziren beste batzuk zapiraindarrak, hiru anaia, izan ziren. Hala ere, Alderdi horrek garai horretan Beasainen ez

²⁷⁰ EGUIUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 191. or.

²⁷¹ EGUIUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 208. or. Beraz, aurreko Biltzar Nagusiarekin konparatz, Donostia eta Eibarrek jarrera aldatu zuten.

²⁷² MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruña, 2012, 24. or.

²⁷³ Antonio Elorza eta Marta Biccarrondoren arabera, Alderdi Sozialistaren (PSOEr) zatiketa eta Alderdi Komunistaren eratzea III. Internazionalak proboka-tutako mugimendua izan zen eta, euren mezulariak erabiliz, III. Internazionalaren aldekoen mugimenduak gidatu zituzten. Nire uez, halako ikuskerak barne-faktoreen ahanzura du lorratz. ELORZA, Antonio eta BIZCARRONDO, Marta: *Queridos camaradas. La Internacional Comunista y España (1919-1939)*. Planeta. Bartzelona, 1999, 21-27. or.

²⁷⁴ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 433-434. or.

²⁷⁵ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 437. or.

²⁷⁶ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 437-438. or.

²⁷⁷ EGUIUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 191. or.

²⁷⁸ FUSI, Joan Pablo: *Política obrera en el País Vasco 1880-1923*. Turner, Madrid, 1975, 438-439. or.

²⁷⁹ ELORZA, Antonio eta BIZCARRONDO, Marta: *Queridos camaradas. La Internacional Comunista y España (1919-1939)*. Planeta. Bartzelona, 1999, 57. or.

²⁸⁰ ELORZA, Antonio eta BIZCARRONDO, Marta: *Queridos camaradas. La Internacional Comunista y España (1919-1939)*. Planeta. Bartzelona, 1999, 36. or.

²⁸¹ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.)*. Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 25. or.

²⁸² BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 218. or.



Migel Primo de Rivera jeneral diktadorea CAF bisitatzen 1927an. (Argazkia: Kutxa Fundazioaren Gure Gipuzkoa bildumakoa)

zuen garrantzirik izan, gerora Alderdiaren buruzagi izan zen Jesus Larrañaga beasaindarra artean ez baitzegoen Alderdiaren barruan, nazionalista erradikala zen-eta. Gipuzkoan, hasiera batean, Alderdi Komunista batez ere Donostialdean garatu zen eta Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazioak, UGTrekin lotura formalia izaten jarraitu bazuen ere, gero komunistekin bat egin zuen²⁸³. Gauza bertsua egin zuten Pasaiako arrantzaleen sindikatuek eta Hernaniko eta Erreneriako papergintzako sindikatuek ere²⁸⁴ (papergintzako sindikatu horiek Euskal Herriko Papergintzako Federazioak 1920an *Papelera Española* enpresan sinatutako lan-hitzarmen historikoarekin desados zeuden; ikusten dugunez, Bizkaian emandako logika bera errepikatuko zen Gipuzkoan ere: moderazio-estrategiari uko egiteak komunisten aldera lerratzea ekarri zuen).

1921ean oparotasun-aldia bukatu izanak, komunistei euren estrategia laboral erradikala martxan jartzeko aukera eman zien eta, garai hartan, greba-kanpaina gogor handi bat hasi zuten, askotan UGTren irizpideen aurka. Noski, PCE berriak, bere lehen urteetan, PSOERen aurka jo zuen, eta horiekin ez zuen akordiorik lortu nahi izan. Hori, jada Internazional Komunistak, *Komintern*, 1920ko hamarkadan hasi zuen sozialdemokratekin akordioak egiteko estrategia bere egin zuenean eta *Komintern* eta jaioberri zen Spainiako Alderdi Komunistaren arteko tentsioak handitu egin ziren²⁸⁵. Alor sindikalari dagokionez, komunistek, bi langile-sindikatu ezberdin egotea (UGT eta CNT) kaltegarri ikusten zuten eta bien arteko batasun sindikala (III. Internazionalaren programapean) proposatu zuten. Nola batean zein bestean komunistak gutxiago zirenez, komunisten taktika sindikatu horien kontrola lortzeko borrokatzea izan zen, gerora batasun sindikala eratzeko²⁸⁶. Hasiera batean militante komunistak bi sindikatuetan egon ziren eta Errepublika iritsi arte programa horrek iraun zuen²⁸⁷.

Arazo nazionalaren inguruan, komunisten eta sozialisten arteko ezberdintasunak erabatekoak izan ziren. Komunistek, III. Internazionalaren politika jarraituz, herrien autodeterminazioa defendatzen zuten, eta koloniei dagokienez, independentzia

²⁸³ Pedro Barrusoren arabera, Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazioan 1922an komunistak nagusi izaten hasi ziren. 1926rako "komunisten kontrolean" zegoen. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 218-220. or.

²⁸⁴ EGUILUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Hiria. Donostia, 2009, 215. or.

²⁸⁵ MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 17. eta hurrengo or.

²⁸⁶ BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 217-219. or.; eta ELORZA, Antonio eta BIZCARRONDO, Marta: *Queridos camaradas. La Internacional Comunista y España (1919-1939)*. Planeta. Bartzelona, 1999, 37-43. eta 53. or.

²⁸⁷ MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 21. or.

or.

osoa²⁸⁸. Hori eta, Spainiar Estatuan, spanishiar zentralismoa eta nazionalismoa ikusi zuten alor nazionalean etsai nagusi gisa, ez bestelako nazionalismoak. Hori dela-eta, Euskal Herriaren autodeterminazioaren alde kokatu ziren komunistak.

Alderdiengoraldi hori 1923an gertatu zen, Migel Primo de Riverak Estatu-kolpea eman eta Diktadura (hala deitu zuen berak) ezarri zuen arte. Diktadura hori, hasieran, sektore askok ondo ikusi zuten, bai eliteek (txandakatze-sistemak zekarren ustelkeria konpontzeko modu bat ikusten zutelako), bai militarrek eurek ere (1921eko Annualeko hondamendia gogoan zutelako), bai enpresarieki (klase-borroka deuseztatzeko itxaropena zutelako eta bai kapitalismoa "spaniartzoko" eta modernizatzeko programa bat aurkezten zuelako) eta azkenik, sindikalismoaren parte handi batek ere bai (hobekuntza batzuen aukera ikusten zutelako); hala ere, komunistak, anarkistak eta abertzaleak, batez ere Aberrikoak, Diktadura horren "adostasunetik" at gelditu ziren hasieran (aipatu beharra dago Diktadura aldarrikatu eta berehala komunistek Bizkaian greba orokor indartsu bat aurrera eraman zutela eta polizia-indarrekin talka armatuak gertatu zirela)²⁸⁹. Zazpi urtez irau zuen Diktadura horrek, 1923tik 1930era, eta gehienbat, politika industrializatzalea eta ekonomia-arloan gastuaren hedadurakoa egin zuen (Euskal Herriari dagokionez, Aldundiak bertan behera utzi zituen, baina Hitzarmen Ekonomikoa (Ituna) berretsi egin zuen 1925ean). Politikoki, ordezkaritza-demokrazia, korporazioen bidezko ordezkaritza-sistema batez ordeztu zuen; halere, alderdi gehienei, biltzeko eskubidea ez zien kendu (bai ordea batzuei, komunistei eta abertzaleei kasu). Izan ere, Primo de Riveraren Diktaduran parte hartu zuten koadro asko, Berrezarkuntza garaiko alderdietatik eta politikatik baitzetozen (eta horiekiko ezkerreko oposizioan egon ziren alderdi batzuk, PSOE kasu, barnean sartu zituen). Primo de Riverak, bere alderdi propioa, *Unión Patriótica* (Batasun Patriotikoa) eratu zuen 1924an eta ordezkaritza-bide bakarra eratu zuen. Beraz, Primo de Riveraren diktadurak bazuen garai horretan Europan eratzen ziren sistema autoritarioekin nolabaiteko antzekotasunik, izan ere, burgesiaren zati batek halako erregimenak zituen eredutzat. Ondoren etorri zen Francoren diktadurarekin alderatuz; antzekotasun aunitz topatu dira, batez ere, politika ekonomikoan eta klase-borroka deuseztatzeko ahaleginean; baina bazituen halaber, nolabaiteko ezberdinotasunak ere: adibidez, errepresioa askoz ere txikiagoa izan zen orokorrean, fokatuagoa eta ez hain krudela (nahiz eta Euskal Herrian, abertzaleak eta komunistak errepresioaren jomugan zeudelako, errepresio-ekintzak ere nabariak izan ziren), baina, beste alde batetik, antzinako erregimen liberala "birsortzeko" eta ez deuseztatzeko jardun zuen. (Diktadura horrek ez zuen irauteko edota ideologia berri bat sortzeko asmo handirik izan).

Beasainen, herri guzietan bezala, Primo de Riveraren Diktadurak goitik behera ezarritako Udalak izendatu zituen, eta sostengu-oinarria batez ere lehengo eskuineko sektoreetan eta pertsonetan izan zuten (monarkiko alfontsotarra, Berrezarkuntzaren aldekoak, eta karlistak, aldi baterako bada ere, adiskidetuz). Beasaingo alkate berria, 1923ko urriaren 1ean izendatua, Joxe Guridi Balantzategi izan zen eta bere agintaldian udaletxe- eta eskola-eraikin berria eta abere-hiltegia eraiki ziren (nahiz eta lehen esan bezala, 1930ean hurrengo alkate izan zen Joxe Bixente Iraolak inauguratu) eta azokarako gunea ere prestatu zen plazapean²⁹⁰ (aipatu bezala, garai hartan azoka ofizialdu egin zen, denbora laburrez baina, 1927an, azokak elkarrengandik 15 kilometro baino gutxiagora egotea galarazi egin baitzuten). 1930eko otsailean utzi zuen alkabetza Guridik eta bere ordez Joxe Bixente Iraola Lasa jarri zen (geroago aipatuko ditugu 1930 eta 1931 arteko gorabehera politikoak). Garai hartan izan zen zinegotzi Guillermo Ugarte Aeta karlista, 1936ko uztailaren 27an, kolpista militarrek Beasainen sartzean fusilatua izan zena. Hala ere, Primo de Riveraren Diktadurak, Beasainen bertan, abertzaleen guneen aukako errepresioa ekarri zuen, adibidez, batzokia itxi egin zuen, eta Miren Barandiaranek esaten duen bezala, "abertzalesuna soilik ekintza kulturaletan babestu behar izan zuen", bere batzar politikoak isilpean egitera behartu zuten-eta: Senpereko zelaian egiten zituzten eta batzuetan Ordiziako abertzaleekin elkartzten ziren²⁹¹. Gogoratu beharra dago baita ere, prentsa abertzalearen kontrako oldarraldia egin zuela diktadurak eta orduko EAJko alderdi erradikalenaren egunkaria, *Aberri*, itxi egin zuela, Comunión zeritzon alderik moderatuenaren *Euzkadi* ere zentsura militarraren pean ezarriz²⁹².

1926an diktadorea Ordizian izan zen bisitan, tren-geltoki berria inauguratzen etorrita. Une hartan, bi gaztek, "Gora Euzkadi Askatuta!" oihu egin zuten eta atxilotuak izan ziren. Bietako bat beasaindarra zen, Jesus Larrañaga *Aberriko* militantea. Beraz, Larrañagak, jada poliziaren jazarpena jasotzen hasita, erbestezatzen beharra ikusi zuen eta Bokalera (Lapurdi) joan zen lan egitera²⁹³. Bokale ingurua, Frantziako Alderdi Komunistaren (PCF) gune handi bat zen eta ideologia komunista bereganatu zuen han Larrañagak (Rafael Marin, orduko Donostiako komunisten burua ere Bokalen ezagutu

²⁸⁸ Afrika, Asia eta Latinoamerikako kolonien independentzia, III. Internazionalean sartu nahi zuten Alderdiek onartu beharreko baldintza izan zen.

²⁸⁹ MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruña, 2012, 31. or.

²⁹⁰ ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in Beasain Jaiztan urteko aldizkaria, 2001 (17-21. or.).

²⁹¹ BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 48-50. or.

²⁹² BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 48-50. or

²⁹³ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 23-24. or.



Neskameak Beasaingo etxe onetako umeak zaintzen 1927-1928 inguruan. Besteak beste, lehen lerroan, eskuinaldean, Frantzisko Telleria Iraeta mutikoa (1966tik 1969ra Francoren garaian alkate izan zena) eta Romana Sarriegi Aldanondo bere zaintzailea. (Argazkia: Mari Carmen Ibarbiak utzia)

zuen²⁹⁴). Gipuzkoara itzultzean, Donostiako militante sindikalak batuz Gipuzkoako talde komunista eratu zuen. Jose Antonio Egidoren arabera, Larrañaga, bere aurreko militantzia abertzalean, antiimperialismoz blai zegoen eta langile-aktibismoa ez zitzaison batere arrotz egiten (aurretik, ELAko militante gisa parte hartu zuen grebaren batean eta ikasle bezala zegoen FVBtik egotzia izan zen). Orduko Aberri taldea (kapitalismoarekin *Comunión* baino kritikoagoa zena), munduko borroka antiimperialistak eta antikolonialistak eredu gisa hartzen hasia zen; eta garai hartako Alderdi Komunistentzat eta Internazional Komunistarentzat borroka antikolonialista eta autodeterminazio-eskubidea, langile-internazionalismoaren oinarri ziren. Hori dela-eta, Larrañagaren biografo Jose Antonio Egidoren arabera, Larrañaga abertzalesun erradikaletik komunismora pasatzea “ez zen etendura izan, jarraipena baizik”²⁹⁵.

Primo de Riveraren Diktaduraren amaiera, diktadoreak bere kontrako presioa areagotzean, 1930an, dimititza erabaki zuenean iritsi zen (izan ere, 1923an bere alde lortu zuen kontsentsua jada pitzatu samarra zegoen, egoera ekonomikoak okerrera egin baitzuen, eta bere baza nagusiak, modernizatzea eta ekonomia-eraginkortasuna, kendu egin baitzikion). Agintari berriak, Berenguer jeneralak, aurreko erregimen monarkiko-parlamentarioa indarren jartzeko asmoak zituen, eta hauteskundeak deitu zituen, baina ordurako, ez soiliik Diktadurarekin, baizik eta monarkiarekin ere atsekabe eta aurkakotasun handiak zeuden eta aukera errepublikanoek eta sozialistek gora egin zuten. Azken horiek (eta zentro-ezkerreko katalan abertzaleak) 1930ean Donostian bildu ziren eta Errepublika lortzeko indarrak batzeko akordio bat sinatu zuten; hori zela-eta Berenguerren deiari ezetz esan zioten). Hala, Berenguerrek dimititu egin behar izan zuen, berak egin nahi zituen hauteskundeek, ezkerraren parte-hartzerik gabe, zilegitasunik izango ez zuketelako. Hurrengo agintariak, Aznar almiranteak, erregimen monarkikoarentzat zilegitasuna lortze aldera, Udal-hauteskundeak deitu zituen 1931ko apirilaren 12rako. Hauteskunde horietan, errepublikarrak eta sozialistak bat eginda joan ziren eta hiririk garrantzitsuenetan irabaztea lortu zuten. Hori zela-eta, erregeak abdikatu egin zuen, eta 1931ko apirilaren 14an Errepublika aldarrakatu zen.

²⁹⁴ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 25. or.

²⁹⁵ EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 26. or.

or.

1.6 Euskararen egoera

Euskararen egoera Beasainen, II. Errepublikaren aurretik, ez zen batere ona. Egia da Goierri hitz egitean (bai eskualdean eta batez ere eskualdetik kanpo) beti egon dela halako eskualde oso euskaldunaren fama, nahiz eta XX. mendean hori guztiz erreala ez izan. Kontuan izan behar dugu eskualdean populazio erdaldun elebakarra kopuru handitan sartu zela XX. mende-hasieran (aipatutako datuek hala diote) eta, horrek, eskolan euskara ez irakastarekin batera, euskararen atzeraldi handia ekarri zuen; XIX. mende-bukaera arte Beasain herri guztiz euskalduna izan zenaz ez dugu zalantzarik²⁹⁶.

Baina, XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean zehar aldaketa eterri zen. Alde batetik Espanian Estatu modernoa ezartzeko egindako saiakerak Estatu-organoen presentzia gizarte osoan are gehiago zabaldu zuen (eskolatzea, administrazio-organoen presentzia, soldaduska, Guardia Zibila eta abar) eta Estatuaren garai hartako hizkuntza (gaur egun ere mantentzen dena) espiniera zen. Estatuak euskara hizkuntza funtzional legez ez zuela, eta ez duela, aintzat hartzen kontuan izanda (eta are gehiago, garai hartan zigortu egiten zuela eta euskararen debekuak ugarituz eta orokortuz zohoazela), euskararekiko eta bidenabar euskaldunekiko mespretxua eta jazarpena handituz joan ziren. Bestetik, populazio erdaldun elebakar ugariaren etorrerak, ez zion batere mesederik egin euskarari, kaleko "komunikazio-hizkuntza" bakar gisa erdara ezarri zuelako, hain zuzen ere, euskara baztertuta eta hiztun berriak lortzeko ezindua zegoenean.

XX. mende-hasieran jada bazeuden Beasainen halako arazoak. Adibide bat jartzearen, Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorok kontatua duenaren arabera, bere aitari, bagioen fabrikako langile zenari, barre egiten zioten espinieraz ondo egiten ez zuelako. Berak esana da, bere aitari erdara ez jakitearen konplexua barnera sartu zitzaiola, eta seme-alabek (berak, seme bakarra izanik batez ere) erdaraz ondo egiteko ezinbesteko premia ikusi zuela aitak, euskararen kaltean izan arren. Horregatik, Joxe Manuel eta bere arreba guztiak, euskara ia ahaltertu iritsi ziren eta, bere esanetan, inoiz ez ziren berriz behar bezala euskara berreskuratzera iritsi. Fabrika berez, komentatu dugun bezala, baserritarren eta kaletarren nahiz euskaldunen eta erdaldunen harreman-gune izan zena, erdara ikasi behar izateko eta euskara ahalteko eta baztertzeko gune bilakatu zen²⁹⁷.

Hezkuntzan ere Beasainen ez zen euskaraz klaserik ematen. Aspalditik zetorren kontua zen eta 1730-l-09an jada, Beasaingo Udalak maisuarekin egindako kontratuau, hala jarri zuten "Y que no les permita hablar en vascuence sino en castellano, poniendo anillo y castigándoles como merecen"²⁹⁸. Bi mende geroago ere, kontuan hartu behar dugu Beasaingo eskolak denak erdaldunak zirela (aurretik aipatutako batzokiko eskola-orduz kampoko saiakeratxo hura kenduta); Andoni Sarriegiren arabera, Errepublikaren garaiei itxaron behar izan zitzaien Beasainen eskolan euskaraz zerbait emateko (eta hala ere, kristau-dotrinaren ikasbidea soilik lortu zen lasalletarren eskola pribatuan, baina ez beste ikasgairik; asmoak baziren gaiak euskaraz irakasteko eta Bruño argitaletxearen liburu euskaratuak ere eskura ziren horretarako, baina asmo on haien zapuztuak gertatu ziren)²⁹⁹. Halako gertakaria, irakasleen afera baino, gehienbat sistemaren araberakoa baitzen eta araua, eskolak euskaraz ez baizik eta beti erdaraz eman behar izatea baitzen, irakasleak euskaldunak izan arren. Izan ere, bazeuden hainbat lege eskola-sistemak gaztelera jardun behar zuela markatzen zutenak: 1857an atera zen "Hezkuntzarako Moyano Legea" eta harago zihuan 1902ko Errege Agindua nagusiki, zeintzuk eskoletan gaztelera soilik mintzatzea (eta ez beste hizkuntzetan) agintzen zuten³⁰⁰. Gainera, irakasle batzuek Goierri erdalduntze-prozesu horren jokalari aktibo izan ziren eta Pedro Balerdi ordiziarraren arabera, eskolan mehatxuak ere etengabe jasotzen zituzten³⁰¹. Beasainen ere eraztunak gogor funtzionatu zuen eskoletan³⁰². Salbuespen modura aipatu beharra dago, II. Errepublikako urteetan, Gipuzkoako Aldundiak gutxienez ere politika elebidun antzeko bat bultzatu zuela auzo-eskoletan eta, Garin auzoan bederen, On Teodoro Bikuña apaizaren lanari esker, euskara eta euskaraz ere irakatsi zizkiela gai batzuk auzoko umeei³⁰³.

²⁹⁶ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18. or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 7. or.

²⁹⁷ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodu eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 93. or.

²⁹⁸ AGIRREBEÑA, Aitzane; ALBERDI, Itziar, MENDIGUREN, Xabier eta SARASUA, Asier: *Beasaingo Euskara*. Beasaingo paperak, 15. zk. Beasaingo Udal, 2007, 11. or. TORREALDAI, Joan Mari: *El libro negro del euskera*. Ttarttalo, Donostia, 1998, 15. or.

²⁹⁹ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18 or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 12-13. or. Iku halaber ASKOREN ARTEAN idatzitako *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierri*, SARRIEGI ESKISABEL, Andonik, idatzitako Beasain buruzko atala. GEE Kultur Elkartea, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992, 107. or.

³⁰⁰ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18 or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 9. or.

³⁰¹ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodu eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 93. or.

³⁰² AGIRREBEÑA, Aitzane; ALBERDI, Itziar, MENDIGUREN, Xabier eta SARASUA, Asier: *Beasaingo Euskara*. Beasaingo paperak, 15. zk. Beasaingo Udal, 2007, 12. or.

³⁰³ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18 or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 13. or. eta ASKOREN ARTEAN idatzitako *Hizkuntz ordezkapenaren nondik-norakoak Goierri*, SARRIEGI ESKISABEL, Andonik, idatzitako Beasain buruzko atala. GEE Kultur Elkartea, Gerriko argitaletxea, Lazkao, 1992, 107. or.

Bestalde 1876an ezarritako derrigorrezko soldaduska izan zen mutil euskaldunentzat espiniera derrigorrez egin beharreko beste toki bat eta gainera, mende-amaierara bitartean Spainiaren Afrikako eta Amerikako kolonien galeraren inguruko borroketan buru-belarri sarraraziak izan ziren soldadu euskal herritarrak (asko elebakar euskaldunak). Horiek denek garbi erakusten dute politika antieuskaldunaren aitzindaria ez zela erregimen frankista soilik izan eta erregimen horrek ordura arteko eraso sistematikoak areagotu eta azken muturreraino eraman baizik ez zituela egin. Horren guztiaren aurrean, euskararen defentsa-gune nagusia etxea edo familia eta lagunartea bilakatu ziren, eta inoiz edo behin, Eliza. Goierrin adibidez, Lazkaoko fraide beneditarren euskaltzaletasuna aski ezaguna izan da. Goierrin, Elizetan eta parrokietan hala nahi zutenei euskarazko dotrina-testuak irakasten zitzaizkien eta herri txikietan herritar guztiak hala ikasi ohi zuten. Herri handiagoetan, euskaraz aukera eskaini arren, gauzak nahasiagoak ziren. Elizkizunen arloan, berriz, ospakizunak garai hartan latinez izaten ziren nagusiki, baina sermoi, hitzaldi eta gisakoetan jada hizkuntza-borroka nabaria zen herrik handienetan eta horien artean Beasainen noski³⁰⁴.

Eskolaz, soldaduskaz, enpresez eta Estatuaren funtzionarioez gain, bazegoen erdalduntzeko beste jokalari garrantzitsu bat: administrazioa. Kontuan izan behar dugu XX. mendearen azken urteak arte, administrazioa erabat erdalduna izan dela Euskal Herriko lurrardeetan. Beste alde batetik Udal-karguak edo enpleguak hartzeko (alkate, zinegotzi, mediku, idazkari eta abar izateko), espinieraz jakitea ezinbestekoa zen (nahiz eta herritar gehienek euskaraz jakin eta ia elebakarrak izan). Mendeetan zehar egoera paradoxiko hori mamitzen joan zen: hau da, herritarren gehiengoa euskaldun elebakarra izan eta beren herrian kargu horiek ezin hartu elebakar euskaldunek; kargu horiek erdara ikasteko aukera izan zuten pertsonen eremu esklusibo bilakatu ziren. Horrela, erdaraz jakitea, klase-, maila- eta prestigio-muga bihurtu zen, euskara klase apalenekin lotuz eta erdara piramide sozialean aurrera egiteko aukerekin. Hemen gogoratu beharra dago, gaur egun ere, espiniera ez dakitenak ez direla onartzen karguetarako, baina euskara ez dakitenek ez dutela inolako mugariak eta betebeharrik Euskal Herrian karguak hartzeko.

Antz handiko egoera izan zen garai hartan Goierriko beste herri handian ere, Ordizian alegia. Larraitz Garmendiak eta Karme Etxabek egindako ikerketaren arabera, Ordiziako kalean (ez etxeetan) euskara "gudaren aurretik ere" asko galdu zen. Ordizian, kalean edo eskolan, euskaldunei edo erdaraz ez zekitenei barre egitea gauza normala zen³⁰⁵. Beraz, ikusten dugun bezala, Goierriko industrializazioaren zeharkako ondorio bat euskararen galera izan zen (noski, euskara garai haietan hezkuntza eta prestigio-gune orotatik at egoteak, oso ahul utzi zuen eta euskararekin batera, baita euskaldunak ere, ordurako jada bi hizkuntzen arteko kontaktua eta aurrez aurreko herrian erabateko zenean)³⁰⁶.



Loinatz bigarreneko prozesioaren etorrera. 1912-05-20. On Isak Gereka erretoreoa kaparekin. Martzelino Olano sakristaua gurutzearekin eta agintarien artean Jose Miguel Iturriotz alkatea bibote eta guzti. (Argazkia: JZG, 68. or.)

³⁰⁴ SARRIEGI ESKISABEL, Andoni: "Euskara Beasainen azken mendeetan" in SIADECO: *Euskara Beasainen* (7-18 or.). Beasaingo Udaleko Euskara Zerbitzua. Beasain, 1990, 13-14. or.

³⁰⁵ GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karme: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*. Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 92-94., 98. eta 105. or. Eskolako barreei buruz, ikus lan horretako 94. or.

³⁰⁶ Aipatutako lanean halere, bitxi samarra den hipotesi edota hipotesi-oinarri bat aurkitzen dugu; izan ere, lan horretarako elkarriketatuak izan ziren adineko ordiziaren arabera, gaur egun garai hartan baino gehiago (91-98. or.) eta hobeto (92-93. or.) hitz egiten da euskaraz (kontuan izan dezagun pertsona horiek bai orduan zein gaur egun bizitakoak direla, beraz, halako pertzepzioa dutela). Hala ere, aipatu beharra dago, Garmendia eta Etxabe ikerlariak ez datozena bat hipotesi horrekin eta euren arabera, erabilera agian igo egin da, baina ez, ordea, kalitatea (99. eta 115-118. or.); eta nahiko kezkaz ikusten dute gaur egungo euskararen inguruko gehiegizko baikortasun moduko hori.

Beasain

a principios de siglo:
1900-1931



Índice

PRESENTACIÓN	67
1. BEASAIN A PRINCIPIOS DE SIGLO: 1900-1931.....	68
1.1. La industrialización de Beasain y Gipuzkoa.....	69
1.2. Demografía y urbanismo de Beasain	77
1.3. Otros servicios y asociaciones	80
1.4. Movilización obrera.....	85
1.5. La política de inicios de siglo en Beasain.....	89
1.6. Situación del euskera	102
2. FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA	105

Nota. – Una obra bilingüe de estas características, en la que han participado tantas personas, se puede publicar, en teoría, de varias maneras.

La primera es hacerlo en dos volúmenes: el primero con la obra escrita en euskera y el segundo con su correspondiente traducción al castellano. En ellos aparecería el nombre del pueblo de Beasain al que se refiere esta obra, escrito de la misma manera en los dos volúmenes ya que se dice igual en euskara y en castellano. Sin embargo un nombre, elegido al azar, escrito en euskera *Karlos Gonzalez*, en la traducción castellana estaría escrito correctamente *Carlos González*.

Una segunda forma, como es en nuestro caso, es publicarla en 4 tomos donde cada uno tiene una parte de la escrita en euskera con su correspondiente traducción, y su Bibliografía.

Por otra parte, como varias empresas se han encargado de la traducción al castellano de esta obra queremos decir también que:

Si analizamos, como ejemplo, las decenas de referencias que estas empresas hacen en cada tomo al Archivo Municipal de Beasain, en los Pies de Página, comprobaremos que cada una tiene su estilo. Así, en ellos, después de escribir documento, una deja un espacio libre antes de poner el número (documento 12), otra escribe en medio dos puntos (documento: 12), mientras que una tercera pondrá el signo nº (documento nº 12). Nosotros hemos respetado estas formas porque las consideramos correctas sin optar por ninguna de las tres.

Lo mismo ocurre en las traducciones al escribir las fechas de las entrevistas realizadas de los testigos citados en esta obra. Mientras alguna utiliza, por ejemplo, la forma *1 de diciembre de 2014*, otra escribe así la misma fecha *01/12/2014*. En la medida que las dos son también correctas, no las hemos modificado. Lo mismo ocurre con las abreviaturas de página, que se pueden escribir p., pág., que son correctas.

Más problemático es escribir en una obra bilingüe de estas características los nombres y los apellidos de las personas, así como los de los lugares. Aquí, en teoría, tampoco hay ningún problema en escribir un nombre escrito en euskera *Gontzalo Queipo de Llano*, escribirlo en la versión castellana *Gonzalo Queipo de Llano*. El problema surge cuando de las dos formas, hay ya una que está escrita en la Bibliografía. Además se puede dar la paradoja que en ella aparezcan nombres en las fuentes orales nombres como *Joan, Jabier, Frantziska...* y los mismos nombres de otras personas escritos en la Bibliografía como *Juan, Javier, Francisco*. Lo mismo podemos decir de los apellidos. Es decir, escritos de dos formas.

En la misma línea, si una persona entrevistada se llama Alfontso Ibaibarriaga, se escribe así en el texto escrito en euskera, evidentemente también en la Bibliografía, y también cada vez que se le cita en los tomos en los pies de página. Eso sí, ¿cómo se escribe este nombre Alfontso en la traducción castellana? ¿Cómo se escribe el entrevistado Jabier, con –v-? ¿Cómo se escribe también Joan, Frantziska, y todos los demás nombres? Se podrá argumentar sensatamente que en una obra de estas características lo mejor es escribir los nombres en euskera en el texto vasco, y en castellano en la traducción. De acuerdo, ¿pero qué hacemos con los pies de página y sus referencias en la Bibliografía? ¿Las cambiamos también? Hay cientos de nombres y miles de pies de página en total en los 4 tomos.

Por todo ello, y visto que el problema no tiene una clara solución, se ha decidido respetar íntegramente los nombres propios en el texto escrito en euskera sin modificarlos, no se modifican tampoco los nombres que aparecen en las Fuentes ni en la Bibliografía, y obviamente tampoco los que aparecen en los pies de página que son los mismos. En las traducciones se escribirán los nombres correctamente en grafía castellana, aunque a veces también aparezca algún Txomin, o algún apellido euskaldun que por el más elemental respeto no lo hemos cambiado.



Han pasado 82 años desde que la vida social e institucional de Beasain fuese alterada por la sublevación militar de 1936. Beasain tenía que haber evolucionado en la normalidad democrática de su gobierno municipal y en las dinámicas propias de la modernización de su economía. Una sociedad que se estaba con ansias de abrirse a los mercados exteriores y a las corrientes culturales que venían de Europa.

Desgraciadamente, la irrupción de los sublevados se produjo de forma trágica y violenta. Se vulneraron de forma sistemática los derechos más fundamentales: asesinatos, exilio, represalias económicas, perdida de las libertades civiles y democráticas... Todo ello se prolongó durante 40 años de dictadura franquista.

Han pasado, tal vez, demasiados años. Las víctimas y las personas protagonistas de aquellos hechos ya no están entre nosotros, pero como ayuntamiento nos queda la obligación de investigar lo ocurrido y reconocer el sufrimiento de las personas cuyos derechos fueron conculcados.

Para este fin, hemos contado con la colaboración de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, y el trabajo aquí presentado ha formado parte de una tesis doctoral leída en Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco. Como alcalde de Beasain, espero que este sea un paso más en el reconocimiento de estas personas y en la recuperación de la memoria histórica de nuestro pueblo.



AITOR ALDASORO ITURBE
ALCALDE DE BEASAIN

BEASAIN

a principios de siglo: 1900-1931

Sabemos que Beasain fue bastante especial comparando con otros pueblos de Gipuzkoa. Y es que la evolución dinámica de Beasain tuvo gran influencia en los acontecimientos posteriores en la época de la II^a República. Como bien sabemos, para investigar algo tenemos que conocer nuestra procedencia. A finales del siglo XX Beasain había tomado su rumbo, el cual le llevaba hacia la conversión industrial. Entonces eran pocos los pueblos industriales en Gipuzkoa. Así que podemos considerar a Beasain como un caso especial en este territorio. De hecho, los duros cambios demográficos y sociales que acontecieron en Beasain no tuvieron lugar en otras localidades de Gipuzkoa.

Hoy en día cualquiera puede percibirse de que estas alteraciones demográficas y la vida social están principalmente relacionadas con la instalación de la “gran fábrica”. La fábrica de vagones (a partir de 1971 se generalizó el nombre CAF), además de factor atrayente de población (incluso emisor poblacional en épocas de crisis), fue un centro innovador en Beasain que expandió nuevas costumbres, impulsó nuevos modos de reunión, dio forma a nuevas identificaciones y fue el principal factor de la reforma política, esto es, fue el gran generador de la modernización política, social y económica (en este párrafo he mencionado “fábrica” en vez de “empresa”, pues muchos de estos cambios se debieron a las realidades de la fábrica y de muchos de sus actores y trabajadores y no a iniciativas empresariales. Algunos fueron conscientes, otros los crearon la fábrica y sus trabajadores, otros respectan a nuevas formas de relacionarse, y otros se crearon como respuesta a necesidades. Es decir, los cambios acarreados por la fábrica no llegaron siempre desde “arriba”, sino también desde “abajo”).

A principios del siglo XX, en 1915, se cumplió el 300º aniversario de la independencia de Beasain. Obtuvo su carta puebla en 1615 tras pagar 3.162,30 ducados a la hacienda real¹. En esa época, la Hacienda de Felipe III de España se encontraba en muy mal estado, y un nuevo modo de conseguir ingresos fue dar la oportunidad de comprar dichas cartas pueblas. El montante que un pueblo debía pagar para recibir su carta dependía del número de ciudadanos. Beasain, entonces, tenía 126 ciudadanos. (Hay que tener en cuenta que en aquel entonces no todos los habitantes eran considerados ciudadanos; solo lo eran quienes tenían derecho a voto, esto es, los cabezas de familia con propiedades). Beasain se separó de Ordizia, y cambió el estado que tenía desde el siglo XIV. Tal y como se explica en la obra de José Manuel Azurmendi, el 8 de abril de 1399 se suscribió el Pacto² mediante el cual Beasain y otros ocho pueblos del este de Goierri formarían parte de Ordizia (la cual había conseguido el título de villa en 1256). Por tanto, como hemos podido observar, Beasain no era el centro de Goierri, pero en el siglo XX consiguió serlo.

¹ AZURMENDI DORRONSORO, José Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1970, pág. 16.

² AZURMENDI DORRONSORO, José Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián. Donostia, 1970, pág. 16; según la página web del Ayuntamiento de Ordizia, estos pueblos solicitaron unificarse como modo de protección contra los bandidos de los alrededores. Fuente: <http://ordizia.eus/ordizia/historia>.

Entre los siglos XIX y XX, Beasain pasó de ser un pueblo de campesinos, al menos parcialmente, a ser un pueblo urbano, sobre todo, si observamos su producción económica (a principios del siglo XX la mayoría de los habitantes no eran trabajadores industriales). Además, la industrialización de Beasain amplió la notoriedad demográfica que este pueblo tenía dentro del Goierri (cabe mencionar que en el año 1900 Beasain no era el pueblo más poblado de esta comarca).

Como hemos mencionado, a principios de siglo Beasain era un pueblo campesino (pese a que la “gran fábrica” comenzara su actividad en 1862). La mayoría de la gente vivía en el campo. El núcleo urbano de Beasain solo contaba con una calle (a mediados del siglo XIX, de 282 viviendas, 182 eran caseríos³), y generalmente se referían a ella como “la calle”. Se corresponde con la actual calle principal: las calles no empezaron a constar en el censo de Beasain hasta el año 1910, pues hasta entonces se hacían tomando las casas como referencia⁴.

A comienzos del siglo XX, además de la “gran fábrica”, apenas había industria en Beasain, por lo que la industria como tal ingresó en Beasain en el siglo XX; a pesar de que los cimientos para industrializar el pueblo se crearon la década anterior. En aquel momento esta fábrica fue creada tras un traspaso de empresa (en 1898 era propiedad de la empresa *Maquinista Guipuzcoana*, y más tarde de la empresa *Sociedad Española de Construcción de Materiales*). Hay que tener en consideración también que en aquella época SECM compró terrenos para ampliar las instalaciones de la “gran fábrica” en los alrededores de la misma, y que esto tuvo consecuencias negativas en dichos terrenos (pues eran bastante buenas tierras para la agricultura). Así pues, en el siglo XX, la localidad tomó sin titubeos la decisión de desarrollarse industrialmente y dejar atrás la agricultura. Y ya a principios del siglo XX, aunque al parecer no es muy conocida, los ajustadores de la fábrica hicieron la primera huelga⁵.

Por todo lo anterior, a comienzos del siglo XX Beasain experimentó su mayor proceso transformador, y de ser un pueblo agrícola pasó a ser un pueblo industrial.

1.1 La industrialización de Beasain y Gipuzkoa

La industrialización moderna de Gipuzkoa, que inició principalmente a mediados del siglo XIX, llegó a la vez que el declive de la economía internacional. En efecto, la fundición tradicional sufrió un retroceso importante en este siglo. El número de fundiciones de la provincia disminuyó de manera significativa: en 1775, Gipuzkoa contaba con 75 fundiciones, mientras que en 1846 con 58, en 1860 con 31 y en 1880 con 4⁶. Las fundiciones, antes de desaparecer por completo, realizaron una aportación histórica, la preparación del cambio para la industria grande, es decir, la ejecución del “pensamiento industrial”. El Goierri fue una zona minera, con explotaciones en lugares como Arriaran, Igartza e Igartzaoleta en Beasain; Agantzaoleta en Ataun-San Gregorio, Ayestarán en Zaldibia; Amelibia e Iribar en Lazkao; Armaola, Arrabiola, Arteunola y Goienola en Segura; Arimasagasti, Oribar, Loidi y Urtsua en Idiazabal; e Ihurre en Olaberria⁷.

El declive de la siderurgia vasca se debió principalmente a dos factores: por una parte, la pérdida del mercado interno y, por otra parte, la competencia externa, la competencia de una industria que trabajaba con mejores técnicas.

En cuanto al primer factor, la independencia de varios Estados americanos en el siglo XIX afectó de manera negativa al mercado español⁸, lo que a su vez impactó en el sector de la fundición, mientras que los sectores “más trabajados”, como la cerrajería, consiguieron mantenerse.

El segundo factor se trata de la competencia de las fábricas de los Estados en los que la industrialización moderna había penetrado y en las que desarrollaban técnicas más modernas. Pese a que la industria moderna trajera numerosas mejoras para el sistema siderúrgico, la principal novedad (que a su vez implicaba consecuencias sociales) fue que los dueños lograran la plusvalía y que el sueldo de los trabajadores se concentrara casi por completo, es decir, que esta industria se convirtiera en la única actividad de generación de ingresos de los trabajadores y dueños de la misma. Sin embargo, este no era el caso de las

³ ZUFIAURRE GOYA, José: “Beasaingo etnografía” in LÓPEZ GONZÁLEZ, Miguel Ángel (dir.): *Beasain. Udalerrri gipuzkoar baten historia*. Madrid, 1987, págs. 301-302.

⁴ ZUFIAURRE GOYA, José: *Beasaingo kale-izenen historia*. (Colección Beasaingo Paperak, nº 4). Comisión de Cultura de Beasain. Ayuntamiento de Beasain. Beasain, 1995, págs. 7-8.

⁵ CASTELLS, Luis: *Los trabajadores en el País Vasco (1876-1923)*. Siglo XXI. Madrid, 1993, págs. 13-17.

